



Maria URROZ | Eskulangilea

«GAUZAK BIHOTZAREKIN EGITEN DIRENEAN BIHOTZERA IRISTEN DIRA»

Lantegia Narbarten du Maria Urrozek eta hantxe lantzen du zeramika.

Baina horrez gain, kapelak eta sariketetarako garaikurrak egiten ditu. Parisen egin den goi mailako kapelaren erakusketan ere parte hartu du *The golden bee* urrez jantzitako kapelarekin. / 10

25.000 urteko grabatuak Urdazubín

Alkerdiko bigarren leizean dozena bat grabatu atzeman dituzte eta adituen arabera, «batere ohikoak ez diren ezaugarriak» dituzte. / 52



Terapeuta okupazionalen lanaz Miren Etxepeteleku lesakarrarekin / 8








Dolua margolanen bidez azaleratu du Miren Fagoaga leitzarrak / 38



Pentsiodunen mugimenduaz solasean Julen Mitxelorenarekin / 28



Pandemiarekin eman duten bertsio ofiziala «gezurra» dela dio Mikel Altzuartek / 42

<p>BERA</p> <p>LESAKA</p> <p>Agenda 2021</p> <p>URRIA</p> <p> </p> <p>www.berakoagenda.eus www.lesaka.eus</p> <p> </p> <p> LESAKAKO UDALA</p>	<p>ARGAZKI ERAKUSKETA AUTOPSIK (ASIER GOGORTZA)</p> <p>Ordutegia Urriaren 16tik abenduaren 19ra arte. 16:00-20:00 larunbat eta igandeetan. Antolatzailea Labiaga ikastola</p> <p>BERA</p>	<p>21 ORTZEGUNA</p> <p>LESAKA</p>	<p>HITZALDIA HURBILETIK BEGIRATZEN</p> <p>17:30 Harriandoan Antolatzailea Bortziritako Gizarte Mankomunitatea</p>	<p>30 LARUNBATA</p> <p>LESAKA</p>	<p>EMANALDIA IBIL BEDI Bira Nafarroan Barna programa</p> <p>20:00 Harriandoan Sarrera* 5 €</p>	
	<p>15 ORTZIRALEA</p> <p>BERA</p>	<p>HITZALDIA ELKARRIZAN</p> <p>Elkartearen aurkezpena. Bolutarioen sentsibilizazioa</p> <p>18:00 Kultur Etxean</p>	<p>23 LARUNBATA</p> <p>BERA</p>	<p>KONTZERTUA NAHIAK NAHI</p> <p>Bira Nafarroan Barna programa</p> <p>18:30 Kultur etxean Sarrera 5 €</p>	<p>31 IGANDEA</p> <p>LESAKA</p>	<p>ANTZERKIA AMUA</p> <p>19:00 Harriandoan Sarrera* 8 €</p>
	<p>16 LARUNBATA</p> <p>BERA</p>	<p>AZOKA AZOKA EGUNA ALTZATEKO ETA MERKATU PLAZAN</p> <p>10:00-14:00 Eskulangile eta janari ekoizleen postuak, musikarekin girotuta 17:00 Olaia lantziren kontzertua 18:00 Mutxikoak Kiki Bordatxorekin</p>	<p>25 ASTELEHENA</p> <p>BERA</p>	<p>TAILERRA LIBURUA EGINEN DUT (EDTARGI)</p> <p>17:30 Herri liburategian Izen-ematea Ekitaldi egunean liburategian Antolatzailea Nafarroako Gobernua</p>	<p>31 IGANDEA</p> <p>LESAKA</p>	<p>ARGAZKILARITZA ARGAZKI LEHIAKETA</p> <p>Epe-muga Urriaren 31 arte Antolatzailea Beti Gazte Elkarte</p>
	<p>16 LARUNBATA</p> <p>LESAKA</p>	<p>ANTZERKIA KIROLAK (DANTZA)</p> <p>Nafarroako Antzoki Sareko Zirkuitua</p> <p>19:00 Harriandoan Sarrera* 6 €</p>	<p>30 LARUNBATA</p> <p>LESAKA</p>	<p>MERKATUA MERKATU TITIKIA</p> <p>10:00-14:30 Plazan</p>	<p>31 IGANDEA</p> <p>LESAKA</p>	<p>* Ekitaldietarako sarrerren salmenta: www.lesaka.eus Harriandoa Kultur Etxean Astelehenetik ortziralera 9:30-14:00 Egunean bertan (lehenago agortu ez badira)</p>

AZOKA EGUNA

BORTZIRIAK, MALERREKA, BERTIZARANA,
XARETA ETA BAZTANGO ESKULANGILE ETA
JANARI EKOIZLEEN ESKUTIK.

2021EKO
URRIAK 16

Altzateko plaza
eta
Merkatu plaza

10:00-14:00 Eskulangile eta janari ekoizleen postuak, musikaz girotuta.

17:00 *Olaia lantziren kontzertua.*

18:00 *Mutxikoak Kiki Bordatxorekin.*



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Aio errekei

Atzo erreka joan nintzen txikitan bainatzen ginen Urbietako putzua ikusteko asmoz. Jota gelditu nintzen. 20 cm inguruko sakonera zeukan garai bateko igerilekuak. Karramarro asko zeuden, amerikarrak. Bertako karramarroen arrastorik ere ez. Amuarrain gutxi. Bistakoa da ur-emia ikaragarri jaitsi dela azken urteetan. Lehortea? Bai, baina lehorteari iturri guztiak guretzat hartu izana gehitu behar zaio. Lehen errekatik zihuan ura orain hodieta barrena ur-biltegiara, etxeetara, lantegietara, eta abarretara doa. Herriaren parean erreka alde batetik bestera pasa daiteke harrietatik, zubi beharrik gabe. Gogoa dut zer lasterraldiak egin behar izaten ziren garai batean eskolako futbol-zelaitik baloia erreka joaten zenean hura berreskuratzeko. Makila hartu eta ziztu batean behera jaitsi behar zen lehenbailehen harrapatzeko. Gaur ez litzateke 20 metro jaitziko harrietan trabatu gabe! Gure ume garaitik hona bezainbeste aldatzen bada erreka datozen urteetan, ez dakit zer ikusiko dugun. Euririk ari ez duenean erreka-zulo lehor bat?

«ITURRIAK GURETZAT HARTU IZANA GEHITU BEHAR ZAIO LEHORTEARI»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Munduaren azkena dator

Begirada galduarekin sumatu nituen hainbat lagun astelehen arratsalde hartan. Telebista kate guztiek erakusten zuten, Palmako sumendiko erreka gorituak hondartza berri beltza sortu zuen, kea hedatuz airean... Baina begi haiek ez zeuden telebista begira. WhatsApp, Instagram eta Facebook bueltaka bueltaka zebiltzan sakelekoan mutu, mundurako leihoa itxita.

NABARMENTZEKOAK



PATXIKU IRISARRI
EHNE SINDIKATUA



JOXE ANGEL GOIENETXE
ALBINTEA

Nafarroako EHNE sindikatua bere zazpigarren biltzarra egin zuen urriaren 1ean Artikan, eta orduan izendatu zuten Patxiku Irisarri etxalartarra idazkari nagusi.

34 urtez Etxalarko albinte lanetan aritu ondotik, irailaren 30ean erretiroa hartu zuen Joxe Angel Goienetxek. Udalak eta lankideek egin zioten, lan hori guztia eskertzeko.

ATZERA BEGIRA



2011-10-13 · TTIPI-TTAPA · 552 zk.

Diana Iniesta margolariarekin solasean

«Hitzik gabe adierazteko beharra sentituta hasi nintzen margotzen». Halaxe kontatu zion duela hamar urte Diana Iniestak TTIPI-TTAPAri. Hamahiru urte lehenagotik ezagutu zuen Baztan, «arteari buruzko aldizkari batean, Baztanen pintura ikastaro bat egitekoa zela leitu» eta parte hartzea erabaki zuenean. Hasiera hartan, «gutierrez urtean behin etortzen hasi nintzen», eta azkenean, Bartzelona zuen «ardura handiko lana utzi» eta Erratzura bizitzera etortzea erabaki zuen. Pinturaren indarrak mintzatu zen, «zeure burua hobeki ezagutzeko aukera ematen du». Gustuko lana egitearen garrantziaz ere aritu zen katalana: «gustatzen zaizuna egitea ez da zaila. Nik bi bizitza ditudala erraten dut, bat lehengoa eta bertzea aukeratu dudana».



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ainhoa Larretxea,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publikitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Ebekolonea, Nerea Bazterrika, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Otelza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€





KOLABORAZIOAK

MIXEL GEREKA ZELAIA

'F'az firi fara

Haizeak hosto artean bezala, 'F'ra ekarri nau firi-fara orain dela lauzpabost zutabe 'A'rekin abiatu zen errenkadak.

'F'z egin ditut burutazioak eta fak dabilta zurrunbilan firfiran.

Familia azaldu zait lehenengo postuetan. Pisu handiko hitza. Gure bizitza erabat baldintzatzen duen baina aukeratu ezin dugun *ente* edo izatea. Patua edo zoriak –bakoitzak aukeratu nahiago duzen termino – familia nukleo batean jartzen gaitu eta hor hasten da gure bidaia eta hor korapilatzten zaizkigu aukeratu ez ditugun bidaideak. Ederrak edo zorigaitzezkoak. Betiko gertu nahi ditugunak edo hurrengo geltokian atzendu nahi ditugunak. Familia, ipurdia bezala, bakoitzak dugu geurea.

Zorionez, mendeetan zehar kristautasun *santosantorumak* inposaturiko familia eredu bakar, ukiezin eta aldaezinak bereak egin du eta anitzagoa eta koloretsuagoa dugu gaur egun, aukerak zabalduz eta aberastuz. Lasaiago arnastuz.

Fa ondotik fe datorrela eta fedea giltzatu zait pentsamenduan. Fedea existentzia eraldatzen duen dohain bat omen da (ez dira nire hitzak, Benedikto XVI.a aita sainduarenak baizik). Hau ere kontzeptu astuna eta ez makala ongi ulertu eta kudeatzeko. Familiarekin gertatzen den bezala, zoriak

**«FI ETA FU IBILTZEA
MADARIKAZIOAK
BOTATZEN JARDUTEA
OMEN DA...»**

agintzen du eta gerta daiteke dohain edo opari hori jasotzea,...edo nire kasuan den bezala, ez jasotzea. Zeren araberak ez dakigu, lehen aipaturiko Benediktok dioenez Jainkoa da iniziatiba hartzen duena eta gure bila ateratzen

dena (Benedikto XVI.a dixit). Baina bai ziurtasunez dakiguna da fede horren izenean eta fede bat edo beste inposatzeko nahiak mendeetan zehar utzitako sarraskia eta zentzugabeberia. Gaur bertan ere...

Familiarekin gertatzen den bezala, denok dugula bat jatorrian, fedearikin ez. Lehenengoa ezin dugu aukeratu, bigarrena bai. Bata zein bestea bere ondorio guztiekin.

Fi eta fu ibiltzea omen da (Orotariko Euskal Hiztegia, Euskaltzaindia) madarikazioak botatzen jardutea, eta hori gertatzen zait sarritan fedea eta erlijioen ingurumaritan sartzen naizenean. Baina fi eta fu-tik fo-ra noa eta fortuna aipatzea nahi nuke. Fortuna erromatarren jainkosa bat omen zen. Beste bat. Zoriaren jainkosa!! (Zoriarekin lotzen dira baita familia eta fedea ere). Zoriaren gurgila edo erruletarekin irudikatzen zuten, zortearen gorabeherak eta zoriaren aleatoriotasuna erakusteko. Eta fortunaren kulturako haritza erabiltzen omen zuten Preneste hirian. Ez Gernikan!!

Eta 'fukatze' sarean bilaturiko esaera zaharra (OEH, Euskaltzaindia):

Bai, atzo frin-frin, firun-firun, egun fran-fran, fardulu fardulu, eta irulea bethi ari zen iruten, begi bazterraz arrotzari begira.



GABI GOIA IPARRAGIRRE

Leitzea zoragarria da

Azken urte honetan, hilabeteen behin herriko liburutegian zaintza lanetan egoteko aukera izan dut eta lan polita eta aberasgarria suertatu zaidala aitortu behar dut. Hortxe ikusi dut hainbat gurasoren ahalegina ttiki-ttikitatik euren seme-alabak liburuetara hurbiltzeko eta irakurzaletasuna eurengan pizteko. Eta bide egokia dela ohartu naiz...

Lau-bortz urteko umetxoak irakurtzeko irrikitan sumatu ditut, ipuinean ikasi dutena niri kontatzeko, etxera eramanez duten liburuxka aukeratzen emozioz beterik... Ez dakit haur horiek noiz arte segituko duten ohitura polit honekin baina hazia ereina da dudarik gabe.

Pantailen garaian jaio dira gaur egungo haur eta nerabeak, koloreez, argiez eta etengabeko mugimenduez estimulatutako buruak dituzte umetxo horiek, oraindik garatu gabeak gainera. Helduok nahi izanen dugu egunero ko beraien eginkizunetan kontzentratzea, eskolan arreta mantentzea eta gaua ailegatzean ongi lo egitea eta hori zaila gertatuko zaie beraien garuna hipermugitua dagoelako. Ez ditugu gutxietsi behar gure inguruko tresna teknologiko hauen guztien arriskuak, dena eginda ematen zaie, esperatu beharrik gabe eta irudimenik erabili gabe. Umeak gero eta ttikiagoak hasten dira gailu hauek erabiltzen eta

**«IRAKURZALETASUNA
EZ DA BEREZ
SORTZEN, LANDU
BEHAR DA»**

bai beraiek bai gurasoak eta, atautxi-amatxiak ere erranen nuke, gero eta *engantxatuagoak* gaude.

Eta gailu hauei denbora lapurtu nahian dator irakurzaletasunaren gonbidapena. Leitzea,

liburu edo ipuin batean murgiltzea, kontzentrazio eta memoria ariketa bikaina da, mundu berriak ezagutzeko desioa pizten du, ingurua ulertzen laguntzen digu eta norberaren sormena eta irudimena aberasten du. Bakarka edo taldean leituz senti daiteken plazera da. Irakurlea den orok ezagutuko du leitzen ari den liburua berrartzeko gogoia edo bukaera nolakoa izanen den jakiteko grina! Liburu bat eskuetan gozatzeko gai denak bizitza osorako lagun baten jabe da, bakardadean, gaixotasunean eta zahartzaroan ere bai.

Irakurketa burua garatzeko aktibitate ona dela erran dezakegu baina ez da berez sortzen, landu behar da, ahalegin bat egin behar da liburuen mundura hurbiltzeko eta gure burua bideratzeko, ttiki-ttikitatik eta egunero. Haurtzaroan, liburua eta leitzen duenaren artean lotura sortzen baldin bada bizitza osorako izaten da. Ez dago botoi bat zanpatu eta *ttak* irakurzaletasuna piztuko duenik, esfortzua eta denbora eskatzen du bertze zaletasun guztiak bezala. Gero, ahalegin horrek bere saria izanen du etorkizunean.

11 GALDERA LABUR

OLATZ ZABALA ARAINBURU-UMORE ONA MENDI TALDEA

«Mendirako zaletasun handia dago herrian eta jarraitzea espero dugu»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

28 urteko goizuetarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Mendian ibiltzea eta lagunekin elkartzea.

Noiz sortu zen Arainburu-Umore Ona Mendi Taldea?

2020 hasieran sortu zen udalak bultzatuta. Hernani-Goi-zueta bide zaharraren zati bat ezagutzeko antolatu zuten mendi ibilbidearen ondoren, sumatu zen herrian bazegoela mendian taldean ibiltzeko gogoia eta horrelako irteerak antolatzen hasi ginen.

Zer da Arainburu?

Arainburu Goizuetako mendirik altuena da (1.054 m). Hala ere, herriko ikurra Mandoege mendia dela esanen nuke, Arainburu herritar askok


ez genuelako ezagutzen. Taldeari izen hau emateak ezagutzeko aukera eman digu.

Taldeko lehendakaria zara, ez?

Bai, baina taldekideak Mirari Etxegia, Igaratza Apezetxea, Patxi Etxeberria, Naroa Zugarramurdi eta ni gara. Lanak banatuak dauzkagu; batek kartela prestatu, besteak ibilbidearen egoera ikusi eta *track*-a egin... Lehendakaria izanagatik ez dut beste taldekideak baino ardura gehiago.

Zenbatero egiten dituzue irteerak eta nora?

Hilabetero edo bi hilabetetik behin saiatzen gara, baina maiztasuna zehaztu gabe. 2021ean momentuz lau irteera egin ditugu, hiru herri inguruan eta bat mugakidea den herrira, Lesakara.



Nori zuzendutako itzuliak dira?

Guztiengana iristea da gure helburua eta hainbat zailtasunetako irteerak antolatzen saiatzen gara.

Jende askok parte hartzen du?

Bai, 20-30 laguneko parte-hartzea izan dute irteera guztiek eta pozik gaude erantzunarekin. Mendirako zaletasun handia dago herrian eta horrela jarraitzea espero dugu.

Nola eragin dizue koronabirusak?

Taldea sortu bezain laster pandemia iritsi zen eta ezin

izan genuen antolatuta geneukan irteera egin. 2020ko urrian berriro saiatu ginen, baina bertan behera utzi behar izan genuen. Eta azkenean, abenduaren 31n egin genuen lehenengo mendi itzulia. Hasiara zaildu zigula esan dezakegu!

Zure asmoak epe motzera?

Antolakuntza jarraitzea eta ibilbide berriak ezagutzeta.

Eta epe luzera?

Ez dut horretan pentsatu, denborak esanen du!



Bilduma berria

70. urteurrena
urteurrena dela eta, erosketak bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Jokatu eta jostatu

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Gaur egungo haur, gazte-txo eta gazte askorentzat, ematen du 'jokatu' aditza ez dela existitzen, dena baita 'jolastu' eta 'jolastu'. Gainera, bide batez, Euskal Herriko lurralde ugariatako 'jostatu', 'olgatu' eta abar ere, erabat baztertua uzten dituzte. Baina, ez da hori bakarrik, baizik eta kontua da, gainera, 'jolastu' aditza oso gaizki jokatzeko dutela gehienetan, eta, horren ondorioz, behin eta berriz, mota honetako esaldiak entzuten dira, kirol partiduak jokatu baino lehen edota ondoren, hots, «gaizki jolastu dute»; «oso gaizki jolastu dugu»; «guk baino hobeki jolastu dute»; «asko entrenatu dute»; «oso ongi entrenatu dugu» eta abar, eta abar; nazka-nazka egin arte. Hemen ez naiz hasiko irakasten zergatik eta nola den, baina, dakienak, badaki.

Pentsatzen dut, horren arrazoiak eta erruak etorriko direla, etxe eta eskola askotan ez direlako ongi transmititu kontzeptu horiek, baina, bueno, nire asmoa hemen, ez da, hain zuzen ere, errudunak bilatzea, baizik eta konponbideak aurkitzea, –norberak atera ditzala bere kontuak–.

Beste alde batetik, suposatzen dut, pilota enpresetan

eta futbol klubetan, besteak beste, borondate ona izaneko dutela arduradunek, beraien kirolariak, euskara modu egokian erabil dezaten hitz egiterakoan, batez ere, euskal komunikabideetan, are gehiago, ikusita ETB1en, konparazio batera, esaterik saiatzen direla erakusbide ona ematen, kirolari gazteek euskararen erabilera txukuna egin dezaten, baina, argi dago horrela nekez lortuko dutela emaitza onik. Horrexegatik, nik honako galdera eta proposamena eginen nieke kirol arduradunei, enpresaburuei eta abarri, benetan borondate ona baldin badute, behinik behin: horren zail izaneko ote litzateke, kirolari gazte horiei ikastarotxo txiki bat ematea, oinarriko kontzeptu horiek, behin betiko, ongi ikasi ditzaten? Jakina, betiere, era egokian eta irakasle eskudunekin.

Erantzunen bat gustura jasoko nuke.

BOTA BERTSOA

ZIORTZA GOIA MITXELENA

BERAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN C MAILAN 2. SARIA

Positibo

Doinua: Trumoa ortzi beltzean hoska



Ermatu eta hainbat zeregin aspiragailu, bazkaria egin plater pila bat zikinak baina ohatzetik altxa ezin tripak nahasiak, buruko mina temperatura altuekin sentitzen naiz hain desberdin zer ikusirik izango ote du azken inauterietan.

Mozorroak ta argi gorriak nahasmenaren lehen jatorriak begirada bat gurutzatuta ta konexioen irriak ukimenaren ondorioak ta sentazio berriak izan ginen bihurriak baina zergatik ahantzi genitun segurtasun neurriak.

Gogor joan da azken astea kosta egiten zait zerbait jatea hobe izanen da lehen bait lehen medikura joatea zenbat galdera zenbat zalantza sortu ote dut katea? ze beldurra erratea ez nun nahi eta ez nun espero positibo ematea.

Baikortasuna kolpez kendua lasaitasuna dut mantendua dena ongi ateratzea da gaurko nire erregua ez dut segitu gizartearen gaur egungo eredu azkar egin nahiz heldua bedetzi hilabetekoa da zure kojfinamendua.

GOITI ETA BEHEITI



Ardi-ilea behar ez den tokian botata



Mendialdea Mankomunitateak artilea biltzeko kanpaina egin arren, Leitzañan edukiontzia ondoan agertu zen...

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du laburtzeko. Gutuna info@ttipi.eus helbidera bidali behar da edo Whatsappez 744 48 43 61 telefonora. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran



*Sinetsi, sinistu, *sinestu...*

*Sinetsi eta sinistu forma zuzenak dira, ez, ordea, *sinestu.*

Zein da zuzena?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Bidexka ala *bideska?

Atziki txikigarri hauen forma *-xka* (*-ska) eta *-xko* (*-sko) dira *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

-xka: adaxka, berdexka, bidexka, gorrixka, herrixka, mendixka, otarrainxka, sardexka, zuhaixka, zurixka... (*adaska, *berdeska, *herriska, *mendiska, *piska bat...).

-xko ('x samar' adierarekin): *aspaldixko, handixko, harroxko, ilunxko, lodixko, urrunxko, urrutixko...*

Salbuespenak dira *idisko* eta *oilasko*.

Atziki txikigarri horietaz gainera, badago *-zta* atziki txikigarria ere, kolore batzuekin erabilia:

- gorrizta = gorrixka.
- horizta = horixka.
- zurizta = zurixka.

Bitxikeriak

Nola osatuko zenituzke bikoteak?

Franko
Enantzu
Axekan
Enoatu
Buruil

Nardatu
Irail
Abilidade
Aunitz
Txantxetan

Hieroglifikoa

Asmatu al zenuen aitzineko aldizkariko hieroglifikoa? Eskualdeko mendirik altuena Saioa da eta Malerrekako mendia Mendaur.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Aldaketa txikiek gizarteari mesede egin diezaioke»

MIREN ETXEPETELEKU SAN JULIAN LESAKAKO TERAPEUTA OKUPAZIONALA

Terapeuta okupazionalak hezkuntzan euren tokia izateko borrokan ari da Nafarroako Lan Terapeuten Elkargoa. Horren beharraz, terapeutek egiten duten lanaz eta egungo egoeraz aritu da Miren Etxepeteleku

N. BAZTERRIKA | LESAKA

Behar bereziak dituztenei «eguneroko ekintzak ahalik eta modu autonomo eta independenteean egiten» laguntzean datza Miren Etxepeteleku San Juliannen (Lesaka, 1995) lana. Laguntza emateak «zoriontsu» egiten zuela eta Terapia Okupazionala graduak horretarako bide ematen ziola ikusita, egin zituen ikasketak Etxepetelekuk eta ordutik hainbat alorretan aritu da: «eguneko zentro eta zaharren egoitzetan, Nafarroako Down Syndromearen Elkarteak kideekin eta haurren garapenean espezializatutako CEDI zentroan». Argi dio euren lana oraindik ez dela behar bertze baloratzen baina, modu berean, pixkanaka, «presentzia handitzen» ari delakoan dago. Gizarteak ikusten ez dituen beharrak erdigunera eraman behar direla uste du, «gaur batzuek dituzten behar horiek etorkizunean gure beharrak izan daitezkeelako».

Terapia Okupazionala ikasi zenuen. Bide hori hartu zenuenean argi zenuen zer zen?

Gradua aukeratu baino gutxi lehenago izan nuen Terapia Okupazionalaren berri, institutuan egin zizkiguten test gisako batzuetan. Haur Hezkuntzako gradua egitekoan nintzen, beti gustatu izan zait umeekin lan egitea, baina ez nuen hagitz argi. Azken erabakia hartu baino lehen aunitz irakurri nuen Terapia Okupa-

zionalaren inguruan, Iruñeko ADACEN elkarteak bisitatzeak aukera ere eduki nuen, bertako terapeuta okupazionalarekin solas egin eta nituen dudak argitu ahal izateko.

Zehazki, zer da gradu horretan lantzen dena?

Terapia okupazionalak alor aunitz lantzen dituenez, gradua bera ere hagitz zabala da. Gortuzaren anatomia eta fisiologia, psikologia, soziologia, gaixotasun zehatzak... denetarik lantzen da. Baina, batez ere, terapia okupazionalaren funtsa zein den ikasten da, pertsona baten eguneroko ekintza edo okupazio esanguratsua bilatu, zehatz mehatz aztertu eta hauetan autonomia eta independentzia irabazteko elkarrekin lan egin. Mundua, eta batez ere pertsonak, bertze begirada batekin begiratzen erakusten dute, pertsonetan eta euren gaitasunetan zentratzen, desgaitasunak alde batera utzirik eta gure lanaren protagonista aktibo bihurturik. Aipatu bezala, alor aunitz ukitzen ditu...

Bai eta bizitzako etapa guztietara zabal daiteke, jaiotzetik heriotza arte, baita alor auni-

«TERAPEUTOK HEZKUNTZAN EKARPEN HANDIA EGIN DEZAKEGU»

tzetara ere: mugikortasuna, elikadura, norberaren garbitasuna, lana, jolasa, harreman sozialak...

Zer alorretan aritu zara lanean orain artean?

Orain arte hiru eremu nagusitan egin dut lan terapeuta okupazional gisa. Eguneko zentro eta zaharren egoitza dezentetan ibili naiz, Nafarroako Down Syndromearen Elkarteak kideekin lan eremuan eta CEDI izeneko haurren garapenean espezializatutako zentroan.

Behar bereziko haurrekin aritu zara. Zehazki, zein da zure egitekoa?

Terapia okupazionalaren helburu nagusia, guregana ailegatzen den pertsonari eguneroko ekintzak ahalik eta modu autonomo edo independenteean egiten laguntzea da, bere bizitzako edozein eremutan. Nik hauxe bera egiten dut umeekin, eguneroko ekintzetan izan ditzaketen arazoak aztertu eta jolasaren bidez landu, jolasa baita umeen egunerokotasunean okupaziorik esanguratsua.

Nolakoa da haurren garapen zentroan egun arrunt bat?

«ARAZOAK EDO TRABAK GARAIZ ANTZEMATEA DA GARRANTZITSUENA»

Nire kasuan, goizean 09:00etatik 13:00etara egiten nuen lan, normalean lankideekin hainbat gai lantzeko elkartu, informeak idatzi, aitzineko eguneko saioetan egindako edo lortutako gauza esanguratsua apuntatu, egindako balorazioak aztertu eta puntuazioak atera, eskola edo ikastoletara hurbildu gelak aztertzeko edo irakasleekin bilerak egiteko... Arratsaldean, berriz, 16:00etatik 20:00etara, bakarkako saioak egiten nituen, jolasaren bidez eta umeen interesak jarraituz, lortu beharreko helburuak lantzeko. Beharrezkoa zenean, balorazioak egiteko edo gurasoekin biltzeko tartek ere hartzen nituen.

Formakuntza da zuen lanaren bertze zutabe garrantzitsuetako bat...

Bai, terapia okupazionala hain zabala izanik, hamaika formakuntza daude eta lan eremuaren arabera batzuk edo bertzeak aukeratzeko ditugu. Baina egia da etengabe ikastera eta jakintzak berritzera 'behartuta' gaudela, lan ahalik eta txukunena eta egokiena egin ahal izateko.

Erkidego batzuetan hezkuntzan ere izaten dira terapeutek, baina Nafarroan aukera hori ez da garatu. Zergatik eta zertarako behar dira?

Terapeuta okupazionalak hezkuntzan egin dezaketen ekarpena anitza eta zabala da. Haur eta nerabeek, ahalik eta modu autonomo eta independenteenean, eskolako alorrean parte-hartze eraginkorra izan dezaten lagun dezakete. Nola? Materiala eta ingurua euren beharretara egokituz, laguntza emateko materiala diseinatu eta hauen erabilera entrenatuz, integrazio sensorialerako izan ditzaketen arazoak landuz, jolaserako gaitasunetan trebatuz, irakasle eta eskolako langileei informazioa eta formakuntza emanez, etab. Zerrenda hagitz luzea da, baina arazo edo traba hauek garaiz antzeman eta lantzea da garrantzitsua, etorkizunean



Zaragozako unibertsitatean ikasi zuen Terapia Okupazionala gradua Etxepetelekuk eta orain Haur Hezkuntzarekin hasiko da.

larriagoak bilaka ez daitezzen. Terapeuta okupazionalak hezkuntzan ere presente egoteko lan handia egiten ari dira COTONA-NALTE terapeuta okupazionalen elkargotik eta pixkanaka helburura hurbiltzen ari dira.

Terapeuten lanari behar berteko tokia ematen zaiola uste duzu? Zergatik?

Ez, eskolako adibidea garbia da. Terapeuta okupazional batek eskolan egiten duen lan zerrenda hagitz luzea da eta lan hau guztia egin gabe gelditzen ari da, horrek haur eta nerabeentzat dituen ondorioekin, eta egoera hau bertze eremu aunitzetan ere badago. Poliki-poliki terapeuta okupazionalen presentzia handitzen

ari da hainbat zerbitzutan, baina oraindik aunitz dago egiteko.

Eta behar bereziko kideak dituzten familiek administrazioaren aldetik duten laguntza aski dela iruditzen zaizu?

Garbi dago ezetz, eskaintzen diren zerbitzuak geroz eta anitzagoak eta zabalagoak diren arren, itxaron zerrendak hagitz luzeak izaten dira, hamaika paper eta baldintza bete behar izaten dituzte zerbitzuetara

«ZERRENDAK LUZEAK DIRENEZ AUNITZ PRIBATURA JOATEN DIRA»

heldu ahal izateko, bertze arazo aunitzen artean. Batzuek zerbitzu pribatuetera jo behar izaten dute, bertze herri edo hiri batzuetara, behar dituzten terapiak lortu ahal izateko, horrek dakarren karga ekonomikoarekin. Horrez gain, kontziliaziorako arazoak ere nabarmentzekoak dira, familiek denbora aunitz behar dute tratamendu eta terapietara joateko...

Zer aldaketa behar dira?

«BURUA ALTXATU ETA ONDOKOEN BEHARRAK IKUSI BEHAR DITUGU»

Zerbitzu publiko zabalagoa, gehiago eta gizartearentzat eskuragarriagoa.

Horren alde LHL erronkan ikusi zintugun...

Erleta eskolan laguntzaile gisa aritu nintzen eta opari bat izan zen Udane eta bere ama Iosune ezagutu ahal izatea, baita Udaneren tutore eta fisioterapeuta diren Uxue eta Amaiarekin, eta gelakide guztiekin lan egin eta ikastea ere. Testuinguru honetan, LHL erronka hurbi-lagotik bizitzeko eta erronkaren inguruan ibili zirenek egin zuten lan zoragarri eta eredugarria ikusteko aukera izan dut.

Nola bizi izan zenuen erronka?

Prozesua oso polita izan zen, bereziki erronkaren eguna. Iker eta Iraitz Linzatic abiatu ziren momentutik behin eta berriz begiratzen nuen mapa, nondik zebiltzan ikusteko; Iosunek, Udaneren amak, etengabe bidaltzen zizkidan argazkiak eta bideoak. Igande arratsaldean Leitza joateko aukera izan nuen, Udaneren gelakideek pankarta bat egin zuten Iker, Iraitz eta Udaneri ongi etorria egiteko, eta bertan egon nahi nuen. Ailegatu ziren momentua hagitz hunkigarria izan zen.

Zergatik eta zertarako dira beharrezkoak horrelako ekimenak?

Horrelako ekimenei ahotsa ematen diote gizarteak ikusten ez dituen behar aunitzi. Gure bizitzan murgilduta bizi gara eta aunitzetan ez gara gure inguruko egoeraz ohartzen, burua pixka bat altxatu eta ondokoaren beharrak erreparatzea ezinbertzekoa da, gure egunerokotasunean gauza txikiak aldatuz gizarteari mesede handia egiten ahal diogulako. Gaur batzuek dituzten beharrak bihar gureak izan daitezke.

Epe luzera begira, non ikusten duzu zeure burua?

Ez da erraza... Aurten Haur Hezkuntza gradua egiten hasiko naiz eta ez dakit irakasle, laguntzaile edo terapeuta okupazional gisa, baina hezkuntza munduan ariko naizela uste dut.



Narbarten sortutako 'The Golden Bee' kapela Parisen erakutsi du Maria Urroz eskulangileak.

Kapela artelan bihurtua Narbartetik mundura

Narbarten lantegia duen Maria Urrozek diseinatu eta egindako kapela-bitxia ikusgai izan da Parisen, Carl Fabergé bitxigile ezagunaren jaiotzaren 175. urteurrenaren kariatara egindako erakusketa berezian. Mundu zabalean, han eta hemen erakutsiko dute orain

AITOR AROTZENA | NARBARTE

«Aunitzetan nik diseinatutako kapelak ez daude pentsatuta eramateko, *streaptease* emozional baten modukoak dira, nik neukan sormen-premia bat, aunitzetan existitzen ez diren pertsonaiendako kapelak dira, ez dago ez gidoirik ere pertsonaia horiendako, hala nola erlearendako, ahoa-

rendako edo begiarendako... gauza bitxiak dira, baina gauzak bihotzarekin egiten direnean, bihotzera iristen dira». Maria Urroz Oyarzabal kapela-egile eta eskulangilearen solasak dira. Bi urte daramatza lanean Narbarteko lantegian, batez ere portzelanazko lanak egiten, baina kapelagile lana utzi gabe. Duela hain-

bat hilabete, «konfinamenduaren aitzinetik» arras enkargu berezia izan zuen, Parisiko *Le Chapeau comme oeuvre d'art* (Kapela artelan) erakusketan parte hartzeko hautatu baitzuten, Carl Fabergé bitxigile ezagunaren omenez, jaio zeneko 175. urteurrenean. Goimailako kapelaren erakusketa ibiltaria da, Nazioarteko

Txapel Jostunen Elkarteak antolatua. «Harritu egin ninduen —dio Urrozek— erakundeak proiektuarekin jarraitzeak pandemian, baita energia gehiagorekin ere, hasieran baino kapela gehiago aurkeztu baitira. Ilusio handia egiten dit hor egoteak, txapel-egile onenen artean. Arras lan interesgarriak eta politak egin dira, eta jende guztia etortzen da, Australia, Errusia, Estatu Batuak, Mexiko, Italia, Espainia... arras polita da erakusketa, eta ilusio handia egiten dit».

Urrezko Erlea

Hilabeteak lanean eman ondotik, «orduak eta orduak, kontaezinak» onartu digu, bere kapela, *The golden Bee* (Urrezko Erlea), sortu zuen. Txapel hagitz berezia zen, lehendik bere web orrirako egina (www.mariaoyarzabal.com), baina lehenik Errusiara eta gero Parisera bidaltzeko egokitu zuen, goi-mailako bitxi-denda batean trebatu ondotik. «Kapelan bitxi bat jartzeak ilusio berezia egiten zidan, Fabergé bitxigile zelako, ez kapelagilea». Beraz, artisauaren lan xehearen sinbolo gisa erlea erabiliz, berak sortutako brotxea jarri zion, zilarrean egina, 24 kilateko urrean bainatua, sutan egindako *cloisonné* esmalteekin... Emakume gorputza duen erle bat da, estilo modernista gogorarazten duena. Txapelako erlearen begiak tulaz estalita daude, eta azpian *laméa* dute, distira ematen diona eta tularen oktagonoez benetako erle-begi bat ematen dute, 80.000 begiz fazetatua dagoena. Begi horien inguruan urre-koloreko eskudel bat dago, erleen iletzoa irudikatzen duena. Txapelak, fantasiaz, mikroskopioz ikusitako erle-buru bat irudikatzen du. Antenak ere alabre baten inguruan kizkurtutako rasoan eginda daude» adierazi du kontent. «Gainerakoa fantasia da, —dio— hegoak paratu dizkiot ilusio berezia egiten zidalako txapel

hegalduna egitea, ni baino aunitzez gehiago bidaiatzen duena».

Maria Urroz Parisera joan zen. Errusiako enbaxadan aurkeztu zuten erakusketa hau. Hiriburuaren ondotik, Frantziako hainbat hiritan zehar ibiliko da, hala nola Cannesen, Carl Fabergék hiri horrekin duen loturagatik, eta, ondotik, Europako bertze herrialde batzuetan.

«Esperientzia handia izan da», azaldu du Maria Urrozek. Erakusketa ireki ondotik itzuli zen Narbartera, tailerrean lanean segitzeko.

Nola hasi zen kapeluak egiten

Iruñeko dekorazio estudio batean hamarkada bat eman ontotik, duela hamabi urte hasi zen kapelak egiten, lehen aldiz erditu ondotik. Urrozek dioenez, «beti izan nuen kapelekiko kezka, antikuariotan beti ikusten nituen egurrezko buru horiek eta atentzioa ematen zidaten. Eskuekin lan egiteko beharra sentitzen nuen, eta Madrilen prestakuntza bat egin nuen Charo Iglesiasekin, kapelu-egile beterano arras onarekin, eta handik etorri ondotik, josten eta josten eta txapelak egiten hasi nintzen, izugarritzko jariora nuen. Gainera, txapelak egiten zuten jenderik ez zegoenean suertatu nintzen, eta orduan modan jartzen hasi ziren. Bezeraoz poz-pozik gelditzen ziren, estiloa hartzen nien, arrokekin konbinatzeko... ederragoak egiten nituen beraietara egokitutako kapeluekin, eta horixe da kontua: itxuran on egiten dizun bururako osagarri bat egitea, ez kaltetzen edo apaltzen zaituena».

Urte politikak izan ziren horiek Iruñean, baina baita herrian ere, Bidasora bueltatu ondotik, kapelak egiten segitu zuen, baina guttiago: «bertze gauza batzuetan hasi behar izan nuen lanean, ezin zara artetik bizi landa ingurunean, Ingalaterrako landa-zabalean bizi ez bazara».

Jatetxeetarako baxera berezi eta egokitua

Narbarteko Emo Creations lantegitik ateratako platerak, kizarak, labanak, sardexkak edo koilarak dagoeneko hainbat jatetxetan topa daitezke. Maria Urrozen lanen «originaltasuna» goraiatzeko dute sukaldariek, eta beraien janariei ukitu berezia emateko ahalmena

A. AROTZENA

Urrez jantzitako kapeluak edo sarietarako garaikurrak egiteak sona ematen badu ere, une honetan zeramika gehiago egiten ari da Maria Urroz, «nire sormena garatzeko aukera gehiago ematen didalako eta sortzeko unean txapelak baino askatasun handiagoa ematen didalako, kapeluegileak moden eta gustuen mende gaudelako, bezeroa ausartzen edo ausartzen ez denaren menpe. Mundu hau blogariek gidatzen dute, eta aunitz kutsatu dute. Ez da erraza txapelatik bizitzea, ia ezinezkoa da».

Donostian sortua, urtetan Lapurdin eta Gipuzkoan bizitu da, baita Iruñean ere. Baina bere lehen umea izan zuenean, «arbasoen deiari erantzunez», Bidasoaldera itzultzea erabaki zuen, Donamariakoak baitzitu gurasoak. Iruñean, hamar urtez, dekorazio-estudio batean lan egin zuen. Bertan sartu zen antikuario gisa zuen prestakuntzagatik eta frantsesa ongi menperatzen zuelako: «aunitz erosten genuen Frantziako brokanteetan, aholkularitza lanak egin nituen antigoaleko altzariak eta pinturak erosteko, bai eta dekorazio-azterketan ere, aunitz gustatzen baitzait mundu hori guztia».

Bere neurriko ofizioa

Zeramikan hastea erabaki zuen, Italian portzelanaren inguruko ikastaro bat egin zuelako, eta aunitz gustatu zitzaion: «Frantziako enpresa batekin harremanetan jarri nintzen



Baxera bereziak eta originalak sortzen ditu Narbarteko lantegian.

«BURUTIK PASATZEN ZAIANA SORTZEKO AUKERA EMATEN DIT»

portzelanazko bitxiak egiten laguntzeko, nire aurrezkiak zeramika egiteko labe batean inbertitu nituen, eta zera erran nion neure buruari: 'Maria, orain zeure kasa atera behar duzu, ezin zara egon bertzeen esperoan'; beraz, platerak egiten hasi nintzen eta nire lau platertxoak aurkeztzen hasi nintzen jatetxeetan. Izugarritzko harrera ona izan zuten, originaltasunak harrizten ditu

sukaldariak». Azken urteotan bere formakuntza sendotu du, tornuan, labeetan, baita metala lantzeko tekniketan eta bitxigintzan ere. Narbarteko Emo Creations lantegian forma ematen die bere ideiei. Bere eskuetan, zeramikaz eta portzelanaz egindako artelan bihurtzen da lohia, suari esker.

Bistan da zeramikan topatu duela bere gustuko lanbidea: «Aunitzetan erraten da lanbideak aukeratzen duela pertsona eta ez pertsonak lanbidea... Nire kasuan horixe izan da zeramikarekin sentitu dudana: Ofizio horrek aukeratu nau eta sormenerako hegalka ematen dizkit, sortzeko ahalmena... Zeramikak, eta batez

ere ni lantzen ari naizenak, sukaldaritzako baxerak eta mahai-tresnak, burutik pasatzen zaidan guztia sortzeko aukera ematen dit... Ilusio berezia egiten dit jatetxeekin lan egiteak, chef bakoitzak bere berezko estiloa daukalako eta nik estilo horretara egokitzeko baxerak sor ditzaket. Jatetxe bakoitzaren kokapenak ere inspiratzen zaitu, ez daberdira itsas-labar batean dagoen jatetxea edo baso baten erdian dagoena, eta emaitzak beti asebetetzen nau, egiatan gauza originalak egiten ditugulako. Hor sentitzen naiz gustura».

Jakiei balio erantsia ematen dieten platerak

Izan ere, bere piezak dagoeneko hainbat jatetxetan topa daitezke, *chef* horiek sukaldean prestatutako gutuziendako euskari gisara, bai, baina baita sukaldarien ideia eta sorkuntza horiei nolabaiteko balio erantsia emanez ere. Adibidez, lehiaketa baterako olagarroarekin egindako pintxoak aurkeztu behar zuten sukaldariarendako olagarroaren zortzi erroak zituen plater berezia diseinatu zuen Urrozek. Baditu itsasoan oinarritutako platerak, mendian oinarritutakoak, perretxikoen irudikoak, hostoak irudikatzen dituztenak... Izan ere, naturan eta inguruan topatzen du inspirazioa eta hortik datoz NARBARTeko Emo Creations lantegian sortzen dituen hainbat baxeren izenak: Haizea, Xirimiri, Perseidak, Ocean, Akelarre, Ola zahar, Bardeak, Latxa, Pirinioak... baxera txuriak artilearen testurarekin eta esne-tanta bat irudikatzen duten esmalteekin... urdinak itsasoaren tonalitateekin, mendien profilak, oxidoaren eta burdinaren kolorea dutenak, izarren argia erakusten dutenak... Arte pieza bereziak, guztiak ezberdinak, molderik gabe eginak, dagoeneko hainbat jatetxetan topa daitezkeenak.



Maria Urroz, sarietako parte-hartzaileei emateko diseinatu dituen 'Patxiku' lanekin.

«Gure baserrietako izkin-harria du oinarri Conecta Fiction sariak»

MARIA URROZ OIARTZABAL ESKULANGILEA

Emo Creations lantegian sortzen dituen eskulanean artean, Maria Urrozek duela aste batzuk akitu zuen Iruñeko Conecta Fiction jaialdiko sari-banaketarako enkargatu zioten lana. Nazioarteko ekitaldi horretan, telebistako sormena, finantziarioa, ekoizpena eta edukien emisioa saritzen dira, eta Europako eta Ameriketako fikziozko edukietan parte hartzen duten funtsezko aktore guztiak biltzen ditu (industria eta sorkuntza-talenta).

Sariaren eta oroigarrien diseinua

Maria Urrozek aurten eman ziren sariak diseinatu eta egin ditu: «aurrez aurre begiratzen diren bi aurpegi, horixe da Conectaren Fiction jaialdiaren anagrama, eta, zalantzarik gabe, sarirako eman den kobre-pieza honen abiapuntu den sinbolo boteretsua. Oinarria, gres landuan egina dago eta gure lurraldeari keinu bat egiten dio: Baztango harria, gure baserriak edertzen eta eusten dituen izkin-harria irudikatzen du. Kolore, forma eta testura berdintsua dauka». Horretaz gain, jaialdian parte



Conecta Fiction jaialdiko garaikurra, Urrozek egina.

hartu dutenei emateko oroigarriak ere diseinatu zituen eta 'Patxiku' izenarekin bataiatu zituen. Portzelanaz eta gresez egindako piezak dira, bi helduleku dituen katilu baten modukoak, bi belarriko burua balitz bezala, eta horien gainean gure zapelaren, bonetaren itxura duen estalkia (antzeko 'Maritxu'ak ere baditu, zapelaren ordez zapia dutenak).

Ehiz zure ametzari

Etorkizunez
beteriko herriak

Amaiak, Jesúsek, Leyrek, Iñakik, Raquelek eta Patxik lortu dute. Landa-inguruneak beren lanbide- eta bizitza-proiektua gauzatzeko aukerak eskaini dizkie. Baita modu jasangarrian, berritzailean eta bideragarrian gauzatzeko ere.

Sartu despopulazioa.nafarroa.eus webgunean, ezagutu beren istorioak eta ikusi ea zurearen hasiera ere izan daitekeen gure herrietan ekitea.



IKUS BIDEOA



Doako wifi ingurunea paratu du udalak Matzadan

Gestel komunikazio enpresa arduratu da instalazioa egiteaz eta eskualdean ezarri duten doako lehen wifi ingurunea da

AINHOA LARRETxea

Interneterako konexioa hobetu asmoz, Matzada futbol zelaian doako wifi ingurunea paratu du udalak. Gestel telefono konpainiak egin du instalazioa, udalaren laguntzarekin. Bortzirietan gisa hobetako lehenengo puntua izanen da Berakoa.

Erabiltzaileentzat 300 Mbpsko abiadura eskainiko du ezarri duten zerbitzu berriak. Doako wifia izanen da eta eta bi orduz etenik gabeko konexioa izan dezake zerbitzura konektatzen denak. Zehazki Matzadako harmailan dago kokatua.

Instalazio lanak bukatu ondotik, ortzegunean egin zuten aurkezpena Matzadan bertan. Aitor Elexpuru alkatea, Guzman Garmendia Nafarroako Gobernuko Telekomunikazio eta



Matzada futbol zelaian kokatu dute.

digitalizazio arduraduna, Pxtxi Recio Gesteleko zuzendari komertziala eta Javier Ubiaria Nafarroako Gesteleko ordezkaria izan ziren bertan eta zerbitzuaren xehetasunak aletu zituzten. Gainera, onxiorearen abiaduraren proba egin zuten aurkezpenaren bertan, eta erran zuten, fibra konexiorik ez duen etxetarako zerbitzuak ere 300 Mbpsko abiadura hartzen duela konprobatu zuten.



UTZITAKOA

Losers antzerki arrakastatsua

Txalo konpainiaren Losers (*galtzaileak*) antzerkia izan zuten kultur etxean urriaren 2an. Edukiera mugarik gabeko lehen ekitaldia izan zen, eta kultur etxea lepo bete zen Jon Plazaola eta Aitziber Garmendiaren lana ikusteko. Aktoreak hunkitu egin ziren kultur etxean bildutako jendetza ikusitakoan.

Lehenengoz Merkatu Eguna ospatuko dute larunbatean

TTIPI TTAPA

Osasun egoerak ez du oraindik Lurraren eguna ospatzen utziko, eta hori dela eta, Lurraren egunaren ordezkari Merkatu eguna antolatuko dute Beran larunbat honetarako. 10:00etatik 14:00etara Bortzirietako, Baztango, Malerrekako eta-

Xaretako eskulangileen azoka izanen da Merkatu plazan eta Altzateko plazan. 17:00etan Olaia Iantziren kontzertua izanen da Altzateko plazan eta eguna bukatzeko mutxikoak 18:00etan Kiki Bordaxorekin.

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

INTERNET MUGAGABEA 300MB

TESTEL

NON GAUDE:

- BORTZIRIAK
- MALERREKA
- BAZTÁN
- URDAX-ZUGARRAMURDI

Tlf: 948 630 132 / 637 408 640 E-mail: navarra@gestelcom.es



Gure Txokoa dantza taldeko kideak duela bi urte egindako jaialdian. GURE TXOKOA

Gure Txokoa dantza taldeak Katalunian dantzatuko du

Nazioarteko Makildantzen lehenengo kongresuan hartuko du parte Gure Txokoak urriaren 23, 24 eta 25ean, Katalunian

AINHOA LARRETxea

Gure Txokoa dantza taldeak Reusko Nazioarteko lehenengo Makildantzen jaialdian parte hartuko du urriaren 22an, 23an eta 24an. Kataluniako Reus herrian egingen dute kongresua, eta Berako Makildantzak dantzatuko dituzte bertan. Berako taldeaz gain Euskal Herriatik bertze bi talde ere bertaratuko dira kongresura. Kataluniako eta Euskal Herriko taldeekin batera, Espainiako, Portugalgo eta Andorrako hainbat taldek ere dantzatuko dute bertan. Gure Txokoa-ko hamalau dantzari eta bortz

txistulari joanen dira Beratik Katalunia aldera.

Ikastaroak abian

Pandemiaren ondorioz urte eta erdian ia geldirik egon ondok, dagoeneko martxan hasi da Gure Txokoa dantza taldea berriz ere. Urriaren 10ean amaitu zen dantza taldean apuntatzeko epea, eta datozen asteetan hasiko dira haur, gazte zein heldu dantza entseguetan.

Dantza taldean izena emateko, derrigorrezkoa da Gure Txokoa elkarteko bazkidea izatea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Organo kontzertua Larrearen omenez

Organo Musika Nafarroan programaren barrenean, Valentin Larrea pianista eta konpositorea gogoan, irailaren 25ean kontzertua eman zuten Ignacio Arakistain organistak eta Xabier Barriola tenorrak. Jende ugari bildu zen elizan egindako emanaldian, tartean Valentin Larrearen ondorengoak.



AITOR AROTZENA

Aspaceren 50. urteurreneko erakusketa

Aspace Nafarroaren 50. urteurrena dela eta, kultur etxean argazki erakusketa egin zuen Uxane zentroak irailaren 20tik urriak 6ra. Nafarroa osoko erabiltzaileen eskulaneekin eta argazkiekin osatua zegoen erakusketa, tartean Berako Uxane ikastetxeok eta Maddi egoitzakoek eginak.

Ansonea ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Argazki lehiaketako lanak aurkezteko epea zabalik

Beti Gaztek antolatu du berriz ere lehiaketa eta argazkiak urriaren 31 arte aurkez daitezke

AITOR AROTZENA

Beti Gazte Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurten-goan ere udalarekin elkarlanean. Argazkiak posta elektronikoko bidez soilik jasoko dituzte eta argazki erakusketa osasun egoerak uzten duenean eta uzten duen moduan, online edo presentziala eginen dutela adierazi dute.

Lehiaketan edonork har dezake parte. Gaia librea den arren, sari berezia izanen du kirol argazki onenak. Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake eta argazkiak koloretakoak zein zuri beltzean izan daitezke. JPG formatuan eta gehienez ere 1.200 pixeleko bereizmena izanen dute.

Lanak argazkilaritza@betigazte.net helbidera bidali behar dira urriaren 31 arte. e-Postaren gaian Argazki Lehiaketa 21' paratu beharko da. Argazki bakoitzari izenburua paratu eta gai libreko lehiaketara ala kirol argazki lehiaketara aurkezten den jarri beharko du. Argazkia bidaltzen den e-Postan egilearen datuak

375 ETA 275 EUROKO SARIA IZANEN DUTE BI LEHENBIZIKOEK

bidali beharko dira. (Izen abizenak, helbidea eta telefonoa).

Antolakuntzak izendatutako epaileek erabakiko dute nor den irabazlea eta erakusketa zabaltzen den egunean jakinaraziko dute bere izena, webgune eta sare sozialen bidez. Erakusketa presentziala izatekotan, Beti Gazte arduratuko da argazki guztiak errebelatzeaz eta azaroaren 13tik 28ra izanen da. Aurkezten diren argazki guztiak Beti Gazteren webgunean ikusgai paratuko dituzte.

Lehen saria 375 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrena 275 euro eta trofeoa izanen da. Beti Gazteko bazkideen artean argazki onena atera duenari 225 euroko saria emanen zaio trofeoarekin batera, kirol argazki onenaren egileari bezala.

Telefono mugikorra erabiltzen ikasteko ikastaroa prest

Telefono mugikorrarekin trebatzeko ikastaroa antolatu du San Fermin elkarteak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Urriaren 19tik azaroaren 4ra eginen dute Harriondoan, astearte eta ortzegunetan 10:00etatik 12:00etara. Egoitzan eman behar da izena.

'Kirolak' dantza ikuskizuna hilaren 16an Harriondoan

'Kirolak' dantza ikuskizuna eskainiko dute Helena Lizari, Leire Aldaz eta Koldo Arostegik urriaren 16an, larunbatean 19:00etan Harriondoan. Sarra 6 euro gostako da. Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuituan ematen den lan honek herrikiroletan du inspirazio-iturri.



AITOR AROTZENA

Ibilian ibilian martxa herritik abiatu zen

Presoen etxeratzea eskatuz, irailaren 29tik urriaren 2ra Nafarroa zeharkatu duen martxa antolatu du Sarek. Guztira 74 errelebo egin dituzte, horietako lehena Ainara Fresneda eta Andoni Sarasola herriko preso ohien eskutik, irailaren 29an plazan egindako ekitaldiaren ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Udako Zikloaren azkena bertsoan

Josu Sanjurjo, Ekhiñe Zapiain, Aitor Sarriegi, Ane Labaka eta Sustrai Colina bertsolariak oholtzaren gainean izan ziren irailaren 26an plazan, Iratxe Muxikak gidatutako bertso saioan. Saioak akabera eman dio Udako Zikloari, udazkenera arte luzatu dena Covid-19ak sortutako atzerapenengatik.

DenokBat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Astelehenetik ortzirralera:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Sare bidezko uso harrapaketa sasoia abiatu da

Larunbat, igande eta besta egunetan bisita gidatuak egiteko aukera eskainiko dute denboraldi honetan ere

IRUNE ELIZAGOIEN

Usategietan, 600 urte baino gehiago dituen sarezko uso harrapaketa tradizioa bizirik ikusteko aukera martxan da bertze urte batez. Urtero bezala, urriaren 2a eta azaroaren 20a bitarteko larunbat, igande eta besta egunetan burutuko dira bisitak. Aurten ere, bi bisita izanen dira egunean, bat euskaraz, 10:00etan eta bertzea gazteleraz, 12:00etan. Bisitaren iraupena, ordu bat eta erdi ingurukoa da eta prezioa berriz, bortz eurokoa pertsonako eta hamar pertsona baino gehiagoko

taldeentzat eta haurrentzat (6-12 urte), lau euro bakoitzak. Bisitaz gain, ikus-entzunezko bat ikusteko eta sareetako behatokira sartzeko aukera ere badago, bertatik, usoa datorrenean, sareetan nola sartzaren diren hobeki ikusten baita.

Urriko kultur egunak

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eskutik, Altxataren laguntzarekin, urriko kultur egunak antolatu ditu. helduei zuzendutako Mikel Bermejoren bakarrizketa, urriaren 23an izanen da, 19:00etan, kultur Etxean.

Klima aldaketaren inguruko erakusketa ikusgai dago kultur etxean

Moldaera: klima-aldaketaren aurkako bertze borroka bat izeneko erakusketa kultur etxean dago urriaren 13tik 30era, astegunez 16:00etatik 19:30era. Erakusketa Nafarroako Gobernuak antolatua da eta klima aldaketaren aitzinean Nafarroan hartutako

neurriak eta egoeraren datuak azalduko ditu. Mezu argia du; egokitze hoberena gasen isuriaren murrizketa da, gasa baita klima aldaketaren sortzaile handienetako bat. Gai honekin lotuta, antzerkia ere izanen da kultur etxean, urriaren 16an, 19:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joxe Angel Goienetxe albinteak erretiroa

Joxe Angel Goienetxe 34 urtez udal albinte lanetan aritu da eta irailaren 30ean hartu zuen erretiroa. Hainbat lan egin ditu urte hauetan guztietan. Irailaren 25ean omenaldia egin zion udalak eta besta egun politarekin ospatu zuten bere lan ibilbidearen akabera, dantzariekin eta bazkariarekin.



ARANTXA MIKELESTORENA

Arkupeak-en mus txapelketa

Normalean otsailean egin ohi den mus txapelketako kanporaketa urriaren 3an egin zuten Larraburuan. Lehenengo postua Joaquin Zelaietak eta Juan Bautista Mitxelorenak lortu zuten, bigarrena Jose Mari Maiak eta Jose Mari Olagaraik eta hirugarrena Domingo Aranburuk eta Jesus Arribillagak.

Arduo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Besta ofizialik gabe ere ospakizun ederrak izan dira

Gazta lehiaketan Antsoneberriko Enkarna Etxeberriarena izan da garaile eta buruhandiak eta goitibeherak ere ibili dira

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Buruilaren 25ean herriko dantza taldeak eskainitako saio ikusgarriaz gozatzeko aukera izan zen, aurtengoan ere berrikuntzaz betetako erakustaldia. Emaitza ikusirik, urte osoan lan handia eginga dagoela ederki nabaritu da. San Migel egunean berriz, abesbatzak kantatutako meza nagusiaren ondotik Dantza Luzea dantzatu zuten.

Gazta lehiaketa

Biharamunean egindako gazta lehiaketan hamaika gazta aurkeztu zituzten. Antsoneberriko Enkarna Etxeberria izan zen irabazlea, Argaratako Maixe Sein bigarren eta hiru-garren Juxta Sein. Epaimahaiak erabakia hartu bitartean, Muxikoak dantzatzeko aukera izan zen. Arratsaldean Ruper Ordorika abeslari ezaguna ere izan genuen gure artean. Kontzertua igerileku eremuan dagoen tenis pistan eman zuten, eguraldia lagun genuela. Ordu beteko emanaldia izan zen eta jendea gustura atera zen kontzertutik.

Buruhandiak eta goitibeherak

Besta ofizialik ez dugu izan, baina erraldoi eta buruhandiak ere agerralditxo egin nahi izan zuten herrian. Hiru egunez ibili dira gure umeen gibeletik batzuen beldurrerako eta bertzeen gozamenerako. Ekitaldiz betetako egun hauetan, Guraso Elkarteak ere partehartze ederra izan du. Elizatean genuen La Villa ostatuaren lokala hartu eta bertan ostatua jarri zuten. Lan honekin lortutako dirua, beti bezala, eskolako haurren hezkuntzarako bideratu dute. Biltoki Ttikikoek goitibehera jautsiera ere antolatu zuten. Kuadrilla polita elkartu zen Piedadeko gainera frontoierainoko malda eta errebueltak jaisten. Aritz Lizarrondo izan zen azkarrena.

Pilota partidak

Binakako esku pilotako txapelketaren finala urriroaren 2an jokatu zen. Imanol Reteigik eta Zambudion bordako Ikerrek irabazi zieten Bakeko Xabi eta Gure Etxolako Eukeni.



Hainbat ekitaldi izan dira bi asteburutan. OSKAR TXOPERENA ETA UTZITAKO ARGAZKIAK

Baztango
Inmobiliaria agentzia
Herentzian espezializatutako abokatua

San Esteban 11 behea
BERA (31780)
Nafarroa

620 028 625
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2
DONOSTIA (02004)
Gipuzkoa

inelsa ZENER
ascensores
igogailuak

Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Udazkeneko kultur egunak prest ditu euskara batzordeak

Ekaitza Elkarteak antolatuta, azaroaren 1 ean, XXIV. Baserritarren eguna izanen da

NEREA ALZURI

Udazkeneko kulturaldia ate joka dugu. Euskara Batzordearen ekimenez, urri akabailan eta azaro hasieran, ekitaldiak antolatu dituzte.

Urriaren 29an dokumentala

Kultur egunak abiatzeko, urriaren 29an, ortziralearekin, *Mendian hil, hirian hil* dokumentala ikusteko aukera izanen da herriko etxeko aretoan, 19:30ean.

Urriaren 30ean kantaldia

Biharamunean, ilunabarrean, Andreina Jolinen kantaldia antolatu dute, 20:00etan eskolan.

Urriaren 31n bertsoa eta bakarrizketa

Urriaren 31n, Beatriz Egizabal aktorearen eta Ane Labaka

bertsolariaren *Erradikalak ginen* antzerkia antolatu dute, 19:00etan eskolan.

Baserritarren Eguna

Azaroaren lehenean, iaz ez bezala, Baserritarren Egunaz gozatzeko aukera izanen da. Ekaitza Elkarte buru-belarri ari da antolaketan eta horri esker, berriz ere itzuliko da egun ederra. Aurtengoa XXIV. edizioa izanen da eta herritarrei azokan parte hartzeko gonbita egin die elkarteak.

Plaza eta frontoian herritarrek euren produktuak, nekazaritzako tresnak, eskulanak edota aziendak ikusgai edota salgai paratzeko aukera izanen dute eta horretaz gain, gazta eta ahari lehiaketak izanen dira.

Salmentarako edo erakusketarako leku bat prestatzea



Aurten berriz ere Baserritarren Egunaz gozatzeko aukera izanen dugu.

nahi dutenek eta gazta lehiaketan parte hartu behar dutenek urriaren 25a baina lehen juntakideei abisatu beharko diete: azienden kasuan Julen Oteizari edo Jon Altzuriri, postuak paratzeko Gotzon Arenasi edo Aintzane Iturriari eta gazta lehiaketan gazta aurkezteko Olatz Irigoieni edo Ander Almandozi.

Gazta eta ahari lehiaketak

Gazta lehiaketan, partaide bakoitzari gazta bakoitzarengatik 25 euro emanen dizkio Ekaitza Elkarteak. Sarietako gokienez, lehenbiziko saria 150 eurokoa izanen da, bigarrena 100 eurokoa eta hirugarrena 60 eurokoa. Ahari lehiaketan, berriz, bi sari emanen

ditu: lehenbiziko saria 50 euro eta bigarrena 25 euro.

Bertzetik, bezperan, urriaren 31n, 18:00etan salmenta postuen kokapena zozketatuko dute elkarteak, jende aitzinean, eta ondotik, postuetako mahaia denen artean paratuko dituzte.

Azaroaren 6an liburu aurkezpena

Aurtengo kultur egunak borbiltzeko, Maddi Ane Txopere-nak *Ene baitan bizi da* bere eleberria aurkeztuko du azaroaren 6an eskolako gimnasioan, 17:00etan.

Bertzetik, kultur egunetan ipuin-kontalaria ere izanen da baina lerro hauek idazterakoan eguna zehaztu gabea zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrak 'Ibilian ibilian'

Patinekin batzuk, oinez bertzeak... Argazkiko kuadrillak presoak etxeratzearen alde Lesakatik Berriozarrera egindako Nafarroako martxan parte hartu zuen. Sare plataformak egindako deiarekin bat eginez, lekukoa Igantziko Bente eta Lesakaren arteko trenbidean hartu zuten.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

BERA

KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA BIKES
BERGAMONT BH coluer LOOK

Suizidioari buruzko hitzaldia Lesakan urriaren 21ean

Hiltzaldira bertaratzeko urriaren 18a baino lehen izena eman beharko da

TTIPI-TTAPA

Lehenagotik ere zifra altua zen, baina, pandemiak utzitako ondorioek nabarmen igo dituzte suizidio kasuak mundu osoan. Gizartean tabu den gaia da suizidioarena, eta hori plazara ekarri asmoz, Bortziriari Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuak eta Itxaropenaren Telefonoak antolatuta, suizidioari buruzko solasaldia izanen da Lesakako Harriondo kultur etxean.

Datorren ortzegunean, urriaren 21ean 17:30ean iza-

nen da hitzaldia *Hurbiletik begiratzen* izenpean. Pedro Villanueva suizidio eta krisi egoeratan espezializatutako psikologo eta doktorea solasatutako da.

Hiltzaldira bertaratzeko ezinbertzekoa izanen da urriaren 18a baino lehen izena ematea 634 223 659 zenbakira Whatsap mezu bat bidalita, edota info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatzita.

Elkarrizkan boluntario bila

Bertze alde batetik, Bortziriari Elkarrizkan boluntario

taldea boluntario berrien bila ari da. Horretarako, taldearen aurkezpen irekia eginen dute solasaldi moduko bat eginez eta taldearen nondik norakoak eta eginbeharrak azalduko dituzte.

Aurkezpenaren helburua, jendea sentsibilizatzea eta etorkizuneko boluntario berriak bilatzea izanen da, horrela, belaunaldi arteko erreleboa bultzatuz. Irailaren 24an Lesakan egin zuten lehen aurkezpena, eta Beran urriaren 8an egitekoa bazuten ere, azkenean urriaren 15ean izanen da 18:00etan Berako kultur etxean.

Elkarrizkan boluntario taldean laguntzeko interesa dutenek Bortziriari Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jarri beharra dute. Horretarako 948 63 50 36 telefonora deitu edo info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora mezu bat idatzi behar da.

Mensu pintorearen erakusketa Berako Armi galerian

TTIPI-TTAPA

Jose Mensuro Hernandez *Mensu* pintorearen erakusketa ikusgai dago Berako Armi galeria etxe museoan. Madril-darra da sortzez Mensu, baina bere ikasketak Donostian abiatu zituen eta geroztik harreman berezia izan du Bidasoarekin eta baita Euskal Herriarekin ere. Bere ibilbide luzean mundu osoko hainbat galeria eta museotan erakutsi ditu bere obrak, eta hainbat sari ere eskuratu ditu. Pinturaz gain bertzelako dizipinak ere landu ditu, zinema eta antzerkia, erraterako.

Erakusketa urriaren 24a arte ikusten ahalko da 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Jokin Arman eskultoreak eta Trini Mikelarena pintoreak sortu zuten Armi galeria Etxe Musoa iaz.



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa



K-STRETCH

Helbide berria

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA

Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina tolosaechepare



caser
residencial

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erlijio zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS



www.ibargoyen.net  943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Donezteben izanen da txapelketako azken final-laurdena

17:30ean hasiko da bertso saioa Zineman. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus helbidean eskuratu daitezke.

TTIPI-TTAPA

Udazkena ailegatzearekin bat hasi da Nafarroako Bertsolari Txapelketa ere. Lehen saioak Nafarroa hegoaldean eta Pirinioetan egin ondotik, asteburuan ailegatuko da eskualdera. Donezteben jokatuko dute txapelketako azken final-laurdena larunbatean, Zineman, 17:30ean Bertan kantatuko dute Julio Soto egungo txapel-dunak, Josu Sanjurjo (Lesaka), Iker Gorosterrazu (Ituren), Ekain Alegre, Egoitz Gorosterrazu (Ituren) eta Sahats Aleman bertsolariak. Azken saio

horren ondotik erabakiko da zein hamabi bertsolari igaroko diren hurrengo fasera.

Eneko Fernandez finalaurrekora

Urriaren 2an abiatu zen bertsolari txapelketa Izaban jokatuako saioan. 100 lagun inguru bertaratu ziren eta Eneko Fernandez lesakarrak eskuratu zuen puntu gehien, Hala, Altsasun azaroaren leian jokatu den finalaurrekora sailkatu zen zuzenean. Saio berean kantatu zuten Patxi Castillo eta Julen Zelaieta bertarrek ere, hirugarren eta



Eneko Fernandez lesakarra Izabako saioan kantari. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

laugarren izan ziren. Doneztebeke saioko puntuazioen zain egon beharko dute biek hurrengo fasera pasatzen diren edo ez ikusteko.

Izabakoaren ondotik, joan den asteburuan, urriaren 9an Tafallan eta urriaren 10ean Zangozan jokatzekoak ziren hurrengo bi saioak. Tafallan Eneko Lazkoz, Alazne Untxalo (Ituren), Ekhiñe Zapiain (Bera), Erika Lagoma (Lesaka), Saioa Alkaiza, eta Urko Gartzia

(Lekaroz) aritu ziren kantuan, eta Zangozan Joanes Illarregi (Leitza), Xabier Silveira (Lesaka), Xabat Illarregi (Leitza), Sarai Robles, Mikel Lasarte eta Oier Lakuntza. Orri hauek idazterakoan oraindik egitekoak ziren bi saio horiek.

Final-laurdenen ondotik, azaroaren 1ean Altsasun, Berriozarren 6an eta 14an Leitza izanen dira finalaurrekoa. Finala azaroaren 28an jokatu da, Iruñean.



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa 2021

IZABA

Urriak 2, larunbata. 17:30ean, Zineman

Julen Zelaieta Iriarte, Eneko Fernandez Maritzalar, Endika Legarra Nuin, Patxi Castillo Graciarena, Aitor Irastortza-Arrizurieta eta Idoia Granizo Uribarrena

Gai-jartzailea: Aiaitz Rekondo Ferrero

TAFALLA

Urriak 9, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean

Eneko Lazkoz Martinez, Saioa Alkaiza Guallar, Alazne Untxalo Erregerena, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Erika Lagoma Pombar eta Urko Gartzia Aleman

Gai-jartzailea: Ander Aranburu Amiola

ZANGOZA

Urriak 10, igandea. 17:30ean, Karmengo Auditorioan

Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia eta Oier Lakuntza Irigoien

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"

DONEZTEBE

Urriak 16, larunbata. 17:30ean, Zineman



Julio Soto Ezkurdia, Josu Sanjurjo Altzuri, Iker Gorosterrazu Elizagoien, Ekain Alegre Gil, Egoitz Gorosterrazu Elizagoien eta Sahats Aleman Sadaba

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

www.bertsozale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

Artolatzailea



Bertsozale

Laguntzailea



ttipi-ttapa

Mugimendu handiarekin hasi dute ikasturtea

Gaztainak biltzen ibili dira Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak eta English Week programan 4. eta 5. mailakoak

MAIDER PETRIRENA


2021/2022 ikasturteari hasiera ezin hobea eman diote eskolako ikasleek. Argazkietan ikus daitekeen modura, eguraldia lagun, ondorengo jarduerak egin dituzte:

Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako

ikasleek English Week programa landu dute eskolan, irailaren 13tik 17ra, hainbat ekintza eta jarduera eginiz. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak, naturarekin harremanean, gaztainak biltzen ibili dira, ondotik eskolan egingen duten gaztain jatea egiteko.



Ikasleak gaztainak biltzen eta English Week programan dantzan. ESKOLAK UTZITAKOAK



MAIDER PETRIRENA

Leiho berriak Ulibeltzak Elkartean

Azken bileran aipatu bezala, Ulibeltzak Elkarteko leihoen aldaketa egin dute eta argazkian ikus daitekeen bezala, hagitz politak gelditu dira. 225 bazkide inguru ditu Ulibeltzak Elkarteak eta osasun neurrien murrizketak malgutu diren honetan, edukiera osoa izanen du hemendik aitzinera.



UTZITAKOAK

Udazkeneko Openean bikain hasi dira

Udazkeneko BTT Openari hasiera eman zioten irailaren 12an Villatuertan. Bertan Eneitz Bertiz Apezetxea kadete kategorian irabazle izan zen. Irailaren 26an Ororbian egindako proban, berriz, Koldo Herrera Urrozek, junior kategorian, lehen postua lortu zuen (argazkian) eta Bertiz ere podiora igo zen.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

ORBELA
SENDERSMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

BORDALABARRA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Gure Haragia Nuestra Carne

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Pitti **MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Epzelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

LIZUN **GAZTANDEGIA**

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Prest dira ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak

Bederatzi jatetxek parte hartuko dute, 'Ehizatu pintxoak' ere eskainiko dute eta argazki lehiaketa egingen da

TTIPI-TTAPA

Urriaren 16tik azaroaren 30era egingen dira Baztan-Bidasoko XXIX. Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak. Aurtengoa 29. edizioa izanen da. 29 urte ehiza eta gastronomia uztartzen, nahiz eta joan den urtean, ez zuten gauzatzetik izan.

Aurtengo edizioan bederatzi jatetxek parte hartuko dute: Arantzako Aterpe (Arantza); Burlada jatetxea (Arantza); Pablo-Enea jatetxea (Arantza); Etxalarko Herriko Ostaturia (Etxalar); Donamariako Bentata (Donamaria); Ordoki Erregia (Arizkun); Elbeteko Posada (Elbete); Olari jatetxea (Irurita) eta Urgain jatetxea (Oronoz-Mugairi).

Ehiza eskaintza zabalaz izanen dute: usoaz gain, basurde azpizuna oportu eta muxika saltsarekin, oreina plantxan sagar patatekin... udazkenean egonda, onddoak ez dira faltako eta akitzeko, bertako produktuekin eta esnekiekin egindako etxeko postreak dasgai.

Baztan-Bidasoko Ehiza Jardunaldiak Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak antolatzen ditu eta Nafarroako Gobernu-turismo, Markataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak diruz laguntzen duen jarduera da. Pirineos Exdim, Bodega Inurrieta, Berako Errotazar Artisanu Produktua eta Baztango Ehiza eta Arrantza Elkarteak dira babesleak.

Menuak QR kode bakarrean

Aurtengo edizioan eskuorriak era digitalean soilik argitaratu dituzte. Covid-19a dela eta, osasun arauak jarraitzeko as-

moz, eskuorriak ez dituzte paperean editatu. Webgunean zintzilikatuta daude, edonork deskargatzeko moduan eta horrez gain, QR kodeak egin dituzte eskualdeko turismo bulegoetan eskaneatu ahal izateko.

Horrez gain, Baztan-Bidasoko Turismo Elkarteak sare sozialetan ere argitaratuta ikusiko dituzue, bai eskuorria, baita QR kodea ere, Facebook, eta Instagramen. Eta nahi izanez gero, Newsletter-ean izena eman daiteke eta korreoan eskualdeko berriak eta agenda eguneratua jaso.

Aurten eutsi egin diote *Ehizatu pintxoak* ekimenari eta hainbat jatetxetan ehiza pintxoak dastatzeko aukera izanen da. Pintxoak eta Inurrieta ardoa: lau euro.

#comecaza argazki lehiaketa

Aurten ere martxan izanen da Ehiza Jardunaldietako VII. Argazki Lehiaketa.

Lehiaketa urriaren 16tik azaroaren 7ra arte izanen da eta azaroaren 10ean, www.baztan-bidasoa.com webgunean, Facebooken eta Instagramen jakinaraziko dute irabazlearen izena. Saria, bi pertsonendako otordua 2021ko Ehiza Jardunaldi Gastronomikoen baitan eta datorren edizioko kartelaren eta eskuorrien irudia izatea. Aurtengo kartel eta gainontzeko euskarrietan agertzen den irudia, duela bi urteko argazki irabazlea da, Maximo Martinez Gorritik ateratakoa. (iazko jardunaldiak bertan behera gelditu zirenez, berriz egokitu zaio 2021eko edizioari irudia jartzea).



Duela bi urteko argazki irabazleak jarri du aurtengo irudia. MAXIMO MTNEZ GORRITI

Oihanean sentitu

Natura arnasteko proposamena eginez, *Oihanean sentitu*. Bideak bertze ipuin proiektua jarri zuen martxan udan Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak. *Shinrin-yoku* (Oihaneko bainuak) praktika japoniarrean oinarritutako proiektua da, eta basoaren eta naturaren atmosferan murgiltzera gonbidatzen du jendea. Helburua ongizatea eta osasuna hobetzea da. Udazken kolektan basoko ibilbideak oraindik politagoak dira.

Lana lortu nahi duzu?

Ingelesa behar duzu

% 100eko ikastaro ofiziala
198 €

PLAZA MUGATUAK

Doneztebeko institutuan maila guztiak eskuragarri

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL

THAT'S ENGLISH! curso oficial de inglés a distancia

Aparkaleku-lerroak seinalatzeko lanak eginen dituzte

Nahi duenarentzat espaloia eta galtzadaren arteko koxka gainditzeko lanak ere udalak bere gain hartuko ditu

MARGA ERDOZAIN

Herriko Etxeak mugikortasuna hobetzeko lanak eta ekimenekin segitzen du. Aparkaleku-lerroak seinalatzeko lanak hasiko ditu orain: Merkatu plazan, Mourgues Etorbidean baita Elizagibela auzoan ere. Aparkalekuaz gain, zamalanerako guneak, aparkaldi mugatua eta elbarrientzako plazak zehaztu eta margotuko dituzte.

Herrian eginen den bertze hobekuntza hauxe izanen da: espaloia eta galtzadaren arteko koxka gainditu nahi duenari udalak beheratuko dio, horretarako aitzinetik eskatu behar da. (948 45 00 17 telefonora deitu behar da). Aparkaleku-lerroak seinalatzeko lanak ongi burutzeko galtzadatik lokal eta garajetara sartzeko arrapalak edo ranpak kenduko dituzte.

Uholde arriskuari aurre egiteko plana aurkeztuko dute urriaren 14an

Uholde arriskuari aurre egiteko plan berria aurkeztuko dute Herriko Ostatuan urriaren 14an, ortzegunean 19:00etan. Plan berriak uholde-kasu bakoitzean esku hartuko duten udal-egitura eta antolaketaren nondik norakoak zehazten ditu, baita herrian

uholdeei aitzin egiteko dauden baliabideak, eta herriko puntu ahulak ere. Nafarroako Gobernuak hainbat kide eta plana egiteaz arduratu diren enpresetako teknikariak bertaratu dira plan berriaren nondik norakoak herritarrei azaltzeko.

Poesia tailerra Kontxi Alvarezen eskutik

Emakumea, gorputza eta natura poesia tailerra abiatuko da urriaren 18an. Kontxi Alvarezek bideratuko du eta helburu orokor bat izanen du: emakumeek egindako lan poetikora hurbilketa egitea eta atzenda ditugun hainbat idazleren lanak berreskuratzea. Tailerra hilabetean behin eginen da. Argibideak eta izena emateko liburutegian bertan edota 948 45 09 09 telefonoan.

Kontsumitzaileendako bulegoa urriaren 22an

Mankomunitateko kontsumitzailearentzako bulegoaren zerbitzua urriaren 22an (ortziralea) gurean izanen da. Doako zerbitzu hau erabili nahi dutenek hitzordua eskatzeko 948451746 telefonora deitu behar dute. Irache Kontsumitzaileen zerbitzuak argibidea, laguntza juridikoa eta konponbideak ematen laguntzen du. Azaroko hitzorduak honako hauek izanen dira: azaroren 5 eta 19a.



ERREKA KE

Urte eta erdi ondotik, berriz konpetizioan

Urte eta erdi lehiaketa ofizialik jokatu gabe egon ondotik, Errekako eskubalo talde nagusiak Noainen jokatu zuen denboraldi honetako ligako lehen partida. Itxura ederra eman eta emaitza bikainarekin etorri zen etxera bueltan Iban Mindegiak gidatzen duen taldea, 30-43 irabazi baitzuen.

Bi irakurle talde sortu dituzte liburutegian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako irakurle taldeen mapan bi argi gehiago piztu direla erran dezakegu, bertako liburutegian bi irakurle talde osatu baitira: bat euskarazko liburuak landuko dituen eta bertzea gaztelaniaz eta emakumezkoen lanak hautatuko dituen. Bi irakurle talde hauek Gobernuko irakurle taldetik liburu sortak eskuratuko dituzte. Gaztelaniazko taldeak hilaren azkeneko astelehenetan bilduko da arratsaldeko 18:30ean. Talde hau irailetik ekainera elkartuko da.

Nahiz eta ofizialki orain osatu, talde honek lau urte daramatza ekimen hau burutzen. Urriean hautatuko liburu Rosa Monteroren *La ridícula idea de no volver a verte* da.

Euskarazko taldeak maiztasun tikiagoa izanen du eta hautatutako liburuaren egilea solasaldi edo aurkezpena gonbidatuko du. Bi taldetan parte hartzeko aukera bada, horretarako 948 45 09 09 telefonora deitu behar da. Miren Gorrotxategiren *33 ezkil* liburu izanen da irakurle taldearen lehendabiziko hautaketa.

PINTURA eta DEKORAZIOA
BIDASOA
Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23
Lakadura eta bernizadurak
Armairuak, azulejuak, etab.
Etxe eta enpresen mantentze-lanak
Etxeko konponketa tikiak
Oiz (Malerreka).
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu.
pinturasbidasoairun@gmail.com

Urriko lehen larunbatean ospakizun bikaina

Haur jokoak, herri bazkaria, ipuin kontalaria eta herriko musikariek lagundutako Trikidantzen kontzertua izan ziren

TTIPI-TTAPA

Ospakizun egun polita izan zen urriko lehen larunbatean. Goizetik ilunabar arte ekitaldiz beteriko egun arrakastatsua izan zen. Gaztetxoek doto-re pasatu zuten, haur jokoak, ginkana, herri bazkaria eta Lur Korta ipuin kontalaria izan baitzuten. Trikidantz taldeak eman zion egunari bukaera. Herriko artistek ere parte hartu zuten abesti batzuk elkarrekin abestuz eta joz. Garbiñe Leiza, Maribel Makuso eta Iosu Altzuri ama-semeak txistuarekin, Peio eta Mikel Petrirena gaitarekin eta Mendaur trikipandero eskolako artista gaztetxoak aritu ziren.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Herriko ikasleak eskolaz kanpoko jardueretan hasiak dira burubelari urriaren hasiera-

tik, bertso eskolan, triki, pandero eta kiroletan, futboleak, kenpo kai, pilotan... (azken hauek Donezteben). Pulunpa eskolan ere hasiak dira eskolaz kanpoko jarduerak ematen astelehen, astearte eta asteazken arratsaldetan.

Argitsuren azoka igandean

Bidasoko artisauen elkartearen eskutik datorren bi asteburuetan udazkeneko azokak antolatuak dituzte. Gure herriaren urriaren 17an, igande goizean, gisa guztietako postuak izanen dira.

Sanmartinen seinale

Eskualdeko azken bestak izaten dira Aurtizko sanmartinak. Aurtengoan seinale tiki bat izateko bileretan dabilza gazteak, ea denek gutxienez zerbaitez gozatzeko aukera dugun.



ADOS PILOTA

Neska gazteak Aurtizko pilota eskolan

Arrakasta ikaragarria izaten ari da Ados pilota elkartearen eskutik neskatza gaztetxoei Aurtizko Koianea Txikia pilotalekuan astelehenero eskaintzen zaien pilota eskolak. Irailaren 27ko lehen entrenamendura (argazkian) zazpi urtez goitiko hamazazpi neska elkartu ziren.



Iker Vicentek eta Jon Rekondok aizkora apustu ederra egin zuten. JAIONE ARIZTEGI

Urrozko besten seinale aizkora, jokuak eta tortilla eta postre lehiaketa izan ziren

JAIONE ARIZTEGI

Herriko besten seinalea izan zen urriko lehen asteburuan, zenbait ospakizunekin. Tortilla eta postre lehiaketak egin ziren larunbatean eta sariak izan ziren lau lehenbizikoen dako. Tortilla onena Nekane Zozaiak egindakoa izan zen eta Ana Ursuegi izan zen bigarren. Postretan, Juana Mariezkurrena izan zen irabazle eta Maixux Aldabe bigarren.

Baina, lehiaketaz gain, bertze hainbat ekitaldi izan ziren: haurrentzat jokuak, koltxonetak eta kart-ak izan ziren larunbatean, baita bazkaria ere.



Neska-mutikoak bazkarian.

Igandean aizkora apustu bikaina eskaini zuten Iker Vicentek eta Jon Rekondok. Modesto ere akordeoia jotzen eta giroa jartzen aritu zen.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Kolonbarioak Ezkurran

Alfonso Garcia apaizak kolonbarioak bedeinkatu zituen inaugurazio egunean uztailaren 10ean. Herriko hildakoen errautsak gordetzeko lekua da. Hilerria elizaren gainaldean dago eta 18 horma-hobi ditu. Oraindik badaude kolonbarioak libre. Eskaera udaletxean egin behar da.

ZUBIETA

Emakumeek egindako lanari aitortza eginen zaio

Igandean eginen den ekitaldian olio zaharrarekin egindako xaboa banatuko dute eta testigantzak eta kantuak aditu

F. ETXEKOLONEA

Zubietako emakumeek egindako lanari aitortza egiteko ekitaldia antolatu dute urriaren 17an Zubietako udalak eta Malerrekako Mankomunitateak. Igandean 11:00etan, abuztuaren 23tik irailaren 5era arte estalpean bildutako olio zaharrarekin egindako xaboa banatuko dute eta emakumeen testigantzak eta kantaldia aditzeko aukera ere izanen da.

«Zuen eskuek hotzari, hariari eta hariari aurre egin diete beti. Horregatik eskerrak

emateko unea da, besarkada baten bidez ukimena eta maitasuna itzuliz», dio udalaren oharrak.

Emakumeen lan hori aitortzeko garbitegian emakumeak lixiba egiten ageri zireneko argazki bat paratzekoa asmoa zuen udalak eta horretarako herritarren laguntza eskatu zuen uda partean. Baina garai haiek ez ziren oraingoak eta horrelako argazkirik herrian lortzerik izan ez denez, lanbide hori agertzen duen ilustrazioa jarriko dute zubi ondo horretan.

Indakotxea eta Mindegia hirugarren mailakoan

Euskadiko hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatzekoa zuten igandean Larrabetzun (Bizkaia) Patxi Mindegia eta Mikel Indakotxea herriko aizkolariek. Hamar aizkolarari zuzenekoak ziren lehian eta finalerako bi txartel beste-rik ez zeuden jokoan.

Ultzama-Atez taldearen kontra herri kirol desafioa

Zubieta eta Ultzama-Atezkotako taldeen arteko herri kirol proba konbinatuan desafioa jokatzekoa dute urriaren 23an, larunbat eguerdian herriko plazan. Izerdialdiaren ondotik, denek elkarrekin zikiro-jatea izanen dute bazkaltzeko eta ilunabarrean musika.



UTZITAKOIA

Tomas eta Silvestraren Urrezko Ezteiak

Tomas Otxandorena Fagoagak eta Silvestra Mindegia Labaienek 50 urte ezkondurik bete zituzten urriaren 2an. Urrezko Ezteietako ospakizun ederra egin zuten, seme-alaba eta bilobekin. Horietako batzuk joareak eta ttuntturroak jantzi zituzten, ospakizunari soinu-banda ederra jartzeko.



NEREA BAZTERRIKA

Ekiñeren kantaldia Errandoneko atarian

Ekiñe abeslari arrasatearrak emanaldi ederra eskaini zuten urriaren 1ean Errandoneko atarian. 45 bat lagun bildu ziren garai bateko ospakizunen itxura hartu zuen afariak. Ea, bada, poliki-poliki normaltasun horretara bueltatu eta datozen ekitaldietan ere jendearen aurpegiak ikusteko aukera dugun.



BIDASOA
ascensores

www.ascensoresbidasoa.com
info@ascensoresbidasoa.com

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

- Mota guztietako igogailuak jarri, konpondu eta mantentzeko zure enpresa gara.
- Urte askotako esperientzia duen lantalde tekniko aditua gara.
- Hurbiltasunak egiten gaitu berezi, beti zure segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuz.
- Edozein abisu dela ere, berehalako erantzuna ematen dizugu.
- 24 orduko matxura zerbitzua ematen dugu.



IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53 | **ERRENTERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info



Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

«Kapritxorik ez, baina garai zailenetan ere ez dugu goserik ezagutu»

ISABEL INDA ARREGI SUNBILLAKO 101 URTEKO EMAKUMEA

1919ko azaroaren 19an jaio zen Gazteluko Senpernean, baina 1948an Joxemari Elizondorekin ezkondu zenetik Sunbillako Latsa baserrian bizi da osasuntsu Isabel. Berekin bildu gara

PABLO IRASTORTZA

Omenaldi txiki gisa eta ohitura bihurtu nahian, aurtengo apirilean argitaratu zen Asun eta Juli (Goian Bego) ahizpa etxalartarekin egindako solasaldia. Oraingoan, herriko ordezkaria den Juan Antonio Ibarra eta hizki hauen idazlea, Sunbillako Latsa baserriko Isabelengana (1919ko azaroaren 19an jaioa) jo genuen, baita familian aldetik harrera biziki atsegina jaso ere. Baserri bereko Joxemari Elizondorekin ezkondu zen 1948an, eta bertan bizi da geroztik. Bere itxura mardula ikusirik ez luke inork erranen laster 102 urte bete behar dituenik. Ebakuntza txiki bat alde batera utzita, ez du osasun arazorik sekula izan, eta apenas tarteka pilularen bat hartzen duen. Mariivi eta Begoña bere bi alaben laguntzarekin (milesker bioi) plazerra izan zen bisitari kuxkuxeroen jakin nahia eta bizitzan izandako harat-honatak, Isabelen aho eta buru argietatik aditzea.

Txoritxo batek dio ez zarela etxe honetan sortua...

Ez, Gazteluko Senpernea etxean jaio nintzen, eta sei senidetatik –hiru neska eta hiru mutil– bigarrena naiz.

Nola izan ziren txiki-gazte garaiak?

Buenoo, hagitz oroitzen politak ditut, auzoko lagunekin ia egun guztia kalean pozik jostetan, baita ere zeinen gustura joaten ginen goiz eta



Isabel Inda, Mariivi eta Begoña alabekin. PABLO IRASTORTZA

arratsaldez sei-zortziko haur kuadrillak, Donamariako eskolara.

Elizara ere joan behar izaten zen, obligazioz...

Hala zen, komunio txikia egin orduko mezetara joan behar zen aitzaki txatxurik gabe. Egia erran igandetean suertea izaten genuen, lasai lasai goizeko hamaiketako mezara joaten baikinena familiakin.

Zenbat urte arte eskolan?

Hamabi urte arte, nahiko lana bazegoen etxean laguntzen, ondoko senide txiki andana ere zaindu behar baitzen.

Non ezagutu zenuen senarra?

Garai haietan inguruko gazteak Donezteben elkartzen ginen, eta Santa Luzia besta batean

ezagutu ginen, bizpahiru urte inguru nobiotan ibili ondoren 1948an ezkondu ginen, hori bai e, nobio bakarra izan nuen! **Gaztetan gerra ere etorri zen...**

Bai, zoritxarreko urte tristeak izan ziren haiek, zenbat familian anaiak anaien kontra aritu behar izan zuten. Hala ere gure inguruan ez zen inor faltatu, suertea izandu genuen, nere senarrak ere lau urte pasa zituen gerran eta onik bueltatu zen. Nahiz eta garai zail haietan kapritxo txikienik ere ez usaitu, goserik ez genuen ezagutu, gaztainak, taloak, zerrikia edo esnea genituenez, familiakoena elikadura basikoa ziurtatua genuen.

Familia ederra hazi duzue...

Bai, borts seme-alaba izandu ditugu, hiru neska eta bi mutil. Hamabi biloba ere baditugu. Orain dela 27 urte alargundu nintzenetik, seme bat eta alaba baten laguntzarekin, kontent bizi naiz.

Etxeko lanak ez aski eta kanpoan ere aritua zara...

Halaxe da, Bidasoa auzoko eskolan hamaika urtetan ikasleen bazkaria prestatu nuen. Garai haietan, baserrietan ez zegoen gaurko bide, garraio eta erraztasunik, eskerrak eskolan bertan bazuten otordua egiteko aukera. Orduko oroitzen ederrak ditut, auzotar 25 umeri egunero bazkaria prestatzea hagitz lan polita eta eskergarria zen.

Arkupeak elkartarekin aunitz bidaia duzue?

Bai, aunitz, Italian, Andorran, Lourdesen, Xabierren, Aralarren, Arantzazun, Lezon... ibilia naiz. Hagitz maitea izandut beti Arantzazura joatea, aukera izanez gero gustura joanen nintzake berriz.

Duzun itxura elegantearekin, zaintzen zarela dirudi...

Beno, saiatzen naiz egunero ordutegia mantentzen, 09:00ak aldera jeiki, gosalduta, tenorez bazkaldu... hori bai, nahiz eta 22:00 orduetako ohatzean nagoen, siesta luze xamarra ez dut barkatzen.

Orduan apetitu onekoa zara, izanen duzu janari maiteagoren bat?

[Irriz] Ez, ez, denetik jaten dut, zorionez ez dit deusek minik egiten. Janari maiterik? alabak prestatzen duen baratzi zopa! aski goxoal gehiagotan janen nuke baina, lastima, sobera jatea ez omen da osasungarria eta.

Isabel, ikusten da etxekoek erregina bateri bezala zaintzen zaituztela...

Hori egia da, nik ere beraiek kariñoarekin tratatzen ditut e! [irriz] ez zait okurrizten *a la porra* bidaltzea... bertzela akabo, ez didate zainduko!

Isabel eta familia, mila esker eta izan osasuna! Ea 102. urtebetetzean berriz ere elkar-terik badugun!



Julen Mitxelorena Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduko kidea da.

«Borroka hau ez da pentsiodunena bakarrik gizarte osoarena baizik»

JULEN MITXELTORENA MITXELTORENA BAZTAN-BIDASOKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

Irailarekin batera, pentsio duina eskatzeko elkarretaratzeekin hasi da Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimendua. Lortzeko aunitz dagoela iritzita, hemendik aitzinera bide beretik segitu nahi du, hilabeteko hirugarren astelehenetan beraien aldarrikapenak karrikara ateraz

G. PIKABEA | ELIZONDO

Pentsiodunen sistema publikoa eta duina dute jomuga, eta badakite hori lortzeko bidea «luzea» izanen dela. Hiru urte pasatu dira pentsiodunak karrikara ateratzen hasi zirenetik, eta urteotan «deus gutti» lortu dela dio Julen Mitxelorena Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduko kidea. Baina ez daude geldirik egoteko eta

«mobilizatzea inoiz baino beharrezkoagoa» dela dio. Garbi utzi du «borroka hau ez dela pentsiodunena bakarrik, gizarte osoarena baizik».

Hiru urte joan dira pentsiodunak karrikara ateratzen hasi zirenetik...

Baztan-Bidasoaldeko jendeak, etxetik hurbil, hiriburuetan eta herri koskorretan egiten hasi ziren mobilizazioei babes emateko izateko hasi ginen

hemen biltzen. Tartean, pandemia dela eta, mugimendua pixka bat trakestuz zen, baina ahal den neurrian eutsi diogu. Urteotan zerbait lortu dugu, baina deus gutti. Aldarrikapenak hor daude eta pentsiodunen mugimendua bizirik dago. **Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimendua ere indartsu dago?** Jendeari kostatzen zaio elkarretaratzeetan parte hartzea,

baina hasieratik aurreikusitua gertatu genuen. Badakigu luze joanen dela; aldarrikapenak sakonak dira eta lorpenak ez dira segidan etorriko. Luzerako diren kontuetan, jendea ez da uholdean etortzen. Herritar jakin batzuk eusten diogu mugimenduari, eta segitzeko gogoz gaudete. Elkartzen garenean ikusten da batzuek ez dutela elkarretaratzeen berririk, baina begi onez ikusten dute.

Pentsioen igoera KPlaren arabera izatea lortu da. Lorpen handia da?

Lorpena, neurritz, ez da handia, baina jende aunitzi eragiten dio eta badu bere garrantzia. Bertetik, gure aldarrikapen nabarmena 1.080 euroko guttienera pentsioa izatea da. Nafarroako Gobernuaren agendan dago, bilerak egiten ari dira eta ez dakigu zer gertatuko den baina itxaropentsu gaudete.

Baina ez da aski lortu dena...

Ez. Lorpen sakonak luzera eta kostata etorriko dira. Gauza aunitz aldatu behar dira, eta hori da mobilizazioen helburua. **Pentsio duina lortzetik urruti gaudete?**

Bai. Europako Kartak aholkatutako guttienera pentsioa 1.080 eurokoa da eta hori da gure erreferentzia. Horrez gain, pentsioen afera Espainiako Gobernuaren eskuetan dago, baina Hego Euskal Herrian bertzelako baldintzak eta aukerak ditugula ikusita, pentsioen afera hemen kudeatzea eskatzen dugu, pentsioen sistema propioa izatea. Horregatik bereziki Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari euren eskuetan dagoen guztia egiteko eskatzen diegu.

1.080 euroko guttienera pentsioa, sistema propioa, pentsioetan dagoen genero arrakala desagertzeko... Aldarrikapenaren artean zer gehiago nabarmenduko zenuke? Zaintza eta osasun sistema duina izatea. Zahar etxeak, etxez etxeko zaintzak, eguneko zaintzak eta osasun sistema duinak eta publikoak izatea nahi dugu. Alor horretan gehiena pribatizatua dago, eta hori



Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, irailaren 20an Elizondoko plazan egindako elkarretaratzea. JOSETXO APEZTEKXA

da joera. Guk, ordea, gestio publikoa, eta nola ez, zintzoa eta duina exijitzen dugu. Menpekotasun legea bere osotasunean garatzeko beharrezkoak diren diru baliabideak jartzea ere eskatzen dugu, baita nekazaritza erregimenean daudenen pentsioak kalkulaterakoan sistema orokorrekin parekatzea ere. Aunitz dira nekazaritza erregimenean daudenak, eta alarguntzean, adibidez, pentsio kaskarragoarekin gelditzen dira. Bidezkoena erregimen orokorraren formula-ekin parekatzea da.

Osasun eta zaintza sistema aipatu dituzu. Azken elkarretaratzean hori nabarmendu zenuten...

Badira lehenagotik prekarioak diren zerbitzuak eta, gainera, kudeaketa txarragatik baliabideak kentzen ari dira; duela gutti Urdazubin asteburueta-ko larrialdietako zerbitzua kendu zuten, nahiz eta gero berriz martxan paratu. Lehenagotik ziren erizainen eta medikuen lanpostu guztiak ez dituzte ordezkatu edo bete. Osasun eta zaintza sistema denontzako da, unibertsala da, baina adinean aitzinera doazenak gehiago behartzen dira. Horregatik eskatzen dugu bermatzea, baita lan kalitatea ere.

Pentsioen sistema orain dena baino eskasagoa izateko arriskua ikusten duzu?

Politika neoliberalak eta batez ere Europatik datozen aginduek ekonomia dute oinarri eta erformen bidez estutu egiten gaituzte; pentsioen ordainketarako zailtasunak eta oraindik

formula eskasagoak sortuz. Aseguru-etxe eta banketxeen bidez, sistema pribatua sustatzen ari dira eta hori egiten uzten badiegu, arriskuan gaude. **Europak urte hondarrerako eskatua du pentsioen erreforma...**

Bai, eta ez dakigu zein eduki duten esku artean. Espainiako Gobernuari behin eta berriz, egiten ari direna argi errateko eskatzen diogu, ez ibiltzeko gordeka.

Zer espero duzue?

Edozein gauza. Horregatik inoiz baino beharrezkoagoa da karrakara ateratzea eta mobilizatzea. **Zer diozu administrazioaren jarreraz?**

Orain arte bezala, ekonomian oinarritua da. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, lan gatazkak daudenean, langileen eta lan baldintzen alde egin beharrean, enpresariaren eta ekonomiaren alde egiten du. Eta agintean dauden alderdiak aldatzen ez badira, herritar guztien zaintza berma dezaten eskatzeko borrokan segitu beharko dugu. Gaur egun pentsioen munduan sartuak ez daudenen etorkizuna ere kinka larrian dago, eta borroka hau ez da pentsiodunena bakarrik, gizarte osoarena baizik. Azpimarratu nahi nuke gaur egungo aldarrikapenetik harata, pentsiodunen

«ALDARRIKAPENAK SAKONAK DIRA ETA LORPENAK EZ DIRA SEGIDAN ETORRIKO»

mugimenduak etorkizunean herritar guztien zahartzaro duina bermatu nahi duela.

Zer diozu Nafarroako Gobernuaz?

Alde batetik, ez du horrelako eraginik, eta bertetik, guttinez elkartzeko eta solastatzeko jarrera irekiagoa du. EH Bildurekin zenbait puntutan akordioak lortu ditu, eta burua betiko lepotik baldin badu ere, jarrera positiboagoa du.

Europako Batzordearekin ez zarete fidatzen...

Ez, Europako Batzordeak ekonomia lehenesten duelako. Ekonomia indartu nahi badute, handik edo hemendik, herritarren lan baldintzak kasikartzen dituzte. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko eta estatu mailako berte pentsiodunen taldeetako ordezkariek berriki Bruselan izan dira Europako legebiltzarreko zenbait parlamentariarekin. Europako legebiltzarreko talde parlamentario guztiei egin zieten biltzeko gonbita eta horietako batzuekin bildu dira.

Zer ondorioztatu duzue?

Argi gelditu da banketxe eta berte entitate finantzario handiek duten indarra zenbatekoa den. Sekulako presioa egiten dute, politikariak euren menpe egonen balira bezala. Baina aldi berean, estatu bakoitzean es-

«JENDEA MUGITZEN BADA EMAITZA ONAK LOR DAITEZKE»

tatuko gobernuak dute zein neurri hartu eta zein ez erabakitzeko ahalmena. Oro har, egindako bidaiarekin kontent gelditu dira eta lanean segitzeko konpromisoa berretsi dute. **Baztan-Bidasoaldeko Pentsiodunen Mugimenduak ere hilabeteroko hitzorduekin segituko du?**

Bai, irailaren 20an Elizondon bildu ginen, eta hemendik aitzinera hilabete hiru garren astelehenetan Elizondon, Beran, Donezteben eta Lesakan txandaka bilduko gara. Elizondon eta Lesakan plazan, Beran Iamoteneko atarian eta Donezteben eskola aitzineko biribilgunean, 12:00etan. Hurrengo hitzordua irriaren 18an Beran izanen dugu, azaroaren 15ean Donezteben, abenduaren 20an Lesakan, ilbeltzaren 17an Elizondon... Ikasturteko azken elkarretaratzea ekainaren 20an Beran egingen dugu. Udan atseden hartu ondotik irailean bueltatuko gara.

Nolako etorkizuna ikusten duzu?

Arriskutsua izan daiteke, baina denbora berean, oraingo eta geroko pentsioak jendarteak nahi duena izanen dira. Jendea kontzientziatzen bada eta zer pasatzen ari den ikusten badu, eta ondorioz, mugitzen bada, emaitza onak lor daitezke. Gehienok pentsio duina dugu, baina badira larri daudenak eta denok duin bizitzea merezi dugu. Norbere buruari bakarrik begiratu beharrean, elkartasun keinu tiki bat izanen bagenu, aunitz lortuko genuke. Norberak bere bidean segitzen bada, ordea, ez.

Emakumeen topaketa eginen dute larunbatean

Goizean saio praktikoa eginen dute eta bazkalondoa auzolanean ariko dira

TTIPI-TTAPA

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, gizarte zerbitzuen mankomunitateak eta Habelarte Mendialdeko Baserritarren Elkar-teak emakumeen topaketa antolatu dute. Larunbat honetan, urriaren 16an, izanen da eta antolatzaileek iragarri dutenez, «adin eta sektore guztietako emakumei zuzendua» izanen da. Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren laguntzarekin prestatu dute hitzordua, eta «aldaketa sozioekonomikoek gure pai-

saian eta bizitzan utzi duten aztarna» landu nahi dute.

Larunbatean, 10:00etan Basakabin bilduko dira eta Gozone Sestorain gidari dutela saio praktikoa eginen dute. Eguerdian bazkaria eginen dute bakoitzak etxetik eramandakoarekin, eta arratsaldean auzolonerako bilduko dira. Bazkaltzeko tokia eta auzolana eguraldiaren arabera erabakiko dutela jakinarazi dute.

Parte hartzeko aurretik izena ematea beharrezkoa zen: asteazkenerako, urriaren 13rako, 674 08 69 26ra idatzita.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

Jendetza erraldoien ekitaldian

Jende asko erakarri zuen erraldoi berriak aurkezteko konpartsak urriaren 2an egin zuen ikuskizunak. Lehenagoko erraldoi eta buruhandiekin batera, bi aurpegi berri agertu zituzten plazan: emakume baserritarra eta emamea quechuarra bestea. Izenak aukeratzeko prozesu herrikoia urriaren 10ean bukatzekoa zen.

Eskola eremuko estalpeko lanak atzeratuak

JUAN MARI BARRIOLA

Nafarroako Gobernuak eskola eremuko aterpea eraikitzeko egin zuen esleipen prozesuan enpresa bakarra aurkeztu zen. Baina orain, lanak hasi behar zituenean, enpresak atzera egin du dituen arazo onorioz, eta hala, Eskolako estalpea ezin izanen da aurten egin. Udalak jakinarazi duenez, «proiektua bera kolokan gelditu da». Udalak datorren urtean estalpea egin dadin «gogor» lan eginen duela adierazi du, «behar-beharrezkoa» baita herrian.

600 euroren zozketa eginen du Kaxkabeltzak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 7etik 14ra Kaxkabeltzak merkatarien elkarteko dendetan erosketak egiten dituztenen artean 600 euro balioa duten erosketa-txartelak zozketatuko ditu elkarteak. Zehazki, ehun euroko hiru erosketa-txartelen, 50 euroko beste lau erosketa-txartelen eta 20 euroko bosten zozketa eginen du. Kaxkabeltzak ostiral honetan, urriaren 15ean, eginen du zozketa eta saridunek urriaren 22a baino lehen gastatu beharko dituzte erosketa-txartelak.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIA: LEITZAKO SARE

'Ibilian ibilian' txanda bat Leitzako Sarek

Nafarroan barrena euskal presoek etxertzeko aldarriarekin egindako martxan parte hartu zuten Leitzako 16 bat lagunek. Malerrekakoek eman zieten txanda leitzarrei Donamaria inguruan, eta ondoren, bost kilometroko ibilbidea egin zuten Saldias aldera goizuetarrei txanda emanez.

'Harria Maitasun istorioa' estatu mailan

Mugak zeharkatu ditu Iñaki Perurenaren *Harria Maitasun istorioa* ikuskizunak. Irailaren 23an Madrilan egin zuen aurkezpena eta martxora bitarte estatu osoko Nafar Etxeetan eskainiko du.



Udalak 6.710 euro bilduko ditu uso postuen enkantetik

Hamabi postu esleitu gabe gelditu dira baina iaz baino 264 euro gehiago jasoko ditu udalak



Urteaga inguruko ehiza postua.

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, iraileko azken bi larunbatetan Urteaga inguruko uso postuen banaketa egin zuten. Behin betiko errematearen ondotik, 6.710 euro bilduko ditu udalak, iaz baino 264 euro gehiago eta tasazioan aurreikusitakoa baino 110 euro gehiago. Halere, 27 postuetatik hamabi esleitu gabe gelditu dira.

Lehenagotik ez bezala, aurreko denboraldian 23., 24., eta 25. postuak enkantera atara ziren. Lehenago zuzenean herriko Usoa Ehiza Elkarteari esleitzen zizkioten. Aurten, berriz, Peña, Perratokieta, Museo eta Gañarbeko ehiza-postu guztiak Usoa Ehiztarien Elkarteari esleitu dizkiote zuzenean.

Bestalde, joan den denboraldian, Covid-19ak eragindako pandemia tarteko, mugak itxita egon zirenez, Nafarroatik kanpo bizi zirela frogatzen zutenei zati bat itzuli zieten. Zehazki 19 postutik 16ri itzuli zieten dirua, ordaindutakoa- ren bi heren.

Tasazioko prezioa hobetuz

Tasazioan ezarritako prezioaren gainetik esleitu diren uso postuak 1.a (360 euro gehiago), 3.a (730 euro gehiago), 4.a (1.030 euro gehiago), 5.a (310 euro gehiago), 10.a (60 euro gehiago) eta 12.a (20 euro gehiago) dira; gainerakoak tasazioko prezioan eman dituzte. Hartu gabe hutsean gelditu direnak, berriz, 6.a, 7.a, 8.a, 16.a eta 18tik 25era bitartekoak dira.

INBERTSIO-FUNTSAK

Zure izenaz deitzen zaitugu

Rural Kutxan, badakigu nola deitzen zaren eta zer behar duzun.

Marcela

MARCELA IRUÑEKO
LIBURU-DENDA BATEN JABEA DA

Horregatik, zure izaerara eta gauzak egiteko zure modura hobekien egokitzen den inbertsio-funtsa eskain diezazukegu.

Zure izenera.

CAJA RURAL DE NAVARRA

Inbertsio-funtsetan, ez inbertitutako kapitala, ez errentagarritasuna ez daude bermatuta. Funtsetan egindako inbertsioen balioa merkatuen gorabeheren mende dago.

Informazio hau komertziala da, eta ez da inolaz ere eskaintza. Harpidetza-gomendioa edo inbertsio-arko finantza-aholkularitza. Bertan dagoen informazioak ez du ordedkarzen inbertsioari buruzko erabakia hartu aurretik kontsultatu beharreko legeriko dokumentazioa. Funtsetan liburukia eta inbertsiozaleentzako funtsuak dauka bitzen dituen dokumentua Rural Kutxako bulegoetan, ruralkutxa.com hobidetan eta CNMV-n kontsultatu daitezke. Kudeatzailea: GESIC COOPERATIVO S.A.S.G.I.L.C. Gordailuzaina: Banco Cooperativo Español.

SANTU GUZTIEN EGUNA

Azaroak 1



Javier Biurraena

Gure hilerriak zaindu dituzten gizona eta katua

Javier Biurraena Berako zulogile edo ehorzle izateaz gain, 1992tik herri gehiagotan ere ibili izan da. Beran, Lesakan, Etxalarren, Arantzán, Sunbillan, Igantzín, Saldiasen eta Eratsunen. «Orduan ez baitzen ehorzlerik inon inguruan». Hobiratzek egitea eta kanposantua zaintzea zen bere lana, 2008an erre-tiroa hartu zuen arte. Lana «gustura» egin zuela dio, «gustatzen zitzaidan, aise egiten nuen eta ez nuen problemarik izaten».

Katu bat zuen lagun min, Pitxi. «Gosez hilda agertu zen erre-pide bazterrean, norbaitek han utzia, eta jatera ematen hasi nintzen». Bere laguntzailea bihurtu zen agudo, «nirekin aritzen zen zulo guzietan, kaxaren gainean egoten zen. Aunitz laguntzen zidan, mingainarekin burua eta begiak orrazten zituen bitartean». Hainbertze urtez kanposantuan lanean, «kontatzeko aunitz» du Biurraenak. «Familia berekoak agudo hiltzen baziren, zulo handia egin behar nuen, bertzela tikiak gelditzen ziren eta problema izaten genituen». Batzuetan hildakoak atera behar izaten zituen zuloak handitzeko, «baina ez zait aunitzetan pasatu, zulo handiak egiten nituelako».

Lore-denda  Larunbat arratsaldeak eta igandeak irekia
Krisantemoak, azaleak, ziklamenak zentru artifizialak eta naturalak

Informazio gehiagorako edo eskaerak egiteko deitu telefonoz edo etorri gure dendara.
Aukera zabala dugu!
NARBARTE • T. 948 59 22 00



 Zure esku

- Omiasaindurako lore aukera ezberdinak
- Etxea apaintzeko gaiak
- Arropa eta osagarriak

ETORRI ETA IKUSI!!
Albistur 39 LESAKA · T. 948 627 542

**OMIASAINDURAKO
LORE ETA LANDARE
ESKANTZA ZABALA**

LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu
omiasaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu



Astelehenetik larunbatera:
09:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak: 10:00-13:00
Otsango auzoa · LESAKA
T. 948 637 826



Herri batean ez bazen bertzean, Biurrarenak ia egunero ikusi ditu hilberriak eta heriotza, eta ohitu bazen ere, «errespetuarekin» aritzen zen beti. «1.100 pertsona baino gehiago» hilobiratu ditu lanean ibili den urteetan, «beti puntual eta beti errespetuz, momentu latzak izaten dira eta gauza hagitz serioa baita». Hildakoaren familiarekin ere aunitz tratatzen zuen.

Gaur egun, ASPACEk zaintzen eta garbitzen du Berako kanposantua, eta lana «hagitz ongi» egiten dutela dio. Duela hamahiru urte erretiratu zen Biurrarena, baina 77 urterekin batzuetan oraindik ere deitzen dute. «Ezetx erraten diet». Hala ere, kanposantura joaten segitzen du, «baditut 1992tik zaintzen ditudan panteoi eta hobiak eta oraindik ere garbitzen eta zaintzen ditut Santu Guztien Egunean».

Egun berezia da Santu Guztien Eguna aunitzentzat, hildakoak oroitzeko eta kanposantura loreak eramateko eguna baita, baina ehorzlearentzat bereziki, «lan gehiago» izaten baitzuen. «Aitzineko egunetan batez ere, dena garbitzen, prestatzen eta pintatzen» ibiltzen zen, «jende aunitz joaten delako». Egun horretan loreak eramaten zituztenei «loreetan hainbertze gastatu beharrean, di-ruaren erdia niri emateko erraten nien» kontatu digu txantxetan, «baina ez nuen lortu».

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ESKAERAK HARTZEN DIRA
Lore moztuen
eskaerak
urriaren
23ra arte

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak

Urriak 30 eta 31 egun osoz IREKITA

Altzate, 33 zuloredenda@hotmail.com
31780 BERA Tel.: 948 625 786

Jardinerie Lafitte
84, 1945 maiatzaren 8ko etorb.
64100 Baiona
Tel.: 00 33 5 59 42 24 42
www.lafitte.net

**OMIASAINDU EGUNERAKO
AUKERA ZABALA**



*Ikusi gure web orria
euskaraz ere!*



Aukera handia
kalitatezko produktuetan

Domisaindu
egunerako
Lore-eskaintza
zabala

Ongarriak eta ongarrizeko gaiak

Landareak, loreak, fruitu-arbolak

Lore-konposizioak

Etxe barrurako zein kanpoko landare eta arbolak

Dekorazio osagarriak, loreontziak eta jardinerak

Lorategirako erremintak



Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia:

9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00

Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

www.venta-peio.com

DANCHARIA IBARDIN ARNÉGUY BÉHOBIÉ

FR. +33 9 72 10 40 20

ES. +34 902 210 800

JRONE - GOZOTEGIA

Bañueloak eta
etxeko produktuak

Altzate, 21 · BERA · T. 948 630 786

KULTURKARI.com
Diseinu grafikoa | Publizitatea

OROIGARRIAK EGITEN DITUGU

kulturkari@ttipi.eus - Tel. 948 63 54 58

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALLER DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA

ANTZUZELAI
S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

**MARMOLES
SOULE**

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

Santu Guztien Egunerako dena prest



Santu Guztien Egunari garrantzi handia ematen diote aunitzek eta hori argi daukate ASPACEn. 2003tik Berako kanposantuko mantentzeaz arduratzen dira Itziar Igoa arduradunak kontatu digunez; «eremu berdeen eta lorategien mantentze-lanak egiten ditugu; belarra moztu, garbitu...». Nitxoak eta kolunbarioak garbitzeko eta mantentzeko errazagoak direla azaldu digu, «hilobiak, ordea, handiagoak dira eta lan gehiago eskatzen dute». Bertzalde, hobiratzeak egiteko eta ehorzketak eta hilerrian dauden plaza libreak kudeatzeko, «Cemendena enpresa kontratzen dugu».

Hildako senideak oroitzeko eguna hurbiltzen ari dela, garrantzia handiagoa ematen diote hilerria txukuntzeari, «badakigu egun garrantzitsua dela, jendeak ohitura handiagoa du kanposantura joateko eta loreak uzteko, eta dena ahal bezain garbi utzi nahi izaten dugu».



Hemen gehienek lurperatzea aukeratzen dute

Hilerritik du Berak «eta biztanleria geroz eta handiagoa da», beraz, nitxoak eta kolunbarioak «hilobi faltari aterabidea emateko» soluzio bat direla azaldu digu Irache ehorztxetako Andoni Anduezak. Hautsak arrazago eta erosoago kudeatzen dira, lan guttiago eskatzen dute eta garbia goak dira. «Egia da, gure inguruko jendearen lehenbiziko aukera lurperatzea dela, erraustuta ere», gure kulturari sustrai sakonak dituen ohitura baita.

Hala ere, geroz eta jende gehiagok alternatibak bilatzen ditu; «hautsak mendian edo errekan botatzea, adibidez». Azken urteetan interesa piztu duen beretze metodo bat hildakoen errautsekin bitxiak egitea da: hildakoaren hauts eta hezurrekin egindako bitxiak. Gure familia eta lagunei azken agurra emateko mila modu dauzkagu, baina aukeratzen duguna aukeratzen dugula, argi izanen dugu beti oroitzeko ditugula.

Eremu digitalean zaintzeko kanpaina Goizuetan eta Aranon

Bhutan proiektuaren aurtengo kanpaina IKT eta pantailen jarri nahi du arreta eta hainbat ekintza eginen dituzte bi herrietan

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean hasitako bigarren segida emanez, Goizuetan eta Aranon indarrez hasi dute aurtengo Bhutan proiektuaren kanpaina. Iaz zaintzaren alderdi positiboak landu zituzten, eta aurten, IKT eta pantailen begira jarri dira. «Eremu digitalean zainduz» izanen da aurtengo helburu nagusia eta horren harira, pantailen erabilera izan dezakeen «arriskuaz» ohartarazteko hainbat ekintza eginen dituzte bi herrietan.

Azken urteetako eta bereziki azken hilabeteetako joera ikusita erabaki dute gai hori lantzea. Oihane Calderon gizarte zerbitzuetako teknikariaren hitzetan, «azken urteotan eremu digitalak eta birtualak eremu errealarri lekua hartu diola esatea ez da berria». Pandemiak, ordea, are eraldaketa handiagoa eragin du: «azken hilabeteotan bereziki pantailak gailendu dira». Konfinamendu garaiko adibideak ekarri ditu gogora: «lagun eta familiarekin bideo deiak, hezkuntzan *Chromebook*ak eta Interneteko sarbidea bermatzeko ahaleginak, aisialdia pantailen bidez...».

Urtebeteren ondoren, «pantailen hartutako ohitura horiek gure artean geldituko direla ikusten dugu» eta hori dela eta, «arlotan hainbat ekintza egoera ikusarazteko beharra» ikusi dute, «batez ere hausnarketa bultzatzeko eta zaintza eta tratu onak gailentzeko».

Erakusketa bi herrietan

Helburu horrekin, alde batetik, «mundu birtual eta digitalak gudan duen eraginaz hausnartzeko laguntzeko posterrak ja-



Erakusketako posterretako bat.

rriko ditugu», dio Calderonek. Urriaren 18tik 28ra Goizuetako kaleetan izanen dira ikusgai, eta ondoren, posterren lekuan dekalogoak jarriko dituzte. Azaroaren 3tik aurrera Goizuetako garbiketan izanen da erakusketa eta aurretik Aranon, urriaren 29tik azaroaren 1era.

Hitzaldia eta bertso marraztuak

Bestetik, *Gurasoak eta seme-alabak pantailen aurrean* hitzaldia emanen du Miren Ros hezitzaileak urriaren 25ean Goizuetan. 3 eta 14 urte bitarteko gurasoentzako izanen da eta parte hartzeko urriaren 18a baino lehen gizarte zerbitzuetara deitu (948 51 08 40) edo Goizuetako guraso elkarteak helbidera idatzi (g.elkarte@hotmail.com) beharko da.

Azaroaren 12an, bertso marraztuak antolatuko dituzte: Alaia Martin eta Saioa Alkaiza bertsoetan ariko dira, Unai Gaztelumendik marraztu bitartean. 18:00etan Goizuetako Udaltxeko Ganbaran izanen da.



Hiru parte-hartze saio izanen dira guztira. PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA

Eredu turistikoa diseinatzeko saioa urriaren 28an Leitzan

TTIPI-TTAPA

«Azken urteotan turismoaren sektoreak izugarriko aldaketak izan dituela eta «Mendialdean turismoa ekonomiaren ardatz garrantzitsu bihurtu» dela ikusita, «turismoaren eredu eta marko estrategikoa diseinatzeko» lan-saioak antolatu ditu Plazaola Turismo Partzuergoak.

Plazaolaren irudiko, «batez ere, aldaketak oso nabariak izan dira eskaera turistikoan eta eskaera horri aurre egiteko moduetan» eta «hori gutxi baliatuz, pandemiak areagotu egin ditu aldaketa horiek». Pandemiaren garaian sortutako «egoera kezagarriak» oroiatarazi ditu, «besteak beste, gure inguruko negozio gehienek aurre egin behar izan dioten egoerazaila», baita «baliabide turistikoaren kontsumoan sortu diren egoerak» ere, hala nola, «bisitarien

pilaketak, ingurune naturalarekiko eta landa-ingurunearekiko errespetu falta, zaborrak, bertakoei eragozpenak...».

Honek guztiak «egungo turismo-eredua eta haren jasangarritasuna zalantzan jarri duela» uste du Partzuergoak eta horrek bultzatu du «iniziatiba hau egitera». Argi du zonaldeko turismoak «kalitatezko proiektuak behar dituela oinarrian» eta bide horretan, «zonaldeko herritar eta eragileekin iritzia» biltzeari ekin dio.

Hiru parte-hartze saio antolatu ditu eta aurrenekoa irailaren 28an egin zuten Larraunen. Bigarrena urriaren 19an eginen dute Basaburuan eta azkena urriaren 28an Leitzako Herri Aretoan, 15:30ean. Parte hartzeko plazaola@plazaola.org izena eman behar da. Online parte hartzeko aukera ere izanen da www.plazaola.org.

Cl@ve iraunkorra Leitzako udaletxean eska daiteke

Administrazio publikoarekin harremanetan jartzeko aukera ematen duen Cl@ve iraunkorra ateratzeko bulego izendatu dute Leitzako Udaletxea. Alta eman nahi duenak udaletxera joan behar du, nortasun agiriarekin; astelehenean ostiralera, 09:00etatik 13:00etara.

Leitzaldeko Egunean Behin taldea sortu dute

Tribial estiloko galdera-erantzunak biltzen dituen Egunean Behin jokoan Leitzaldekoentzat taldea sortu dute. Norbaitek interesa izanez gero, aplikazioan 5741B-kodea erabilita egin dezake. Egunean partida bakarra joka daiteke, 10 galderako sorta bati erantzunez

«Doluak sortzen dituen emozioei buruz oso gutxi hitz egiten dugu»

MIREN FAGOAGA IRURTIA LEITZAKO MARGOLARIA

Joan den urtean, dolu prozesu bete-betean, barruan zuena margolanen bitartez azaleratzen hasi zen Fagoaga. Lanekin erakusketak ere egin zituen eta pozik dago izandako erantzunarekin. Egindako bideak «asko lagundu» diola aitortu du

G. PIKABEA | LEITZA

Tristura, beldurra, haserrea, mina, hutsa, zuloa... Hori sentitu du Miren Fagoaga Irurtiak (Leitza, 1971) dolu prozesu bete-betean, eta aldi berean barruan sentitu zuen hori izan da margolanen bitartez adierazi eta erakutsi duena. Askotarako eman dio «sentitzen nuena paper gainean ikusteak», besteak beste, «neure burua hobeki ezagutzeko eta sentitzen nuena hobeki ulertzeko» atea ireki baitio, baina norberarentzat egindako lanak jendaurrean erakusteko pausoa ematea ere «oso lagungarria» egin zaio. Gehiago ere bada. Bere marrazkiak «jendearen marrazki bilakatu» direla dio, «asko identifikatuak sentitu» direlako. Egindako bidez eta doluaz gehiago hitz egiteko eta sakontzeko beharraz mintzatu da TTIPI-TTAPAREKIN. Margotzen segitzea du amets, eta horretarako ikasten ari da. Hori bai, doluari lotutako marrazkiak egiteari utzi dio.

Joan den urtean, margolanen bitartez doluan sentitutakoa azaleratu zenuen...

Bai, hala izan zen. Duela bi urte eta erdi bikotekidea hil zitzaidan eta dolu prozesu bete-betean sartu nintzen. Lagunekin, familiakoekin eta psikologoarekin gaiaz hitz egiten nuen, baina urtea pasatu arren, barruan atera ezin nuen zerbait nuela ikusten nuen. Marrazkien bitartez probatzen hasi nintzen

eta asko lagundu zidan. Hasieran barruan sentitzen nuena paper gainean jartzea pixka bat zaila izan zen, baina neure buruarekin lengoia berezi bat sortu nuenean, marrazkiak barrutik bat-batean ateratzen hasi zitzaizkidan, eta egunean marrazki bat egiten hasi nintzen. Orain denbora pasatu da eta urrutitik begiratuta, oso positiboa eta mesedegarria izan zela ondorioztatu dut.

Nolako emaitzak izan ziren?

Marrazkiak betitik egin izan dut, ikasketak arte eskoletan egin nituen, baina gehienbat bolumena lantzen nuen, eskultura. Joan den urtean, ordea, akuarela aukeratu nuen, ordu arte sekula erabili ez nuena eta teknika zehatz bat jarraitu gabe aritu nintzen. Hasteko, beti, paper zuriaren gainean emakume baten gorputza marrazten nuen eta hortik aurrera gorputz horretan gertatzen

zen guztia. Doluan gaudenean, gorputzean zulo bat sortzen da, nolabait esateko pixka bat hil egiten gara. Emakumearen gorputz zuri horretan zuloa marraztuz hasten nintzen eta zuloaren barrenean sentitzen nuenguztia, erraiak, saiheskiak, odola... Pixkanaka-pixkanaka, gaia psikologikoki landu ahal, zulo horretan hazi bat marrazten hasi nintzen, eta hazi horretatik landare bat. Azken batean, bizitzak aurrera segitzen du eta hazi horrekin bizitza berri hori irudikatu nahi nuen.

Dolu prozesuaren bilakaera ikusten da zure lanetan...

Bai, bai, nik uste argi ikusten dela. Lanak banaka-banaka, hasieratik bukaerara hartuta, alde nabaritzen da eta jendeak marrazkiak ikusi dituen ere hori esan izan dit. Hasierako marrazkiak gordinagoak dira, hutsagoak, gogorragoak, eta gerora egindakoak gero eta

leunagoak. Mina bizitza guztian sentituko dugu, baina ezin dugu bizitza guztia sufritzen egon. Bizitzan gauza onak eta txarrak daude eta denekin bizitzen ikasi behar da.

Tolosan, Leitza eta Iruñean erakusketak egin zenituen. Nolako erantzuna izan zuten?

Guztira 125-130 bat marrazki egin nituen, baina ez Tolosako erakusketan, ez Leitza eta Iruñekoan ere, hasierako marrazkiak ez nituen erakutsi, gordinagoak ziren eta zailagoa egiten zitzaidan... Tolosan 36 jarri nituen eta Leitza 45 bat. Erantzuna oso polita izan zen.

Nire barruko lanketa bat egiteko marrazten hasi nintzen, eta gero erakusteko gogoia sentitu nuen. Hasiera hartan, ingurukoei, lagunei, familiari... erakutsi nien zein erreakzio sortzen zuten ikusteko. Jendea identifikatua ikusi nuenean kalera atera eta erakusketak egitera animatu nintzen. Orokorrean oso erantzun positiboa hartu nuen. Gaiari buruz hitz egiteko aukera eman zidan, eta gehiago ere bai, nire mina eta sufrimendua paper gainean ikusteak pasatzen ari nintzena ulertzen lagundu zidan. Erakusketak jendeari doluari buruz hitz egiteko aukera ere eman zion. Azken batean denon mina antzekoa da, nik modu batera adieraziko ditut eta beste batek beste modura, baina denok pasatzen dugu dolua eta sentimenduak antzekoak dira.

Gauza bat da norberarentzat pintatzea eta bestea jendaurrean erakustea...

Zaila izan zen, eta oraindik zailagoa Leitza. Marrazkiak Tolosara eraman nituen, hasierako egunetan ezaguneri iruditu zitzaizkien galdetzeko aukera izan nuen. Baina gero, pandemia tarteko, muga itxi zuten eta hara joan ezinik gelditu nintzen, jendearen iritzia bildu ezinik. Ez nuen aurpegia eman beharrik izan eta alde horretatik errazagoa izan zen. Azken batean plazara biluzik atera nintzen eta ez nekien jendeak nola erreakzionatuko



'Dolu, barnehutsaren kolorea iruditan' erakusketan aurkeztu zuen lanetako bat.



Dolua inguruan margolanak egiteari utzi badio ere, marrazten segitzen du Miren Fagoagak.

zuen. Baina orain pozten naiz egin izanaz, oso harrera ona izan zuelako. Marrazkiak egiteko beharra barrutik atera zitzaidan eta erakusteko beharra ere dolu prozesuaren barruan sentitu nuen. Gerora ikusi nuen ez zela nire beharra bakarrik. Nire marrazkiak oso barnekoak eta oso nireak ziren, baina jendearen marrazki bilakatu ziren. **Dolua gaintzeko bidea aurkitu duzula erranen zenuke?**

Bai. Dolua egin behar da, bakoitzak bere modura, baina egin behar da eta nire kasuan hau izan zen hobeki pasatzeko eta neure burua hobeki eza-gutzeko aurkitu nuen bidea.

Dolua gaintu duzu?

Ez. Bi urte eta erdi pasatu dira eta asko nabaritzen da denbo-

ra pasatu dela. Oraindik ere baditut momentu gogorak, zulo barrenera sartu gabe, baina hurbiltzen naizen momentuak. Baina bizitzan aurrera jarraitu behar dugu, ezin dugu hor gelditu eta bi urte eta erdi beranduago, neure burua gehiago ezagutzen eta halako momentuak eramangarriago egiten ikasi dut. Bide horretan laguntzen duten gauza asko daude, marrazkiak, liburuak, abestiak... Nik asko irakurri dut

«MINA BETI IZANEN DUGU BAINA EZIN DUGU BETI SUFRITZEN EGON»

eta abesti batzuk askotan entzun ditut. Identifikatua sentitu izan naiz eta aldi berean, bakarrik ez nagoela ikusita babestuta. Beharbada nik abesti batekin sentitzen dudana, beste norbaitek nire marrazkiekin senti dezake.

Dolua gai tabua da?

Dolua emozioei buruz gainerik bakarrik aritzen gara, hoberena lehenbailehen pasatzea dela uste dugulako. Oso gutxi sakontzen dugu, eta be-

«NIRE MARRAZKIAK JENDEAREN MARRAZKI BILAKATU ZIREN»

rez oso erraza izan behar luke, guztiok sentitzen dugulako. Barruan daukaguna ateratzea zail egiten zaigulako, besteekin partekatzea kostatzen zaigulako, lotsagatik, ohitura faltagatik edo ez dakit zergatik ez dugu egiten. Sakonduko bagenu, terapia ona izanen litzateke. Badira dolua pasatzen laguntzen duten taldeak, eta horietan sentipenetan sakontzen dute, baina kalean, inguruan, askotan baita familian ere... oso zaila da holako kontuei buruz hitz egitea. Batzuetan iduri du kontu alaiak bakarrik esan behar ditugula eta pozik egon behar dugula... Baina bizitzaren beste aldeak ere hor dago, sufrimendua, eta hori ere erakutsi behar da.

Dolua inguruan marrazteari utzi eta ikasten hasi zara...

Bai, hori da. Dolua inguruan marrazki gehiago egiteak ez zuen zentzurik eta gehiago ez egitea erabaki nuen. Baina marrazteak izugarri lagundu dit eta bizitza gehiegi aldatzen ez bazait behintzat, margotzen segitu nahi dut, hori egiteko beharra sentitzen dut. Helburu horrekin akuarela nola erabili ikasten ari naiz. Ea egunen batean zerbait polita egiten dudana.

Geroztik nolako lanak egin dituzu?

Beti neure buruari uzten diot hitz egiten, eta erabat emakumeen bueltan nabil, emakumeak hainbat egoeratan marrazten. Baina horrekin zirkulu batean sartua nengo eta hortik ateratzeko udan akuarela ikastaro bat egin nuen. Ikastaroan deus ez dakidala konturatu naiz. Hala ere, lehen-go marrazkien helburua ez zen ongi marraztea, barruan nuen ateratzea baizik, eta nekienarekin nahikoa nuen hori egiteko. Orain, berriz, helburua ongi marraztea da, eta ongi egiteko ikasi beharra dago.

Ez da zure ogibidea... Baina gustatuko litzazuke hortik bizitzea? Bai, noski, gustatuko litzaidake, baina ilustrazioaren mundua oso ogibide zaila da.



Hondakinen hezkuntza-programaren aurkezpena Leitzako eskolan egin zuten.

BokatOna eta botila berrerabilgarriak banatu dituzte

Erleta, Xalto eta Nazabal eskoletako ikasle guztiei oparitu diete gosaria eramateko zorroa eta metalezko botila bana

TTIPI-TTAPA

Ikastetxeetan plastikozko ontzien eta bilgarrien erabilera murriztu nahi du Mendialdea Mankomunitateak eta horretarako ikastetxe eta familiekin elkarlanean, BokatOna eta botila berrerabilgarriak erabiltzea sustatu nahi dute. Mankomunitateko parte diren eskoletan jarri dute martxan ekimena eta Erleta, Xalto eta Nazabal eskoletako ikasle guztiei oparitu diete gosaria eramateko zorro eta metalezko botila berrerabilgarri bana.

Hondakin onena sortzen ez dena da kanpainaren leloa, hondakinak behar bezala kudeatzeko prebentzioak hondakinen sorreran duen garrantzian jarriaz azpimarra. BokatOna eta botila berrerabilgarria erabilita, hondakin gutxiago sortu, eskola-ingurunea garbiago zaindu eta ikasleak ingurumena babesteko eguneroko keinuek duten garrantzia jabetzea nahi dute. Horretarako irakasle-taldearen eta familien inplikazioa ezinbestekoa izanen da: «parte-har tze aktiborik gabe ezin izanen baitira lortu helburuak».

Leitzako Erleta ikastetxean, urriaren 1ean Nafarroako Gobernuak egin zuen hondakinei buruzko hezkuntza-programaren aurkezpen ekitaldi ofiziala baliatu zuten ikasleei BokatOna eta botila berrerabilgarriak banatzeko. Jesus M^a Rodriguez Toki Administrazio eta Despopulazioko zuzendariak, Mikel Zabaleta Leitzako alkateak, Fernando Mendoza Nafarroako Hondakinen Partzuergoko kudeatzaileak, Unai Miranda Mendialdeko Mankomunitateko lehendakariak eta Leitzako Erleta eta Aresoko Nazabal ikastetxeko hainbat ikaslek hartu zuten parte jardunaldian. Bertan azaldu zuten gaur-gaurkoz Nafarroako ikastetxeetan sortzen diren hondakin guztien % 60 plastikozko ontziak direla.

Ikasleek jostetan ikasteko aukera ere izan zuten: astebetean hamaiketakoekin sortzen diren hondakinak bereizi zituzten, uraren dastatze itsu bat egin zuten inguruko lau iturburutako ura eta botilaratutako bi marken ura alderatuz eta hondakinekin herri kirol jolas bat ere egin zuten.

Medikuaren kontsultategia berri du udalak

Osasun Departamentuak emandako dirulaguntzarekin lurra aldatu, sarrera konpondu eta atea berri du

TTIPI-TTAPA

Itxura berria hartu du medikuaren kontsultategiak. Bi astez itxita egon zen, eta tarte horretan herritarrek Goizuetara joan behar izan zuten. Baina urriaren 6an berri zabaldu zituzten zaharberri-tako kontsultategiko atea eta Goizuetako medikua herrira

etortzen da berri ere, ohi bezala, asteazkenetan. Joxan Ruiz alkatearen arabera, «zaharkitua zegoen eta irristakorra zen lurra aldatu dute, arranpa egokituz sarrera konpondu dute eta atea berri duzute». Nafarroako Gobernuak emandako 12.358,79 euroko dirulaguntzarekin egin dituzte lan hauek.



Kontsultategiko atea eta sarrera moldatu dute. JOXAN RUIZ

Araztegi berria 2022ko udazkenerako

Nafarroako Gobernuak 492.540,90 euroko inbertsioa egingen du araztegi biologikoa eraikitzeko eta, printzipioz, aurreko urtean beharrezko lanak hurrengo urtean egitea aurrekusi du gobernuak. Lizitazioa atera dute lanak esleitzeko eta urriaren 18ra arte irekia egonen da. Udalarekin elkarlanean, orain dagoen hobi septikoa bota eta Sagarbakoitzen egingen dute araztegia. Goiko eta Beheko Herriaren arteko lotura, Beheko Herriatik araztegirako hustubidea eta araztegi sarrubidea ere egingen dituzte.

Musika eta yoga ikastaroak martxan dira

Aurreko astean, urriaren 6an, hasi zituzten yoga eta musika ikastaroak eta ikasturtea bukatu arte astean egun batean, asteazkenetan, elkartuko dira. Alde batetik, haurrak Jon Mari Beasainekin biltzen dira musika eskolak hartzeko, asteazkenetan 18:00etatik 19:00etara, Maisuenean. Bestetik, yoga ikastaroa hainbat adinetako herritarrei irekia da eta Iñaki Roteta dute irakasle. Asteazkenero 19:30etik 20:45era izaten dute hitzordua, hau ere Maisuenean. Interesa dutenek badakite zer egin!

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Tokiko komertziook elkarri lagundu behar diogu»

ARRATE LEIZEAGA UNSAIN
ARRATE - DONEZTEBE



2010ean ireki zuen Arrate Leizeagak estetika zentroa Donezteben. «Estetikako goi-maila ikasi nuen eta garbi nuen ikasketak akituta nire kabuz lan egiten saiatuko nintzela».

Pausoa eman zuen eta «funtzionatu egin du». Eskaintza zabaldua dute Arraten; «depilazioa, masajeak, aurpegiko tratamenduak, gorputzekoak, manikura, pedikura, hainbat makina...». Gorputza eta aurpegia lantzen dituzte bertan, baina «nire espezialitatea makillajea da». Doneztebeko merkataria eta zerbitzuen elkarteko kidea da Arrate. «Tokiko komertzioak elkarrekin egotea hagitz inportantea da. Askotan konpetentziaz hartzen gaituzte baina ez gara, bakoitzak bere arazoak ditu eta elkarri lagundu behar diogu». Bezeroekin ere kontent dago Leizeaga, «nigan duten konfiantza eskertu nahi nieke».



«Aro digitalera moldatu behar izan dugu»

JESU IRIARTE IPARREA
ZALDUA - ELIZONDO



1973an ireki zuten Jesu Iriartek eta Ignacio Zalduak argazki-denda Elizondon. Geroztik, gauzak aunitz aldatu dira; «orduan argazki guztiak zuri-beltzean ziren eta hemen bertan errebelatzen genituen, laborategian». 1983an Donezteben ireki zuten bigarren argazki-denda, «Malerrekan eta Bidasoa inguruan lan aunitz egiten genituen eta zerbitzu hobea eman nahi genuen». Denetarik egiten dute Zalduan, «ezkontzak gehienbat, baita bataioak, erreportaje orokorrak, estudiokoak... ere». Markoztatzeak ere egiten dituzte, «argazki akabera guztiek». Aro digitalera moldatu behar izan dute eta web orri bat sortu dute; «argazkiak eta erreportajeak egin ondotik, hor paratzen ditugu, jendeak etxetik lasai-lasai aukeratu ditzan hona etorri beharrik izan gabe».



«Uste baino jende gehiagok eman du izena aurten»

MIREN LATASA BARBERENA
ANIKOTE KIROLDEGIA - LEITZA



2016an hasi zen Anikote kirol zerbitzua ematen Leitza. Geroztik «asko aldatu da, gero eta aniztasun handiagoa daukagu bai zerbitzuen aldetik baita jendearen aldetik ere». Irailean egin zuten aurtengo ikastaroko izen-ematea eta emaitza espero baino hobea izan da, «jende asko apuntatu da». Kirolak, jarduerak eta haurrentzako, gazteentzako, helduentzako eta adinekoentzako ikastarokak dituzte. Gainera, *les mills* jarduera sorta da aurtengo berritasuna; «*body pump* eta *body combat* ikastarokak». Honez gain, *spinning*eko saio birtualak eginen dituzte, «monitore fisikorik gabe, pantaila baten bidez izanen dute saioa». «Jendeak normaltasuna behar du», eta lortzen ari gara. «Gero eta jende gehiago hasi da leku itxietara sartzen, hori guretzako premia zena».



«Produktu aukera ugariagoa eta kalitate hobea dugu orain»

BEÑAT TABERNA TELLETXEA
MANUEL TABERNA - BERA



70 urtez aritu da Taberna banatzailea Baztan-Bidasoko jatetxe, ostatu, benta eta dendei edariak saltzen. Manuel Taberna, «atatxi», hasi zen negozioarekin; «zaldi eta karroarekin ardoa eta pentsua etxetik saltzen zuen egunero Alkaigatik Zalain Zokora». Produktuak aunitz aldatu dira geroztik, «orain ardoak, garagardoak, likoreak, cava... saltzen ditugu, aukera ugariagoa da eta kalitatea hobea». Lehenbiziko markak bertako produktuak dituzte «Nafarroako ardoak, inguruko ura... hemengo produktuak saltzen saiatzen gara». Whiskia eta ginebra daude modan orain, «eta ematen duenez, bermuta ere hasiko da. Hiri handietan hasten dira modak, handik hiri txikietara, eta azkenean herrietara ailegatzen dira».



Mikel Altzuart arizkundarrak «kakotx arteko arazo batekin mundua gelditzea lortu» dutela salatu du.

«Hau esperimentu bat da, bertsio ofiziala gezurrez beteta dago»

MIKEL ALTZUART ZALDAIN BIZITZA PLATAFORMAKO KIDEA

«Farmazia-industriak irabaziak egiteko» ez ezik, pandemia «jendartea erabat transformatzeko» tresna bat dela uste du Altzuartek. Bere irudiko, «hau esperimentazio bat da eta komunikabideak bidelagun izan dituzte»

G. PIKABEA | ARIZKUN

«Azken urte eta erdian izan dugun egoerari erantzun antolatua» emateko Euskal Herriko hainbat bazterretako herritarrek Bizitza plataforma sortu dute, etahorko kidea da Mikel Altzuart Zaldain (Arizkun, 1971). Konbentziturik dago pandemiaren bueltan emandako «bertsio ofiziala ez dela zuzena». Are gehiago, «gezurrez beteta» dagoela dio eta «horren gibeletik dagoena» azaleratu nahi dute Bizitza plataforman, «osasuna eta askatasuna» aldarrikatuz. Altzuartek hitzetan «txertoa ez da deus saihesteko, zerbait sortzeko da», eta «lehenago edo beranduago ohartuko gara».

Nolako erantzuna izan dute orain arteko mobilizazioek?

Bertsio ofizialak duen indarra eta komunikabide guztietan hori bertzerik agertzen ez dela ikusita, guk ditugun tresnak ez dira hain indartsuak, baina jende pixka bat mugitzea lortu dugu. Uztailean plazaz plaza dinamika eta Donostian manifestazio jendetsua egin genituen; irailean egindako Irun eta Hendaia arteko besarkadan jende ugari bildu zen eta Iruñean egindako manifestazioa jende aldetik ez zen handia izan, baina kualitatiboki inportantea izan zen, kontuan hartuta gai honekin Nafarroan erantzun sozial tikiagoa izan

dela. Arras ongi atera zen baina ez da inon agertu. Hori ere ohikoa da. Agertzen bagara gutaz gaizki solastatzeko da, eta aldi honetan hori ere ez.

Bertsio ofiziala ez dela zuzena diozu. Zein da zure ustez egia?

Egia osotasunean ez dugu jakin, baina bertsio ofiziala gezurrez beteta dago, maila guztietan. Maila zientifikoan, erraterako, ez dute kontrastatu nahi eritasuna zer den, zerk sortu duen, bere tratamendua, txertoak deitzen diren esperimentu genetikoaren ondorioak... Guztiaren gibelean munduaren aldaketa soziopolitikoak helburu duen globalizazio agenda bat dago, eta hori bizkortzeko

pandemia erabili dute. Helburua ez da farmazia-industriak diru pila irabazteko mekanismoa martxan paratzea bakarrik izan, horrekin batera jendartearen kontrola areagotu nahi dute, eskubide sozialak murriztu... Hau esperimentazio bat da eta komunikabideak bidelagun izan dituzte. Munduko bost komunikabide agentzia nagusiak eta farmazia-industria inbertsio fondo beren esku daude eta Munduko Osasun Erakundea horren parte da. Hor dauden fundazio filantropiko guztiek eta farmazia-industriak jendearen osasuna bereganatu nahi dute. Munduko botiken agentzia guztiak farmazia-industriak finantzatzen ditu, baita medikuen kolegio guztiak ere. Ez zaie deus inporta jendearen osasuna. Dena negoziatzen da.

Txertoen eraginaz ez zara fio...

Txertoak edo terapia genikoak arma biologiko bat baino ez dira. Txertoen edo terapia genikoen konposizioa frogatu gabe jendearekin zuzenean probatu dute. Zerbaiti soluzioa bilatzeko direla erran digute baina ez dute erraten zenbat arazo sortzen ari diren. Farmazia-industriak ez du inoiz onartu botikak gaixotasunen sorburu izan daitezkeela, hori ondotik frogatu ahal izan da. Baina zenbat botika erretiratu ote dituzte. Txertoak eta gainetarako terapia hauek bide bereetik doaz, ez dira inor sendatzeko. Horregatik erraten dute ez dutela kutsatzea eta gaixotasuna prebenitzen. Prestigio handiko ikertzaileek ohartarazi dute arriskuak, eta ondorioak epe ertainean edo luzean ikusiko direla. Baina halakoak baztertu egiten dituzte. Ez du zentzurik egiten ari direnak, ez bada aitzinetik planifikatutako esperimentu bat. Mundu mailan orain arte antolatuta duten giza eskubideen kontrako atentaturik handiena da.

Nafarroan farmazia-industriak agintzen duela erran izan duzu...

Nafarroan agintzen duena ez da Maria Txibite presidentea.

Herralde guztietan multinazionalak agintzen dute, eta gurean Volkswagenek eta Cinfak. Nafarroako Gobernuak diru publikoa horrat bideratzen du, edozein proiektu dela ere. Kasu honetan, kakotx arteko arazo batekin mundua gelditzea lortu dute. Farmazia-industriak alimaleko indarra hartu du eta txertoekin medikuntza moderna eta pertsonalizatua garatu nahi dute. Horretarako, ordea, jendarte gaixoa behar dute eta neurri handi batean lortu dute, bai gorputzez bai buruz. Horregatik erraten dut farmaziek kontrolatzen dutela gure osasun mentala eta gure gorputzaren osasuna. Cinfako lehen-dakariak berak erran zuen lehenago edo beranduago denok gaixoa izanen garela, denok beraien bezero izanen garela. Jendarte materialista eta kontsumista honetan osasuna bertze merkantzia bat da, gaixoa behar dituzte. Argi dago ez dela egiazko zientziarik egiten. Egiazko zientziak jendearen bizimodua hobetzeko helburua behar luke, baina jendea manipulatzen erabiltzen dute.

Aspaldiko historia dela uste duzu? Arma biologikoa erabiltzeko asmoa aspaldikoa da, lehen ere esperimenduak egin izan dituzte, hala nola, hegaztien gripearekin. Bide honetan biologiarren ikuspegi oker bat sartu digute: ingurumena kaltetzen ari garela eta eritasunak animalietatik pertsonetara doazela. Hori ez da horrela, birusak laborategietatik datoz. Txertoak animalien eta pertsonen ehunak esperimendatuz egiten dituzte eta naturak ez du berez espezieen arteko muga gainditu, hori laborategietan egiten dute. Kasu honetan zoonosia erabiltzen ari dira jendea menpean atxikitzeko, eta hori mundu ekologistak ere irentsi du. Pandemia tresna bat baino ez da, gehiago ere erabiliko dituzte: zibererasoak, larrialdi klimatikoak.... Etorkizunean ez dute misilen beharrik izanen, helburua bertze modu batera lor dezakete.



Iruñean egindako manifestazioaren bukaerako ekitaldian, Aitzuarterek –ezkerretik hasita hirugarrena– hitza hartu zuen.

Baina herritarren gehiengoak txertoa hartu du...

Adin guztietako jendea tranpan erortzen ari da, jakin gabe txertoen eragina zein izanen den. Politika eta bizi soziala bertze modu batera ulertzera ohituta gaude, eta gu bertze kontuetan distraituak gauden bitartean, gibelean esku beltz bat dago. Larrialdi klimatikoa da horren adibide. Larrialdi klimatikoa gertatzen ari dela sinetsarazi nahi digute, eta horrekin hidrogenoa garatu nahi dute, bazter guztiak eolikoz eta eguzki panelez estali... Gure sentsibilitatean eragiteko komunikabideak erabiltzen dituzte. Orain txertoa hartu ez deitenei deitzen hasi dira. Deitzen badidate farmazia-enpresek txertoen bigarren mailako ondorioez ohartaraziz egindako zerrenda leituko diet, larritasun handikoak direlako, tartean heriotza.

Nola ikusten duzu osasun sistema?

Dezepzio ikaragarria hartu dut osasun munduarekin. Gure osasunaz ari zirela uste nuen, baina lotsagarria da. Ez dakite deus biologiarri buruz, ezta mikrobiologiarri buruz ere. Mikroorganismoak gaixotasunen sortzaile direla sinetsarazi digute eta guri mikrobioek eman digute bizia, mikrobioz beteta dago gure inguru guztia. Poli-

tiko ustelez solas egiten dugu, baina nork ez du bere burua saltzen? Bai kazetariak, baita hezkuntzan ari direnek ere. Gainetik agindutako protokoloak isil-isilik betetzen dituzte. Eta zientzian ere ustelkeria dago. Botikak onartzen dituzten agentziak farmazia-industrian lan egin dutenak edo lan egingen dutenak dira.

Zuretzat zein da txertoa ez den bidea?

Ez zegoen txertoen beharrik. Hasieran egia jakitea oztopatu bazuten ere, gerora jakin zen ez zela arnas aparatuko birusa, zerbaitek koaguluak sortzen zituela. Medikuntzak hori gaintzeko tresnak sobran ditu. Badira aunitzez ere eritasun larriagoak. Honek apenas eragin du heriotza-tasan, gripea baino gutiago, baina komunikabideen bitartez beldurra erabili dute. Aginte foroetan daudenek erran zuten zaharrak sobran zeudela, eta 2020ko udaberrian horixe egin zuten. Bistan da, osasuna gure esku dago. Egiazko burujabetza politikoa norberaren osasunaren jabe eginda lortuko dugu, hau da, norbere burua zainduz eta ingurukoena zaintzen saiatuz. Hori ez digute fundazio filantropikoei eta Osasunaren Mundu Erakundeak egin behar.

Azken aldian haur eta gazteengan jarri duzue arreta...

Gazteengan esterilizazioa dute helburu, espiga proteina esterilizatzeko diseinatua baitago. Gainera, gazteengan arazoak sortzen dituzte: perikarditisa, miokarditisa... Haurrek, berriz, ez dute kutsatzen, baina kutsatu nahi dituzte. Jendeak txertatuta ez dela gaixotzen erranen du, baina gure gorputza ikaragarria da eta desintoxikatzen mekanismoak ditu. Txertoa ez da deus saihesteko, bertze zerbaitei sortzeko da, eta ez badugu arrazoirik hobe.

Zerbaitei gaineratuko zenuke?

Gaia arras konplexua da. Ikuspegi hau barneratzeko itreak beharko ditugu, baina lehenago edo beranduago ohartuko gara. Zenbat eta jende helduago izan orduan eta gehiago kostako zaigu ulertzea eta bereziki sistemak doktrinatuakoei kostako zaie, horien artean zientzia arlokoei, unibertsitatean ematen den doktrinamenduarekin errealtatearen pertzepzio interesatua egiten baita. Uste nuen pandemiak farmazien kapritxoak zirela, baina gibelean dagoena aise itsusagoa da, erabat transformatu nahi gaituzte. Jendarte honek bertze oinarri batzuk behar ditu. Etorkizuna etxean, inguruan eta herrian eraiki behar dugu, oinarri garbiekin, lurra zainduz, eta gure elikagaiak, elkatasuna, maitasuna eta askatasuna bermatuz. Bidea luzea izanen da eta elkarrekin egon behar dugu; elkarrekin aterako dugu guztia aitzinera.

«JENDEA MENPEAN ATXIKITZEKO ZONOSIA ARI DIRA ERABILTZEN»

«TXERTO ARI DIRA DEUS SAIHESTEKO, BERTZE ZERBAITEI SORTZEKO BAIZIK»

Zahar Etxea kudeatzeko enpresa publiko berria

Irailaren 23ko bilkuran 3.300 euroko aurrekontu moldaketa onartu zuen udalbatzak enpresaren kapital sozialerako

TTIPI-TTAPA

Francisco Joaquin Iriarte zahar etxea kudeatuko duen enpresa publikoaren sorreran pauso berri bat eman du udalbatzak. Enpresaren kapital soziala osatzeko, 3.300euroko aurrekontu moldaketa egitea erabaki zuten hautetsiek, EH Bildu, Ezkerra eta Geroa Bairen aldeko bederatz botorekin eta Navarra Sumaren kontrako hiru botoekin. Aurrekontuaren moldaketa egiteko erabakia ikusgai egonen da udaleko oholean 15 egunez eta indarrean sartuko da ondotik.

Uztailaren 22an enpresa publikoaren estatutuei eta

memoria teknikoari hasierako onespina eman zien udalbatzak, eta aurrekontuaren moldaketa indarrean sartzean, estatutuak eta memoria teknikoa behin betiko onartzen ahalko dituzte.

Bertzalde, irailaren 21ean Eskubide Sozialen Departamentuko kontseilaria, Mari Carmen Maeztu, udaleko ordezkariekin bildu zen zahar etxearen berritze proiektuaren berri izateko. Udaleko ordezkariak berritzearen idazketa erakutsi ahal izan zioten. Orain, igogailuak aldatzeko lanak hasi dituzte zahar etxean, 73.858,88 euroko aurrekontuarekin.

Jon Karrikaburuk debuta egin du Europan Realarekin

Bere kirol ibilbidean urrats handia eman du elbetearrak, Realak Monakoren kontra irailaren 30ean jokatuak *Europa League*ko partidaren azken minutuak jokatu baitzituen. Donostiako taldeak bana berdindu zuen Monakoren kontra Anoetan eta azken minutuetan zelairatu zuen Imanol Alguacil entrenatzaileak Karrikaburu, garaipenaren golaren bila, baina ez zen posible izan.



MAITANE MARITORENA

Giro ederra izan dute Anizko bestetan

MAITANE MARITORENA

Urte eta erdiren buruan lege murriztaileak bertan behera utzita, Anizko bestak ospatzeko aukera izan dugu. Ortziralean suziriak bota, bestetako blusa azula soinean paratu, eta Oihanek eta Mainerrek egin zuten hrrian barnako itzuliarekin hasi genituen bestak. Ondotik frontenis txapelketa izan zuten hurrek, eta gazteek zopak.

Larunbatean Arabako Jare dantza taldeak ikuskizun polita eman zuen goizean. Bazkaldu eta gero, musa, boneta jaurtiketa eta jostetak.

Igandean, urtero bezala, paella lehiaketa izan zen, baina haurrak izan ziren prestatzaileak. Gero, zirku ikuskizun ederra egin zuten hurrek, eta ondotik bingoa. Akitzeko, gorputza mugitzeko aukera izan genuen Hauspolariekin,

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---

Erratzuko aparkalekua egiteko lurrak trukean jasoko ditu Udalak

25.819 metro koadroko lur eremua erdietsi du 14.653 metro herri-lurren truke

FERNANDO ANBUSTEGI

Nafarroako Gobernuak Pertalats eta Utsalea parajeetako 14.653 metro koadro herri-lurren desafektazioa onartzeko akordioa hartu du berriki. Herri-lur horiek 25.819 metro koadroko jabetza partikularreko bertze lursail batekin trukatuko ditu. Jarduerak elkarrekin interesa du, izan ere, udalak lursail bat lortuko du Erratzuko sarreran, aparkaleku bat eraikitzeko, eta haraneko komunala handituko du. Partikularrak, lursail berean bilduko ditu bere jabetzak. Erratzu-

ko herri sarreran egin nahi den aparkalekuak azken urteetan herrian aunitz hazi den bisitari kopuruak eragindako egoera erregularizatzea du helburu. Bisitarien igoyeraren ondorioz, Baztango udalak eta Erratzuko herriak hainbat neurri hartu behar izan dituzte azken aldian. Hasteko, herritarrek herritik Xorroxingo ur jauzirako bide berri bat egokitu zuten auzolanen. Hala, Gorostapoloko ohiko bidea alde batera utzi eta Gorostapoloko auzoan eta Erratzuko erdigunean kotxe piletaketak saihestea lortu zen.

Jubilatuendako tailerrak antolatu dituzte herrietan

Harremana jubilatuta eta pensionisten elkarrekin hainbat tailer antolatu ditu urrian eta azaroan. Arizkun zahartze aktiborako musikoterapia tailerra egin du Haizea Loirak. Azaroaren 11 arte, ortzegun arratsaldetan medikuaren etxean elkartzen dira 16:00etatik 17:30era. Erratzun eskulan tailerra egiteko elkartzen dira astearte arratsaldetan, 16:00etatik 18:00etara, Amaia Iriondo-ekin. Elizondon, Edurne Garrok jubiloteka zerbitzua eta memoria tailerra eskaini ditu jubilatuentzako. Asteazkenean 16:00etatik 18:00etara eta ortzegun 16:00etatik 17:00etara Arizkunenea kultur etxean elkartzen dira. Ekintzei buruzko informazio gehiago lortzeko, deitu 659 84 95 70 (Amaia) edo 647 99 23 50 (Edurne) telefono zenbakietara.

Josetxo Zaldua Lasa Elizondoko kazetaria Mexikon hil da

'Egin' egunkariko argazkilari izan zen, ETako kide izatea leporatuta ihes egin behar izan zuen arte 1978an. Mexikora egin zuen salto eta bertan 'La Jornada' egunkariko sortzaileetako bat eta koordinatzaile nagusia zen irailaren 28an 70 urterekin hil zen arte.

'Baztertuak' erakusketa ikusgai Arizkunenean

El Salvadorreko adineko jendearen egoera latza eta landa eremuetako pobrezia salatzen duen argazki-kazetaritzako erakusketa ikusgai dago urrian Elizondoko Kultur etxean. Ikasleendako bisita gidatuak eta protagonistekin topaketa birtualak egingen dituzte.



Erratzuko Ubidea etorbidea da oraingoz behin behineko aparkalekua. ONDIKOL

Gorostapolora ez ezik, Inarbil auzorako sarbidea ere debekatu zen eta herriko sarreran dagoen Ubidea etorbidean behin behineko aparkaleku bat egokitu zen bisitariendako. Aparkalekua egokitzeaz gain, hainbat langile kontratatu dira goi denboraldian, trafikoa erregularizatzeko.

Nafarroako Gobernuak onarturiko desafektazioarekin, behin betikoa izanen den aparkalekua egingen da eta horrela, herrira datozen bisitari kopuru handiak eragin-dako egoera erregularizatzea lortu nahi da.

Leyre Perezen margo erakusketa Elizondon

Elizondoko Jaime Urrutia karrikako 52. zenbakian *Mila-Ananda* erakusketak irekita segitzen du, eta orain Leyre Perezen margoak ere ikusgai egonen dira azaroaren 6ra arte. Erakusgela astegun 18:00etatik 20:00etara bisitatu daiteke, larunbatetan goiz eta arratsaldean (11:30-13:30 eta 18:00-20:00) eta igandetan goizez (11:30-13:30).

Agefor formación

ZERBITZARI IKASTARO PRESENTZIALA LEKAROZEN

Diruz lagundutako prestakuntza ikastaroa 2021
batez ere langabetuei zuzenduta.

IKASTAROAREN EDUKIA

<ul style="list-style-type: none"> • Barrako zerbitzaria. • Jangelako zerbitzaria. • Plater konbinatuak eta pintxoak prestatzea. • Lan arriskuen prebentzioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • IKTak. • Berdintasuna. • Lan orientabidea. • Laneko praktikak.
---	---

676 35 08 52
608 07 00 70
infoagefor@gmail.com
www.cursosagefor.es

% 100 diruz lagunduta:

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua

Amaiurtarrak sokari tiratzen hasteko prest

ANE GOIENETXE URRUTIA AMAIURKO SOKATIRA TALDEA

Amaiurren ez da sokatira talderik izan azken sei urteetan. Gazte kuadrilla batek hori aldatzea erabaki du, eta sokatirako grina berpiztu du herrian



Hainbat herritako neskek elkartu dira Amaiurko Sokatira Taldea osatzeko. UTZITAKOIA

R. OSKARIZ | AMAIUR

«Etxean denbora gutti pasatzen duen 23 urteko amaiurtarra» da Ane Goienetxe Urrutia (Amaiur, 1998). Hainbat urtez aritu da Txantreako sokatira taldean, baina herrian aukera ikusi duenean, gazteak mobilizatu ditu eta entrenatzen hasi dira berriz ere, emakumeak zein gizonak.

Zein izan da zure ibilbidea sokatiran?

Duela zazpi urte inguru probatu nuen lehen aldiz sokatira Amaiurren. Bertze neska batzuek nesken taldea berreskuratzea proposatu zidaten eta nik ez nuen zalantzarik izan animatzeko. Baina, zoriturrez, ez genuen taldea aitzinerat ateratzea lortu eta

sokatiran segitzeko gogoarekin gelditu nintzen. Hortaz, duela bost urte, Iruñera ikastera joan nintzelarik, Txantrea sokatira taldean hasia erabaki nuen. Hor egin ditut azken bost urteak eta orain, duela lau hilabete inguru, berriz Amaiurrera itzuli naiz. **Zergatik desagertu zen herriko sokatira taldea?**

Amaiurren duela sei urte izan zen azken aldiz sokatira taldea, eta hau jende faltagatik desa-

«JENDE AUNITZEN KONPROMISOA ESKATZEN DU SOKATIRAK»

gertu zen. Sokatirak, taldeko kirola izanik, jende aunitzen konpromisoa eskatzen du.

Zergatik erabaki duzue aurten bueltatzea?

Amaiurren aspalditik baziren sokatiran hasteko gogoz zeudenak, baina erran daiteke inork ez zuela lehen pausua ematen. Azkenean, ikusita geroz eta gehiago zirela probatzeko gogoz zeudenak, entrenamendu egunak paratzea erabaki genuen. Eta ez amaiur-

«HERRIAN ILUSIOA ETA INTERESA PIZTU DU TALDEA BUELTATZEAK»

tarrak bakarrik, izan ere, lehenagotik ere bertze herritako neska batzuk aipatua zidaten sokatira probatu nahiko lukeela. Entrenamenduen berri zabaldu genuen ingurukoaren artean eta orduantxe abiatu genuen berriz ere sokatira taldea.

Jendea erraz animatu da?

Sokatira taldea birsortzeko egin genituen lehen entrenamenduen berri ahoz aho eman genien ingurukoari eta aitortu beharra dut hasieran nik uste nuena baino jende gehiago animatu zela probatzera, batez ere emakumezkoak. Hasierako hilabeteetan sokatira probatzen ibili direnak dezentte izan badira ere, aunitzek lana, ikasketak... direla eta ezin izan dute segitu. Baina momentuz taldean gelditu garenak motibatuak eta ikasketeko gogoz gaudela erranen nuke.

Bi talde sortu dituzue, ezta?

Sokatira taldearen barnean emakumezkoak eta gizonzkoak gaude. Normalean ez dugu egun berean entrenatzen, baina noizbehinka denak batera entrenatzen saiatzen gara, elkarri laguntzeko.

Taldeakide guztiak amaiurtarrak zarete?

Mutilen taldean gehienak amaiurtarrak dira, baina nesken taldean hainbat herritakoak gaude. Talde gaztea elkartu gara eta denetarik badugu, batzuk lehendik sokatiran aritzeko aukera izan dugunak eta bertze batzuk berriak.

Nola entrenatzen duzue?

Gure entrenamenduak frontoian dagoen polea baten aurka egiten ditugu, eta hor elkartzen gara astean bitan, asteazken eta ortziraletan neskek eta astelehen eta ortzegunetan mutilak. Normalean, lehendik aritutako bat laguntzera etortzen bada ere, momentuz ez dugu entrentzaile ofizialik eta gure artean moldatu behar izaten dugu. Norbait animatuz gero ongi etorria izanen da!

Taldea zeretik hasi behar izan duzue horrek dakarren gastu ekonomikoarekin...

Bai, izan ere tiratzeko zapatila, poloak... dena berriz erosten ari gara eta horrek gastu ekonomiko nahiko handia suposatzen digu. Gastu hauei aurre egiteko norberak bere sakelatik dirua paratzeaz gain, diru bilketa bat abiatu dugu jendeari bere borondatea eskatuz. Horretarako eltzetsu batzuk paratu ditugu Baztango hainbat ostatutan; Amaiurren, Elizondoko Intzan eta Mendin, Lekarozko Hiruitturrin... Hemendik eskerrak eman nahi dizkizuegu laguntza ematen ari zareten guziei. Mila esker!

Lehenengo materiala aprobetxatu ahal izan duzue?

Bai, frontoian lehenengo taldeak zituen polea eta gomak zeuden eta gu ere material horrekin entrenatzen gara. Honek aunitz erraztu digu taldearekin hastera.



Frontoian dagoen polea baten kontra entrenatzen dute. UTZITAKOIA

Eta lehenagoko tiralariak ere animatu al dira?

Azken urteetan aritutako gazte batzuk bueltatu dira bai, ea gehiago animatzen diren!

Herrira ilusioa bueltatu da?

Amaiurko sokatira taldea ezaguna izan da urte aunitzez eta ondorioz, herrian sokatirako

afizio handia dagoela erranen nuke. Taldea bueltatzeak ilusioa eta interesa piztu du, izan ere, beti badago norbait frontoian entrenamenduak ikusten. Herriko 14-16 urteko gazteek gure entrenamendu batzuk ikusi ondotik haiek ere hasiak dira sokatiran.

Etorkizunean txapelketaren batean parte hartzeko asmorik duzue?

Etorkizun hurbilean, urri-azaroan izanen den Nafarroako Sokatira Txapelketan parte hartuko dugu, emakumezkoen kategorian, gizonetzkoetan eta mistoan. Txapelketan parte hartzearekin dugun helburu bakarra ikastea izanen da. Eta hortik aitzinera sokatiraz disfrutatzen eta ikasten segituko dugu, talde hasi berria izanik aunitz baitugu ikasteko.

Zer erranen zenieke sokatira probatzeko gogoz daudenei?

Zalantzarik gabe, sokatira ezagutzeko kuriositatea duten guztiak probatzera animatuko nituzke, baina ez daitezela lehenabiziko entrenamenduarekin gelditu! Entrenamendu batzuk egin ondotik gustua hartzen zaio, eta gero ez da erraz uzten. Dударik gabe, taldea nahi duten guztiendako irekia dago!

DESKONTUAK

BAZTAN TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA eskeletan eta orogarrietan</p> <p style="font-size: 8px;">Koskontako bidea, 7-1 LESAKA T. 948 63 54 58 bagoaz@ttipi.eus</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA kopia handitzetan</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA produktuetan</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91</p>		
<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%15</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA frenoetan</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA baterietan</p> <p style="font-size: 8px;">Zaldubia indus. B partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%5</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA olio aldaketetan</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%5 %10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA edo OPARIA bainurako gaietan</p> <p style="font-size: 8px;">T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%25</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan</p> <p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%5</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA borts saioko bonoetan</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 14 - 3B ELIZONDO T. 636 58 30 34</p>
<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA kartan, txartela duenari</p> <p style="font-size: 8px;">Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%5</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoan</p> <p style="font-size: 8px;">Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%10</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu libururak eta DVDak izan ezik</p> <p style="font-size: 8px;">Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">DESKONTUA</p> <p style="font-size: 10px;">Belaurreko graduatu pare bat errosterakoan, graduazio bereko bertzte bat doan</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 24px; color: white;">%100eko</p> <p style="font-size: 10px;">DESKONTUA Beila-gelaren erabileran</p> <p style="font-size: 8px;">*Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitartekoek txartela fisikoki aurkeztu beharko dute.</p> <p style="font-size: 8px;">Santiago, 52 ELIZONDO T. 948 63 74 04 T. 948 19 70 70</p>

«Modu kontrolatuan eginez gero parkourra ez da arriskutsua»

AIMAR OBREGOZO MARTIRENA ELIZONDOKO PARKOURLARIA

15 urterekin bertzerik ez ditu, baina elizondoar gazteak argi du zer duen gustuko, eta azken txapelketan erakutsi du ez duela batere gaizki egiten

R. OSKARIZ | ELIZONDO

«Adrenalinarekin zerikusia duen guzia» gustuko duen mutikoa da Aimar Obregozo Martirena (Elizondo, 2006). Gimnasia eta parkour egiten ditu eta Espainiako Parkour Txapelketan parte hartu du berriki. Espero ez zuen emaitza lortu du.

Noiz hasi zinen gimnasia egiten?

Betik gustatu izan zait gimnasia, baina ez nekien non egiten ahal nuen. Duela bi urte eta erdi aukera eman zidaten eta apuntatu nintzen.

Eta parkourrarekin?

Parkourrarekin duela bortz edo sei urte hasi nintzen. Lagun baten anaiak egiten zuten, gustatu zitzaigun eta gu ere hasi gin.

Harremana duten bi kirol direla erranen zenuke?

Bietan txiribueltak egiten dira, baina ez dute bertze antzekotasunik. Gimnasia gimnasioan bakarrik egiten da, modu



Bigarren postua lortu du txapelketan, lehenbizikoarekin berdinduta. UTZITAKOA

zehatz batean egin behar da, bertzenaz gaizki dagoelako, eta urte guzia txapelketa batean egin behar duzuna prestatzen egon behar duzu. Parkourrean,

berriz, bakoitzak bere estiloa du, edozein lekutan egiten ahal da eta txapelketetan arras denbora guti izaten da prestatzeko. Iraileko txapelketan,

adibidez, 20 minutu bakarrik izan genituen.

Irailaren 17tik 19ra Nafarroa Arenan Espainiako Parkour Txapelketan parte hartu zenuen. Zure lehenbiziko txapelketa izan da?

Bai, gimnasiako txapelketak lehenagotik egin nituen, baina lehen aldia zen parkour txapelketa batean. Ez nekien apuntatzen ahal nintzenik, baina entrenatzaileak baietz erran zidan eta pentsatu gabe eman nuen izena. Nire asmoak ongi pasatzea eta jendea ezagutzea ziren.

Hala ere, 17 urte azpiko kategorian bigarren postua lortu duzu...

Hasieran ez nuen espero, baina sailkapen proban lehenbiziko postuan pasatu nintzela ikustean, posible zela pentsatzen hasi nintzen. Arras kontent nengoan lehenbizikoarekin berdinduta nintzela ikustean, baina pena pixka batekin bigarren postuan gelditu nintzelako.

Esperientzia polita izan da?

Arras polita, jende izugarria ezagutu nuen eta arras ongi pasatu nuen.

Zein dira zure asmoak etorkizunerako?

Entrenatzen segitzea, gustatzen zaidana egiten. Txapelketa gehiagotan parte hartzea ere gustatuko litzaidake.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Jendeak uste du parkourra arriskutsua dela, baina pausoz pauso, progresioan eta modu kontrolatuan eginda ez da arriskutsua.



JASOTZAILEAK
Proiektuak, zaharberritzeak,
instalazioak eta mantentze-lanak



ASCENSORES ARGA
IGOGAILUAK

- Bizilagun komunitateetan igogailuak.
- Baserri barneko jasogailuak.
- Menpekotasuna dutenendako baliabideak.
- Elbarritasun fisikoa dutenendako baliabideak.

znorte@ascensoresarga.com
www.argaascensores.com

T. 643 93 79 22
Parrokia 15 behea
DONEZTEBE



Eraikuntza
Taldea



Informazioa:
638 68 63 82
843 99 05 43



IRUÑEA
Mutiloa-Behetiko ind.
D kalea, 13. nabea



DONEZTEBE
Parrokia karrika,
15 behea 2



DONOSTIA
Askatasunaren Hiribidea, 17,
2.solairua

Arlo teknikoa
Zaharberritze arkitektonikoak
Eraikin jasangarriak
Finantziario pertsonalizatua
Partekatutako proiektuak

Erdizko herri galdeketarako galdera adostu dute

Galdeketa herri kontsultak arautzen dituen foru legeraren arabera egingen dute

TTIPI-TTAPA

Urriaren 1ean Baztango Batzar Nagusiak egindako bileran herrilurretan egin nahi den meategiari buruzko galdeketa egiteko galdera erabaki zen: *Magnak Erdizko herri-bazkalekuan egin nahi duen meategi-egitasmooaren alde zaude?* Erantzunak hiru aukera izanen ditu: Bai, Ez edo zuria.

Legearen arabera, galdeketa egiteko eskubidea dutenak udaletxeko udalbatza edo herritarrak eskari bidez dira. Hortaz, Batzar Nagusiak erabaki zuen udaletxeko udalbatzari galdeketa antolatzeke eskatzea. Proposamenaren

aldeko 24 boto izan ziren, Nafarroa Sumako hiru ordezkariak aurka bozkatu zuten eta Almandoz eta Zigako alkateak abstenitu ziren.

Apirilean hasi zuten herri-galdeketari buruzko bidea Batzar Nagusiaren bilkuran, eta batzordea sortu zuten horretarako. Batzar Nagusiak azaldu duenez, «interes bizikoa da baztandarren ondasunak baliatuko lituzkeen egitasmoa baztandarren borondateari kasu eginez bideratzea», eta horretarako, «eztabaida publiko eta gardenaz gain herri galdeketa loteslea egitea beharrezkoa» dela adierazi dute.

Udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea akitu da

Udalak antolatutako tailerretan izena emateko epea irailean itxi zuten, baina plaza libreak gelditzen dira oraindik. Antzerki tailerra azaroaren 2an hasiko da eta hamar plaza libre gelditu dira. Familiendako plastika lantegia azaroaren 6an abiatuko dute baina ez da plazarik gelditu. Artearen esperientzia tailerra bertan behera gelditu da matrikula faltagatik. Atabal eta gaita ikastaroak urriaren 9an hasi ziren.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatu



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

OTEIZA ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia



Instagram icon: oteizaarquitectos



ONDIKOL

Euskal Herriko Dantzarien Eguna Baztanen

Lurralde guztietako dantzariak musikaz eta erritmoz bete zituzten Baztango karrikak urriaren 2an

TTIPI-TTAPA

Nafarroako, Iparraldeko, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiako 35 dantza taldek partu hartu zuten Euskal Herriko Dantzarien Egunean egindako ekitaldietan.

Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatutako jardunaldiak egun guziko egitarau izan zuen; dianekin hasi zuten eguna Anizen, Iruritan eta Elizondoko gaitarien eskutik. Folklore azoka izan zen Elizondoko karriketan goizean eta dantzariak emanaldiak egin zituzten eguerdian Amaiurren, Anizen, Arizkun eta Iruritan. Euroeskualdeko

emanaldi koloretsua izan zen ondotik Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko dantzarien eskutik.

Arratsaldean kalejira handi bat egin zuten dantza talde guztiek Elizondoko karriketan barna eta Luzeko pilotalekuan akitu zuten, bertan ekitaldi nagusia egiteko. Lurraldeko, dantza taldeek ikuskizun ederak eman zuten bertan, eta Argentina eta Uruguako diasporako dantza taldeek ere agerraldia egin zuten pantaila handi baten bidez. Eguna borobiltzeko, herritar guztiendako dantzaldia egin zuten frotoian.

«Baztango emakumeok erabaki behar dugu zer eta nola nahi dugun»

EIDER PEREZ DE HEREDIA GOÑI BAZTANGO UDALEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Baztango Udalak berdintasunaren aldeko apustu «garrantzitsu eta beharrezkoa» egin du aurten. «Badakigu asko dagoela egiteko, bidea luzea izanen dela», baina indarrez ekin diote

R. OSKARIZ

Berdintasun zerbitzua berriz ere martxan paratu du Baztango Udalak aurten. Azken hila-beteetan, «udal barnean berdintasun ikuspegia txertatzeko lanketa egin dugu, langileen gaitasunak indartzeko asmoz». Baina bertze urrats bat emateko unea dela adierazi du Eider Perez de Heredia Goñik, Udaleko berdintasun teknikaria; «herritarren eta batez ere emakumeen eta nesken beharrei erantzunen dien plangintza egiteko momentua».

Berdintasun plana

Udalaren I. Berdintasun Planean, «erronka berrien identifikazioa ardatz duen prozesua garatuko dugu». Horretarako, Udaleko teknikari eta politikoen ahotsak eta esperientziak biltzeaz gain, «Baztango emakumeen bizipen eta errealitateak» ere ezagutu nahi dituzte. Prozesua sustatzeko eta segimendua egiteko, Talde Eragilea sortu dute eta El-huyarren aholkularitza tekniko eta metodologikoa izanen dute.

Hainbat hilabeteko prozesua izanen da, eta beharrak identifikatzeaz gain, bertze hainbat helburu betetzen ahaleginduko dira; «elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko eremuak irekitzea, berdintasunean sentibilizatzea eta trebatzeko guneak eskaintzea, herritarren eta Udalaren arteko zubiak eraikitzea eta emakumeen eta eragileen



Azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izanen dute. UTZITAKOIA

arteko sareak elikatzea». Hau lortzeko, «ezinbertzekoa izanen da herrietako emakumeen zein Udaleko langile eta ordezkari politikoen inplikazioa eta erantzunkidetasuna». Prozesu «emankor eta kolektiboa» gauzatu nahi dute, «benetako berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako diskriminaziorik, desberdinkeriarik eta indarkeriarik gabeko bizitza bizi ahal izateko».

«ERRONKA BERRIEN IDENTIFIKAZIOA DU ARDATZ PROIEKTUAK»

Emakumeen «ezinbertzeko» parte-hartzea

Baztango emakumeen beharrak zeintzuk diren jakiteko, talde-elkarrizketak eginen dituzte urrian. Bertan, azken urteetan berdintasunaren alorrean egindako lana baloratuko dute, hainbat kolektiboren «arazo, behar eta interesak» ezagutuko dituzte eta «jasaten dituzten desberdinkeria nagusiak» identifikatuko dituzte.

«HERRIETAKO EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA EZINBERTZETAKO DA»

Hiru saio egingen dituzte: «lehenbizikoa emakume migratuekin egingen dugu, bigarreanean eskualdeko bertze zenbait alorretan diharduten emakumeekin (kultura, kirola, politika, hezkuntza, etab.) bilduko gara eta hirugarrenean Baztango nekazaritza sektoreko eta herrietan bizi diren emakume anitzen ikuspegiak eta ahotsak bilduko ditugu». Azkeneko saioan «indar eta interes berezia» paratuko dutela adierazi du teknikariak, «eskualdeko herri guztietako emakumeak gertura daitezzen eta Baztango errealitatearen argazki zintzo eta erreala izan dezagun».

Baztango herrietako hamabortz alkateekin ere bilduko dira «Baztango errealitatea osorik ezagutu eta erronka berrien definizioa ahalik eta erreala izan dadin».

Txosten finala

Prozesuan jasotako informazioarekin osatuko den txostena «udalerriko Mugimendu Feministarekin zein eragile esanguratsuekin eta herritar guztiekin» partekatuko dute. Ekarpen berriak jaso eta baloraziorako tartea ireki ondotik, «azken txostena osatuko dugu».

Ariketa kolektibo honekin, Baztango udalerririk bizi duen errealitatea ezagutu eta berdintasunaren alorrean dituen erronkak definituko dituzte. «Emakumeentzat bizigarriak diren bizitzak eta udalerririk eraikitzen segitu nahi du Udalak. Genero-bereizkeriarik gabe, gizon eta emakume orok elkarbizitza osasuntsu, parekide eta justua izan dezaten abiatuko dugu prozesua, zeina eraldaketa sakon baten zati txiki bat bertzerik ez den».

Prozesuari buruz gehiago jakin nahi dutenek eta parte hartzeko interesa dutenek berdintasuna@baztan.eus helbidera idatzi dezakete edo 948 580 006 eta 613 003 634 telefono zenbakietara deitu dezakete.

BKZren proiektuari buruzko erabakia gibelatu dute

Lan-mahai bat bultzatuko du Batzar Nagusiak parkerako sarbidea hobetzeko bermerik dagoen egiaztatzeko

TTIPI-TTAPA

Urriaren 1ean egin zen batzarraren hainbat gai izan zituzten hizpide, haien artean Beartzunen egin nahi duten proiektu berria. BKZren proiektuak eraikin sozial berri bat, etxolak altueran eta aparkaleku berri bat egitea ekarriko zuen. BKZko ordezkariak, Mattari Alzuartek, Beartzungo herri-lurrak uztea eskatu dio Batzar Nagusiari, eta azaldu duenez, «komunalaren erabilera errepidea hobetzera eta horretarako beharrezkoak diren baimenak lortzera baldintzatuta egonen litzateke».

Aitor Bazterrika Elizondoko alkateak adierazi zuenez, «irailaren 24an herriak batzarre bat egin zuen, eta bertan hainbat herritarrek ez bozkatzeara eta gaia hiru hilabetez mahai gainean uztea proposatu zuten». Lan-mahai bat egingen dute Batzar Nagusiko, BKZko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariekin, baita Beartzun, Berro eta Antzanbordako bizilagunekin ere. Trafikoaren

gaia jorratzea izanen du helburu, Nafarroako Gobernuak errepidea moldatzeko bermerik duen argitzeko.

Eztabaida bizia

Alkateek euren herrietako batzarretan erabakitakoa plazaratu zuten, batzuk proiektuaren alde agertu ziren, «betiere sarbide-errepidea moldatzeko baldintzarekin», bertze batzuk erabakia mahai gainean uzteko proposamena babestu zuten. Navarra Sumako eta Gero Baiko zinegotziek euren haserrea agertu zuten gaia ez jorratzeagatik. EH Bilduko zinegotziek erantzun zuten, «erabakia mahai gainean uztea ez da atzera botatzea». Errepideari buruzko idatzizko konpromisorik ez dagoela argudiatu zuten, eta hurrengo hilabeteetan aukera hori landuko dutela. Azkenean, gaia mahai gainean uzteko proposamena bozkatu zuten; 21 kidek baiezkoa eman zuten, zortzi abstentzio izan ziren eta kontrarik ez.

LED argiztapena duen Baztango lehen herria da Berroeta

TTIPI-TTAPA

Geroa Bairen parlamentuko taldeak eta Baztango taldeak Nafarroako Aurrekontu Orokorre egingako 20.000 euroko zuzenketa batekin, Berroetako argiztapena aldatzea lortu dute. LED argiztapena duen Baztango lehenbiziko herrian bihurtu da orain. Lanak akituta, Baztango Geroa Baiko Ruben Ziganda

eta Ioseba Moreno zinegotziek lanak ikuskatu zituzten.

Modu berean, «gizarteak eskatzen dituen» gisa honetako jarduerak bertze herrietara eramateko asmoa agertu dute, eta 2020an Baztango udal aurrekontuetan eraginkortasun energetikorako plan bat adostu zutela gogorarazi du Geroa Baik.



Arturo Elosegi uhaldearen ekosistemari buruz aritu zen. UTZITAKOIA

Baztango uhaldearen ekosistema ezagutzeko ibilaldia Arturo Elosegirekin

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak ibilaldia antolatu zuen urriaren 3an Elizondotik abiatuta uhaldeari jarraikiz Arturo Elosegirekin, EHUko irakaslea eta ekologian katedraduna. Elizondo eta Elbete arteko Askoko zubian hasi ziren, Giltxaurdiko meandroa pasatuta behe-itiko karrikatik Muniarteko zubira joan ziren eta Opokan akitu zuten ibilaldia.

Elosegik ohartarazi zenez, klimaren aldaketak erauntsi bortitzagoak ekarriko ditu eta uharrak maizago eta handiagoak izanen dira. Hortaz, kalteak arintzeko eta prebenitzeko lana egitea beharrezkoa da. Horretarako, uhaldeak herrian

sartu baino lehen zabaltzeko eta gainezka egiteko tokiak behar ditu. Aldi berean, Txokotoko presa zati batean bederen bota beharko zela jakinarazi zien, kalteak guttitzeko eta uhaldea jausteko.

Zuhaitzen garrantzia

Uhalde bazterretan zuhaitzak egotearen garrantzia ere izan zuten solasgai, eta nekazaritzako ur zikinaren kutsatzailer berrien eragin kaltegarriak ere azaldu zituen, araztegiek ezin dituztelako botiken arrasto guztiak kendu. Uhalde bizi batek, ur-lasterrekin, zuhaitz, sasi eta itzalekin ura garbitzeko eta arazteko ahalmen handia duela azaldu zuen Elosegik.

Errepideetan segurtasuna hobetzeko Geroa Bairen ekimenak onartu dituzte

Geroa Baik aurkeztutako bi mozio aho batez onartu ditu udalak. Alde batetik, Arizkungo auzoetan ibilgailuen abiadura moteltzeko guardia etzarako edo sakanguneak paratuko dituzte, bat Ordokin eta bi Bozaten. Gainera, argiztatutako abiadura seinaleak paratu eta abiadura muga adierazten duten seinale bertikalen

berrikusketa egingen dute, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren baimenarekin.

Bertzalde, Arizkzun-Urritzate eta Beartzungo errepide eta pista zati batzuk Errepideen Katalogoan sartu dituzten eskatu diote Obra Publikoaren Departamentuari, hobekuntzak behar zituzten errepideak baitira.

25.000 urteko grabatuak aurkitu dituzte Alkerdin

Urriaren 2ko Ondarearen Egunean eman zuten leizeko aurkikuntza garrantzitsuen berri

ARANTXA ETA IRAIA

Dozena bat grabatu atzeman dituzte Alkerdiko bigarren leizean, bisonteak, uroak, zaldiak, eta bereziki, lau bulben irudiak. Horiekin batera, margo gorriarekin egindako bortz marra bikoitz ere atzeman dituzte. Pasabide estu batetik igarota dagoen leku batean daude grabatuak, leizearen sakon-sakonean, gaur egungo sarreratik bi solairu beheitiago.

Kantabriako Unibertsitateko Diego Garate adituak gidatutako behin-behineko ikerketa aurkeztu zuten urriaren 2an, Ondarearen Egunean.

Ezohiko ezaugarriak

Oraingoan, aztarna multzo bikaina da aurkitu dutena, labar-arte paleolitikoan batera ohikoak ez diren ezaugarriekin. Salamancako Unibertsitateko Olivia Riverok eta ikerketa taldeko kideak aipatu duenez, «harrian grabatutako marren azterketa teknologikoak erakusten du haiek egin zituen pertsonak ez zuela artisten berezko trebetasunik. Egilea esperientziarik gabekoa dela ematen du, ez baita gai marra jarraiak eta seguruak sortzeko».

Gravetiar garaiko irudiak dira (orain dela 28.000 eta 20.000 urte ingurukoak) eta Europako eremu kontinentaleko konbentzio grafiko bartzuekin antzekotasuna dute. Hau da, garai horretako antzeko adibiderik apenas dago iberiar penintsulan eta horixe da, hain zuzen, Urdazubin aurkitu dituzten irudi hauen bereizgarri garrantzitsua.

Alkerdiko eta Berroberriko leize-zuloen historia

Alkerdiko eta Berroberriko aztarnategi arkeologikoen historia 1930ean hasi zen, N. Casteretek Nafarroako lehen labar-grabatu paleolitikoak aurkitu zituen.

2014an bi gauza garrantzitsu gertatu ziren: Alkerdi I leize-zuloan dekoratutako sektore berri bat aurkitu zuten, eta Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza Nagusiak (Vianako Printzea erakundea) ikerketa proiektu handi bat abiarazi zuen, bi haitzuloen ingurune osoaren potentzial arkeologikoa ebaluatzeko.

Aranzadi Zientzia Elkarteari enkargatu zioten ikerketa proiektu berri hura, eta udalak ere lagundu du azken urteotan. Horrela, 2016an Alkerdi II aurkitu zuten, baita paleolito garaiko labar-artearen adierazpen berriak eta ordura arte ezezaguna zen galeria baten luzapena ere. Ondorioz, Alkerdi-Berroberria sistema osoa interes kulturalerako ondasun izendatu zuten eremu arkeologikoen kategorian, eta hura babesteko eta kontserbatzeko zainketa-neurriak hartu ziren, arkeologia eta paleontologia aztarna berriak agertu ahala.

Satorrak espeleologia taldeak Alkerdi II haitzuloan apaindutako galeria berri bat aurkitu zuen 2020ko uztailean.

Jakintza-arlo anitzeko azterlanari esker, Alkerdi-Zelaieta-Ikabaruko sistema karstikoaren ikuspegi integrala osatzen ari da denborekin, interes geologikoko lekua delako eta lehen mailako kultura-ondarea ere badelako.



Aurkikuntza garrantzitsuen berri eman dute. ARANTXA ETA IRAIA/NAFARROAKO GOBERNUA



Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera



Axular, 12 · Antzanborda · URDAZUBI · Tel.: +34 848 85 00 21

Kirol makinak jartzeko proposamen bila

ARANTXA ETA IRAIA

Urdazubiko Herriko Etxeak aspaldidanik kirol makina batzuk jartzeko intentzioa erakutsia du Kolesterolaren Ibilbidearen harirat. Alkate eta zinegotzien aldetik adostasunik egon ez denez, herriarrei makina hauen kokapenari buruzko proposamenak luzatzeko eskaria egin zaie. Honela, urdazubiarrek Herriko Etxerat hurbiltzeko aukera dute haien iritziak eta proposamenak eman eta gero makina hauen kokapen egokia bilatzeko.

Xaretako pastorala prestatzeko bilera urriaren 15ean

MARIFA ETA KORO

Pastoral bat egiteko proposamen bat ailegatu da Xaretara. *Etxalarko Karmen* pastorala idatzi zuen Gerardo Mungiak, *Mayi oreina bilakatu neska* izeneko bertze pastoral bat idatzi du, eta hau da, hain zuxen, Xaretan antzeztea eskaini dena.

Honi buruzko xehetasunak emateko, eta pastorala egiteko jende nahiko elkartzen den ikusteko, bilera bat egingen da urriaren 15ean, ortziralean, 19:00etan Zugarramurdiko museoaan.



ARANTXA ETA IRAIA

Arto biltzen Urdazubín

Urtero moduan arto biltzea urriaren lehen asteburuetan egin da. Artoa biltzeko makina baserriz baserri ibiltzen da, urte osoan behiak bazkatzeko erabiliko den artoa biltzeko. Herriko gaztetxoendako erakargarriak dira egun hauek, aunitz baitira traktoreetan ibiltzera ausartzen direnak

Xaretako hiztegia

- **Xukatu:** Idortu.
- **Xatarra:** Haurren pixoihala.
- **Ziminotu:** Mozkortu.



Leize-gaineko belaitik sartu behar izan dute tresneria. MARIFA ETA KORO

Ehun metroko pasabidea egingen dute leize kaskoan

Ia-ia dena lurra ukitu gabe joanen da eta bi begiratoki izanen ditu, bat Etxeundiko borda aldera eta bertzea herrira begira

MARIFA ETA KORO

Berrikuntza lanetan ari dira leizeko kaskoan. Orain arteko bidea lurra zanpatuz doa, eta horrek zolakako erosioa edo urradura ekartzen du, belarrak galduz eta zuhaitzen erroak agerian utziz. Orain egingen ari direna arras berria da: 100 metroko ibilbide bat izanen da, eta ia-ia dena lurra ukitu gabe joanen da, pasarela bidez. Bide horrek bi begiratoki izanen ditu, bata herri aldera eta bertzea Etxeundiko borda aldera.

Lan hauetan leize kaskoko biodibertsitatea eta harkaitzak ahal bezainbat babesteko, azterketa bereziak egin dira, paisaia-arkitektu batenak alde batetik, eta Aranzadi elkartearenak bertzetik. Urte hondarrrerako lanak finituak izanen dira.



Eguzki-panelarekin pizten den

Karrikako argiak

Bentetako eta errotako bideetan gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen ari dira eta, ondorioz, argiteria publikoa jarri dute iraileko hondar astean: Bentetakoan lau farola eman dituzte eta errotakoan bi. Farola hauek berezitasun bat dute: ez da elektrizitate haririk sartu behar izan, eguzkiarekin kargatzen direlako.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Interneteko fibrari buruzko tailerrak urririk izanen dira

'Capitain Fibre' tailerrak proposatu dizkie herriko kontseiluak herritarrei hazilaren 8, 15, 22 eta 29an

TTIPI-TTAPA

Herriko kontseiluak Sarako bizilagunei *Capitaine Fibre* tailerrak proposatzen dizkie, urririk, partaidetzan Fibre 64 egiturarekin.

Tailer honetan ikasten diren gaien artean, Internet kontsultak egiteko, bilaketak egiteko, helbide elektronikoko bat sortzeko edo mezuak bidaltzeko azalpenak emanen dituzte, Horiek eginen dira hazilaren 8, 15, 22 eta 29an. Tailerra bi zatitan banatuko da, egun erdizka: batto 09:30etik 12:00etara eta bertzea 14:00etatik 16:00etara. Horretarako izenak eman behar dira Herriko Etxerat deituz ahal bezain fite: 05 59 54 20 28.

Usategietako bidea itxia

Aurtengo uso sasoina hasi da, beraz Usategietako bidea itxia



ARANTXA ZUBIETA

Usategietako hitzarmena berria

Bigarren urtez segidan, Usategietako Tradizioaren besta ospatu ez bazen ere, Battit Laborde eta Migel Mari Irigoien, Sara eta Etxalarko auzapezek usategietako sareko uso harrapaketa ahalbideratzen duen urteroko hitzarmena berretsi zuten irailaren 26an Lizarrietan.

da urriaren lehenetik hazilaren hogoi arte, salbu laborarien tresnentzat. Ihiztarierei suerte on, atzeman uso ainitz, horrela guk ere jaten ahalko ditugu.

Bestetako zozketak

Joan den hamabostaldiko aldizkarian eman genuen herriko besten berri eta oraingoan bestetan egindako zozketen emaitza aipatuko dugu. Lehen prima, hiru gaueko egonaldia bat Milanen (Italia) bi presunentzat, Alex Bertrandi egokitu zaio; bigarren prima, aste bat Perigorden sei presunentzat, Cécile Etxeberrigarairi; Hirugarrena, Bardeetan (Nafarroa) lau presunentzat hiru gaueko egonaldia Fanny Ferrazi; laugarrena, Miarritzen hogei minutuko bi hegaldi helikopterrean Michel Lefranci egokitu zaio.



Nafarroako EHNE sindikatuko zuzendaritza berria. UTZITAKOIA

Patxiku Irisarri etxalartarra da EHNE Nafarroako idazkari nagusi berria

TTIPI-TTAPA

Nafarroako EHNE sindikatuak bere zazpigaren biltzarra egin zuen urriaren 1ean Artikan, azken biltzarra egin zenetik bortsu urte bete ziren egunean. Bertaratutako afiliatuenghiengozabal batek berretsi egin zuen hurrengo lau urteetan sindikatua zuzenduko duen lan-talde berria. Fermin Gorraiz eta Patxiku Irisarri izanen dira Nafarroako EHNEko lehendakari eta idazkari nagusi berriak, Nafarroako hainbat sektore eta zonalde ordezkatzen dituzten sei kiderekin batera.

Aurreikusitako eguneko gainerendari segituz eta zuzendaritza berria berretsi aitzinetik, bertaratutako ordezkariak, azken bortsu urteetan egindako lana jasotzen duen Imanol Ibero aitzineko presidentek aurkeztutako txostena gehiengoz handiz, onartu zuten.

Bi txosten eta zuzenketak

Bertze aldetik, atera berri den zuzendaritzak bi txosten aurkeztu zizkion afiliazio guztia-ri, kongresuan eztabaidatu eta zuzendu zitzaizkien: bata barnefuntzionamenduari buruzkoa eta bertzea nekazaritza-politikaren gainekoa. Hauei egindako hamar zuzenketa iritsi ziren kongresu egunera eta guztiak bozkatu eta onartu egin zituzten. Bi txostenek jasotzen zituzten funtsa eta ideia nagusiak aldatu gabe,

zuzenketa hauek nabardurak egin dituzte, edo txostenek jasotzen ez zuten ideien bat gehitu.

Hala egin nahi izan zuen EHNEko kide orok hausnarketak egiteko tartea ere izan zuen. Erraterako, sektore jakin batzuen defentsan edo sindikatuak genero-mailan dituen gabezia batzuk, (emakumearen edo LGTBI kolektiboaren parte-hartzea, EHNEren barruan zein lehen sektorean) nabarmendu zituzten.

Amateria ekitaldian, Iparraldeko anaiatzat duten ELB, Iparraldeko sindikatuko ordezkari batek, EHNE Konfederazioko bertze batek, Itziar Gomez, Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariaketa EHNE Nafarroako idazkari nagusi eta presidente berriek hartu zuten hitza.

«Gu ere kontsumitzaileak gara eta boterea gure eskuetan daukagu»

Hitzaldiek, nagusiki, Biltzarren leloa hartu zuten ardatz, (*Nekazaritza nekazarion esku*), eta hitz-joko bat eginez, Patxiku Irisarri idazkari nagusi berriak aipatu zuenez, «gu ere kontsumitzaileak gara eta, sinesten ez badugu ere, boterea gure eskuetan daukagu», erosketasaskitxoan zer sartzen dugun erabakitzeke ahalmena dugula gogoratuz.

Kultur sorkuntzaren transmisioaz ariko dira Larraldean

'Sormenean hezi, kulturari bizi' bigarren jardunaldiko lehen saioa Larraldean egingen dute urriaren 23an

TTIPI-TTAPA

2018ko urriaren ehun lagun baino gehiago bildu ziren Azpeitin *Sormenean Hezi, Kulturari bizi I.* jardunaldian.

Jardunaldiok antolatzen diren abiapuntua argia zen: euskal kulturagintzaren transmisioan (ezagutzan eta praktikan) etena eman da. Ondorioz euskal kulturagintzaren transmisioa ez dago bermatuta hezkuntza arautuan, hezkuntza ez-arautuan eta familia edo etxegiroan. Azpeitiko jardunaldiak hezkuntza arautuan euskal kulturagintzaren transmisioaren egoeraren erradiografia egin eta Euskal Herri osoan elkarrekin aritzeko prest leudekeen eragileak identifikatzeko antolatuta zizuten. Jardunaldi haiekin sortu zen gaur egun lanean ari den Euskal Herri osorako ikuspegia duen lantalde bat.

Abiapuntu eta helburu bereberekin antolatu dituzte 2021eko urria eta azarorako bigarren jardunaldiak. Senpereko Larraldean egingen dute lehen saioa urriaren 23an, larunbatean 10:00etatik 14:00etara. Ondotik etorriko dira Laudion (Araba) azaroren 6an, Lesakan (Nafarroa) azaroren 13an eta Azpeitin (Gipuzkoa) azaroren 20an egingen dituzten lan-saioak.

Senpereko egitaraua

Senpereko Larraldean, beraz, urriaren 23an, larunbatean 10:00etatik 14:00etara egingen dute aurtengo jardunaldietako lehen saioa, honako egitarauarekin:

- 09:00-09:30 - Harrera eta dokumentazio banaketa.



EuskarAbentura Larhunen.

- 09:30-10:00 - Sarrera eta ongi etorria. Tokiko eragileak.
- 10:00-10:30 - 1.aurkezpena: Ikusentzunezkoak.
- 10:30-11:30 - 2.aurkezpena: Literatura.
 - Ikusimusi. (Galtzagorri)
- 11:00-11:30 - Atsedena
- 11:30-12:30 - Mahai ingurua: Gazteak eta kulturagintzaren transmisioa, belaunaldiartekotasuna.
 - Bertso-udalekuak.
 - EuskarAbentura.
- 12:30-13:30 - Mahai ingurua: Kulturagintza sozializatzeko plazak: aretoak, kalea, internet.
 - Pantailak euskaraz.

Izen-ematea

Senpereko saiorako izena emateko Udako Euskal Unibertsitateko webgunean sartu behar da (www.ueu.eus). Matrikularen prezioa 10 eurokoa da eta urriaren 18a baino lehen eman behar da izena. Gehienez ere hogeitazazko lekua izanen da.

Jardunaldiotatik Euskal Herri osorako ikuspegia duen lantalde bat osatu nahi dute, zeinak euskal kulturagintzaren transmisioa (ezagutza eta praktika) eskolaz kanpo nola bermatu genezakeen aztertu eta proposatuko duen.



Lea Wojtczak da Gantxiki ostatuaren arduradun berria. JL BESSONART

Gantxiki ostatuaren ardura hartu du Lea Wojtczak emakume gazteak

JEAN LOUIS BESSONART

Azken egun hauetan, Gantxiki ostatuak ateak zabaldu ditu eta sartu orduko, berrikuntzak dira azpimarratzekoak. Lehenbizi kudeatzailea, Lea Wojtcza emakume gazte batek errezebitu gaitu, honek baitu hartu Sébastien eta Evelyne Tapiaren segida. Bigarrenik barne guziaz

aramoldatua da. Lea ostatuaz bertzerik ez da arduratuko, trinketaren kudeaketa Herriko Etxearen gain geldituko baita. 30 urteko emazte honek esperientzia ainitz eskuratua du ostalaritza munduan. Burubelari lotu nahi du lanari, hortarako edariek batera pintxoak proposatuko ditu.

Sri Lankari buruzko dokumentala ikusgai hilaren 14an

Sri Lanka, Lîle des dieux et des hommes dokumentala ikusgai izanen da ortzegun honetan, urriak 14, 18:30ean Larreko kultur aretoan. Nicolas Pelissier-ek Sri Lankako Film Konferentzia egingen du Altair Conferencekin batera. Sartzea: 7 euro. Haurrek: 4 euro.

Inkesta publikoa Euskal Elkargoaren eskutik

Inkesta publikoa abiatua du Euskal Elkargoak, aldaketak proposatuak baitira urgarbitzeari buruz, euri urak eta ur zikinen eremuak berriz definitzeko gisan. Norbaitek oharrak baldi baditu, urriaren 20an goizean, arduradun batekin hitz egiten ahalko da.

Dantza eta musika urriaren 23 eta 24ko astebururako

Dantza artistikoen ikuskizina eta kirol dantzen aurkezpena izanen dute Larreko urriaren 23an, larunbatean 14:30ean. Biharamunean, Albosax. Otazu Blues musika emanaldia izanen da 17:00etan. Mixel Ducauren egitasmo berriak lau alboka eta lau saxo uztartzen ditu.

Erantzun ezberdina izan dute azkeneko bi ikusgarriek

Azkeneko bi ikusgarriek erantzun desberdinak ukan dituzte. Jazz kontzertuak, Alexander Big Banden eskutik sekulako arrakasta sortu du, aldiz Buhaminak abesbatzak ez du jende anitz bildu bere kantaldian. Segurki, Ibarrungo bestak izanik publikoaren zati bat eskatu da.

«Pilota eskola auzolanari esker doa aurrera»

AURRERA PILOTA ESKOLAKO BATZORDEKIDEAK

Azken urteotako goranzko joerari jarraituz, 82 neska-mutikorekin abiatu du denboraldia Leitzako Aurrera pilota eskolak. Momentuko egoera «oso ona» dela diote pilota batzordeko kideek, «osasunez, kopuruz eta gogoz oso ongi» daudela. Gainera, «etorkizun polita» ikusten diote eskolari

G. PIKABEA | LEITZA

Gakoa «auzolana eta elkarlana» dela sinetsita daude, eta bide horretan «pilotarako zaletasuna zabaltzen» segitu nahi dute Aurrera pilota eskolan, neska-mutikoei «kirola eginez disfrutatzeko» eta «lagunekin ongi pasatzeko» aukera emanaz. Pilota eskola osasuntsu, indartsu eta lanerako gogotsu ikusten dute eta datuak dira horren erakusle, «gero eta pilotari gehiago» baitira, ikasurte honetan 82 neska-mutiko zehazki, «denak esku-pilotan». Horren atzean, pilota batzordea osatzen duten bost kideren lan nekaezina dago: Gari Gartzia, Aitziber Rodriguez, Juan Mari Ugartemendia, Joseba Sagastibeltza eta Lierni Sagastibeltza.

Noiztik ari zarete pilota batzordean?

Joseba eta Lierni duela bost urte hasi ziren, Gari eta Juan Mari duela bi urte eta Aitziber aurten sartu da. Duela bost urte, pilota eskolaren kudeaketaz arduratzen ziren Luis Lizartza eta Xabi Jaunarena entrenatzaileek eta Txope gurasoak bilera bat antolatu zuten eta aurrera jarraitzeko laguntza eskatu zieten pilota eskolan izena emanda zeuden neska-mutiko guztien gurasoei. Orduan gure semeak pilota eskolan hasi berriak zirenez, laguntzea erabaki genuen. Bost kide sartu ginen: Junkal Otxotorena, Karlos Zabaleta,

Jabi Lizartza, Joseba Sagastibeltza eta Lierni Sagastibeltza. **Zein dira batzordekideen lanak?** Gari diruzaina da, Lierni babesleen kontratuez eta ekipamenduaz arduratzen da, Joseba ordezkaria da eta partidak antolatzeaz, karteldegia prestatzeaz, pilotak eskatzeaz, pilota eskolen eta entitateen arteko harremanak kudeatzeaz... arduratzen da. Eguneroan beste hainbat lan daude eta bakoitzaren aukeraren arabera banatzen ditugu: dokumentuak inprimatu, karteldegia jarri, jaialdiak antolatu, asteburuetako auzolanean parte hartu...

«BATZORDEAK ARDURA ESKATZEN DU BAINA GUSTURA EGITEN DUGU»

Ardura handiko lana da?

Bai, ardura dezente eskatzen du, baina gustura eta gogoz egiten dugun lana da. Azken finean, gure neska-mutikoen egiten dugun lana da, kirolaz disfrutatu eta ongi pasa dezaten, eta bide batez, herriari bizia emateko ere bai.

Jendeak baloratzen du?

Leku guztietan bezala, batzuk gehiago eta besteek gutxiago. **Baditu urte batzuk pilota eskolak...** Gu txikiak ginela pilotalekuan entrenamenduetan eta pilotan jokatzen ibiltzen zirela ikusten genuen, baina ez dakigu noiz sortua den. Garai hartan, gure adineko mutikoak joaten ziren

«2007, 2008 ETA 2009 URTEAK OSO POLITAK IZAN ZIREN»

pilotan aritzera, neskarik ez. Ondoren, lau neska talde bat pilotan hasi zen, baina palan. Mutil kopurua handiago zen, baina neskek beraien tartea hartzen hasi ziren.

Geroztik nolako ibilbidea egin du?

2007, 2008 eta 2009 urteak oso politak eta garrantzitsuak izan ziren herriarentzat. 2007an herriarteko txapelketan eta Euskal Herriko txapelketan txapela lortu zuen Aurrerak. 2008an herriko bi pilotari profesionalak buruz buruko finala jokatu zuten eta horren harira, herrian 2.600 kamiseta saldu ziren... Oso giro polita sortu zen eta momentu bereziak izan ziren. 2009an, berriz, Nafarroako txapelketan txapelkunorde izan ginen. Garai hartan, Leitzakoa ez zen jendea ere etortzen zen bertara entrenatzera eta pilota eskolako pilotariak, orain bezala, hainbat txapelketetan parte hartzen zuten, txapelketa pribatuetan eta publikoetan: Berria, Elgeta, Antiguoa, Diario Vasco, Leitza... Leitzako txapelketaren finala zen egunean Euskal Telebista grabatzera etortzen zen eta ondoren telebistan hiru minutu ematen zuten. Gaur egun profesionalak diren zenbait pilotari ere etortzen dira Leitzako txapelketan jokatzen. **Pilotari kopuruak nolako bilakaera izan du?**

Azken urteotan, pilotari kopurua haziz doa. Eredu eta ordutegi mugatuak ditugu eta pilota eskolan 82 neska-mu-



Aurrera pilota eskolako pilotariak entrenamenduetan. AURRERA PILOTA ESKOLA

tiko ditugu. Aurten bost senior izanen ditugu astero entrenatzen eta asteburuetan lehian, azken urteetan izan ez duguna. Askoz gorago joaterik ez dugu izanen. Pilotaleku berri bat eskatu beharko dugu... [Kar, kar, kar].

Zer dago zenbaki horien atzean?

Gakoa hainbat aukera eskaintzea dela uste dugu, bakoitzari gehien gustatzen zaiona aukeratzeko bidea ematea. Hori Larraun, Araxes, Umore Ona eta Aurrera pilota eskolek osatzen dugun Mendialdeko elkartearen elkarlanean hasteak ekarri digu. Urtean zehar gure pilotarientzako banakako eta binakako txapelketak antolatzen ditugu. Lagunarteko partidak ere jartzen dizkiegu eta kadeteen mailatik gorakoen zat entrenamendu partekatuak egiten ditugu. Elkartetxikiak elkartuta handi egiten gara eta elkarlan hau gure ildo nagusia dela sinetsita gaude. Ia denean elkarte bakarra bagina bezala ari gara. Hori eskualdeko pilotarientzat garrantzitsua da.

Leitzako pilota eskolatik goi mailako pilotariak atera izan dira...

Bai, eta asko. Sekretua pilotarako izan duten afizioa eta grina da. Afizioak lana eta esfortzua eskatzen du. Beraien lehen tasun ia bakarria pilota izan da, eta horri berezkoa gehitu behar zaio, pilotarako izan den inguruko giroarekin elkar elikatu dena.

Nolako harremana du Leitzak pilotarekin?

Harreman polita du. Ezin esan orain urte batzuk adinakoa denik, baina gizartea aldatzen doa eta ohiturak ere bai. Orain kirol gehiago ezagutzen ditugu eta afizioa banatuagoa dago.

Garai txarrak izan du?

Gizarteko arlo guztietan bezala, ziklo onak eta ez hain onak tartekatzen dira. Bere ibilbidean garai on asko izan ditu pilota eskolak, garai txarrak baino askoz gehiago. Oinarrian lan egiteko gogoia eta taldea dagoenean, indarra hartzen da eta, aldiz, gogoia



Aurrera pilota eskolako batzordeko kideak eta auzolanean parte hartzen duten zenbait lagun.

eta lana jaisten hasten direnean, garai ez hain onak iristen dira. Auzolanean antolatu eta aurrera ateratzen diren ekintzetan parte hartzea da garrantzitsua. Gakoa auzolana eta elkarlana da. Momentu honetan, osasunez, kopuruz eta gogoz oso ongi gaude eta hori nabari da.

Gaur egun zein da egoera?

Egoera oso ona da eta bide horri jarraitu behar diogu. 82 neska-mutiko dira, eta horien artean 20 neska, gero eta gehiago. Nahiz eta gehiengoak ez duen lehiatu nahi, badute afizioa eta lagunartean askotan ikusten ditugu kalean jolasten.

Erraza da Leitzako haurrak pilota eskolara erakartzea?

Afizio handia dago, baina horren atzetik herrian izan ditugun goi mailako pilotariek zeresan handia dutela iruditzen zaigu. Egia da herrian ez dugula beste zenbait herritan bezainbeste pilotaleku. Bat estalia dugu eta bestea herria-

ren bihotzean dagoenez, herri erdi-erdian egote horrek pilotan ibiltzera erakartzen dituz neska-mutikoak. Hainbat aukera eskaintzen ditugu, mailaren arabera txapelketak, ingurukoekin, Mendialdeko elkarteak elkarlanean antolatutakoak, ofizialak, pribatuak, lagunartekoak... Horrek bakoitzak gustukoena duena aukeratzeko bidea ematen du eta ahoz ahokoak funtzionatzen du. Iragarki askorik gabe etortzen dira guregana.

Nola antolatzen zarete?

Mailaren arabera banatua dugu: seinetan bi talde ditugu (8-10 urte), kimuen kategorian bi talde (10-12 urte), haurren kategorian hiru talde (12-14 urte) eta kadeteetan (14-16 urte), gazteetan (16-18 urte) eta nagusietan talde bana (18 urtetik gora). Kategoria horietan neskek eta mutilak daude eta horrez gain, nesken beste bi talde ditugu. Benjaminurrekoetan (5-8 urte), berriz, pilota jolasak antolatzen di-

tugu eta maila horretan aurten zortzi pilotari ditugu. Hauek astean egun bakarrean aritzen dira. Gainerakoekin, astean lau egunetan izaten ditugu entrenamenduak eta kategoria bakoitzak bi egunez izaten ditu. Ikasturte honetako entrenatzaileak Asier Olaizola, Eki Mateorena eta Eki Goikoe-txea ditugu. Joseba Sagastibeltza ere askotan laguntzen izaten da.

Nolako etorkizuna ikusten diozue?

Etorkizun polita ikusten diogu. Neska-mutiko asko ditugu eta batzordeaz gain, laguntza ematen duten guraso dezentek ditugu. Azken finean, gure euskal pilotaren alde lan egiten dugunak gara, dena txukun eta ongi aurrera ateratzeko ahaleginean ari garenak.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Pilota eskolak aurrera osasuntsu jarrai dezan, ezinbestekoa da elkarlana eta denen inplikazioa. Gaur egun, pilota eskolako neska-mutikoen gurasoak gara auzolanean ari garenak eta horrela lan eginez ateratzen dira etekin handienak. Momentuz oso ongi gaude eta eskerrak eman nahiko genizkieke laguntzen duten guztiei. Horrela jarrai dezagun, eta gero eta gehiago hurbil gaitezke auzolanera.

«GAKOA GEHIEN GUSTATZEN ZAIENA AUKERATZEKO BIDEA EMATEA DA»

«GAUR EGUN PILOTA ESKOLA OSO EGOERA ONEAN DAGO»



Joan den urtean Nafarroako txapelkun izan zen Beti Gazteko talde mistoa. Aurten Amaiur ere izanen da tiran. AITOR AROTZENA

Nafarroako sokatira txapelketa Leitzan hasiko da

Lesakako Beti Gazterekin batera, berriz ere Amaiurrek taldea aterako du nesketan, mutiletan eta mistoan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketa antolatu du aurten ere Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Lesakako Beti Gazterekin batera, aspaldiko partez kategoria guztietan taldea

aterako duen Amaiur izanen dira eskualdeko ordezkariak.

Lehenbiziko jardunaldia larunbat honetan, urriak 16, eginen dute Leitzako Amazabal, 17:00etan. Bigarrena urriaren 23an eginen dute

Barasoainen, hirugarrena Antsoainen urriaren 30ean eta azkena azaroaren 6an, seguruenik Elizondon.

Gizonezkoak zortzinaka lehiatuko dira, 620 kiloz beheitiko kategorian. Amaiur, Antsoain, Berriozar, Beti Gazte eta Txantrea ariko dira lehiatzen.

Emakumezkoak, berriz, seinaka ariko dira, 375 kiloz beheitiko kategorian. Sei talde izanen dira: Amaiur, Antsoain, Araxes, Berriozar, Beti Gazte eta Txantrea.

Txapelketa mistoan ere sei talde horiek ariko dira, baina zortzinaka, 550 kiloz beheitiko kategorian.

Lizuniagako Igoerak 40. edizioa beteko du Beran urriaren 23an

TTIPI-TTAPA | BERA

Gure Txokoa elkarteak antolatuta Lizuniagako igoera eginen dute urriaren 23an. Aurten berrogeigarren edizioa beteko du lasterketak, baina ez da haurren lasterketarik izanen. Beraz, 14 urtetik goitiko gazte eta helduen lasterketa (4,9 km.) 17:00etan Eztegarra pilotalekuaren paretetik hasiko da. Ibilbidea osatzera koan orain arteko markak hobetzen dituztenek 150 euroko saria jasoko dute. Gizonezkoetan Chakib Lagcharek 2019an egindakoa da denborarik onena (15 minutu eta 55). Emakumezkoen marka, berriz, Maika Ariztegi iturndarrak ezarri zuen, 1995ean. 20 minutu eta 18 segundotan egin zuen ibilbidea.

Izen-ematea

Izena aitzinetik eman behar da, 7 euro ordainduta (*pb-organisation.com*, *guretxokoa-elkartea@gmail.com* edo Whatsappez 626 30 94 38).

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketako finalerako boskotea osatu da

TTIPI-TTAPA | ETXALAR

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu zen urriaren 2an, Lekunberrin. Azaroaren 19an edo 21ean Donezteben jokatuko den finalerako bost txartel zeuden jokoan eta hauek dira sailkatutakoak: Iker Vicente (Otsagabia), Eneko Saralegi, Julen Olano (Leitza), Jon Rekondo (Leitza) eta Joxean Etxeberria (Ziga).

Iker Vicentek nagusitasunez irabazi zuen proba: Bi kanakerdikoak, bi 60 ontzakoak eta oinbikoa mozteko 13 minutu

eta 56 segundo behar izan zituen. Bigarren posturako lehia polita izan zen Eneko Saralegi eta Julen Olanoren artean. Azkenean Saralegi izan zen bigarren (16.36) eta hamar segundoko alde atera zion Olanori (16.46). Laugarren Jon Rekondo izan zen (17.19) eta lehiarik estuena finalerako bosgarren txartelarena izan zen. Azkenean, hiru segundoko aldearekin Zigako Joxean Etxeberriak lortu zuen (17.37), Asier Pellejero aresoarraren kaltetan (17.40). Julen Kañamarek zazpigarren izan zen



Rekondo, Etxeberria, Olano, Saralegi eta Vicente izanen dira Doneztebeko finalean.

(17.55) eta Iban Resano zortzigarren (19.16). Oier Kañamaresek ezin izan zuen parte hartu eta medikuaren agiria

aurkeztu zuen. Ruben Saralegik, berriz, lesio baten ondorioz aizkora uztea erabaki du eta maila galduko du.



Kopako finalistak, Laxoa Elkarteko ordezkariekin eta sari emaleekin urriaren 2an Arraiozko plazan. UTZITAKO ARGAZKIA

Kopako finalak borobildu du laxoa denboraldi ederra

Mindegia-Juanena-Juanena eta Apeztegiak 9-8 irabazi zieten Bengoetxea-Etxebeste-Alunda eta Etxandiri

TTIPI-TTAPA | ARRAIOZ

Laxoa kopako final bikaina ikusi zuten urriaren 2an Arraiozko plazara bildutako pilotazaleek. Bi ordu eta hoge minutuko finala izan zen, orekatua, borrokatua eta emozioz betea. Azkenean, Mikel Mindegia (Arraioz), Josu Juanena (Doneztebe), Joseba Juanena (Doneztebe) eta Javi Apeztegia

(Doneztebe) nagusitu ziren, 9-8 Xabi Bengoetxea (Arraioz), Ramontxo Etxebeste, (Doneztebe), Aritz Alunda (Arraioz) eta Iñaki Etxandi (Irurita) laukotearen kontra.

Laxoako denboraldia akitzeko sekulako partida ikusi ahal izan zuten Arraiozen, aspaldiko luzeenetakoa eta borrokatuenetakoa. Marka-

gailua horrela joan zen: 2-0, 2-2, 3-2, 3-3, 4-3, 4-6, 6-6, 6-7, 8-7, 8-8, 9-8.

Gisa honetara borobildu da Laxoa Elkarteen denboraldia. Urte honetan borts txapelketa edo torneo jokatu dituzte: Baztan-Malerreka desafioa, Baztan-Erreka txapelketa (helduak), gazte txapelketa, gazteen txapelketa eta, azkenik, kopako txapelketa. Bertalde, urtero bezala neguan paxaka txapelketa antolatuko dute, baina oraindik ez daki gu noiz hasiko den. Iruritako Aranabias jokatzeko txapelketaz aparte, Iparraldeko trinketetan jokatzeko den Euskal Herriko txapelketan ere parte hartuko dute Laxoa Elkarteko pilotariek, bai 1. mailan baita 2. mailan ere.

NIRE USTEZ



TIBURTZIO ARRAZTOA
LAXOA ELKARTEA

«Denboraldi emankorra eta positiboa izan da»

Laxoa denboraldia hagitx emankorra eta positiboa izan da, urte hasieran pentsatzen genuena baino hobea, otsailetik orain arte gelditu gabe aritu garelako. Helduen bi finalak ezin hobeak izan dira, eta gainera abuztuaren 7ko finalean Arraiozko plazan bildu zen ikusle kopurua azken urtetako handiena izan zen. Gazteen eta batez ere gazte txapelketak ere arrakasta izan dute. Datorren urtean bide honetik segitzea eta antzeko egutegia antolatzea espero dugu. Aipatzekoak dira Iruritan eta Donezteben funtzionatu duten haur eskolak ere, gero udan antolatutako txapelketan ikusi dugun bezala. Orain hasi den ikasturtean ere eskola hauek martxan segituko dute. Gure helbururik garrantzitsuena gure artean laxoa mantentzea da eta horretarako harrobia zaindu eta landu beharko dugu.

Irurita Ak irabazi dio Oizi gazteen txapelketako finala

Gazteen laxoa txapelketako finala jokatu zuten irailaren 25ean Arraiozko plazan: Irurita Ak (Jon Sagaseta-Beñat Mariezkurrena-Hegoi Iturregi-Hodei Aleman) 9-1 irabazi zion Oizi (Xuban Ilarregi-Mikel Mikelarena-Aimar Ariztegi-Marko San Miguel). Sari banaketan Joselu Retegi (Arraiozko alkatea) eta Javier Conde (Nafarroako Pilota Federazio-ko Lehendakaria) izan ziren.



Iruritako eta Oizko finalistak, Laxoa Elkarteko ordezkariekin eta sari-emaleekin. UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKOAK

LEITZA Emakume Baserritarren Topaketa

Izen-ematea: 674 08 69 26.

Urriaren 16an, 10:00etan Basakabin. Saio praktikoa, bazkaria eta auzolana.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Kirolak' antzerkia

Harriondoan, urriaren 16an, 19:00etan. Sarrerak salgai www.lesaka.eus-en 6 eurotan.

IRURITA

'Konpromisoa' antzerkia

Gizarte Bilgunean, urriaren 17an, 19:00etan. Sarrerak 18:30etik aitzinera jasotzen ahalko dira

ETXALAR

Mikel Bermejoren bakarrizketa

Kultur Etxean, urriaren 23an, 19:00etan.

BERTSOAK

DONEZTEBE

Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdena

Zineman, urriaren 16an, 17:30ean. Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus-en.

TAILERRA

GOIZUETA

Joku tailerra

3-6 urte bitarteko haurrei eta haien gurasoei zuzendua. Xalto eskolako jangelan, urriaren 28an, 17:00etatik 18:00etara.

AZOKA

BERA

Azoka Eguna

Merkatu eta Altzateko plazan, urriaren 16an, 10:00etatik 14:00etara.

ELIZONDO

Artisautza eta elikagaien azoka

Plazan, urriaren 16an, 23an eta 30ean, 10:00etatik 14:00etara.

LESAKA

Merkatu Ttikia

Beheko plazan, urriaren 30ean, 10:00etatik 14:30era.

SOLASALDIAK

LESAKA

'Hurbiletik begirutzen'

Suizidioaren prebentziorako solasaldia. Harriondoan, urriaren 21ean, 17:30ean.

ELIZONDO

Liburu aurkezpena

'Emigración de la Navarra Atlántica a América (1840-1874)' Liburutegian, urriaren 22an, 19:00etan. Gonbidapneak urriaren 13tik aitzinera.

IKASTAROAK

LESAKA

Jubilatuendako telefono mugikorrerekin trebatzeko ikastaroa

San Fermin erretiratuen elkartean, urriaren 19tik azaroaren 4ra, 10:00etatik 12:00etara astearte eta ortzegunetan.

KONTZERTUAK

LEKAROZ

Las Tipex

Hiruitturrin, urriaren 15ean, 19:30ean.

LEKAROZ

Ginger eta Alarma Morea

Hiruitturrin, urriaren 16an, 18:30ean.

ORONOZ-MUGAIRI

Baztan Kantuz

Urgainen, urriaren 17an, 12:00etatik 13:00etara.

BERROETA

Mendi Abesbatza

Elizan, urriaren 23an, 20:00etan.

ELIZONDO

Gazterdi Abesbatza

Arizkunenean, urriaren 24an, 19:00etan. Sarrerak 18:30etik aitzinera jasotzen ahalko dira.

LESAKA

Ibil Bedi

Harriondoan, urriaren 30ean, 20:00etan. Sarrerak salgai www.lesaka.eus-en 5 eurotan.

ELIZONDO

Alos Quartet

Arizkunenean, urriaren 31n, 19:00etan. Sarrerak 18:30etik aitzinera jasotzen ahalko dira

JARDUNALDIAK

LEITZA

Emakume Baserritarren Topaketa

Basakabin, urriaren 16an, 10:00etan.

Nire aukera

«Ipuinen eta entzuleen arteko zubi lana egiten dugu»

AMAIA ELIZAGOIEN VARELA IPUIN KONTALARIA



«Bizitza ilusioz bizi duen pertsona» da Amaia Elizagoien Varela (Ornoz-Mugairi, 1994), eta ilusioz bizi ditu bere zaletasunak; «mendian ibiltzea, antzerkia egitea, irakurtzea, jolastea, bidaiatzea...» eta kontaketa. 2015ean hasi zuen bere ipuin kontalari ibilbidea eta geroztik «aunitz aldatu da nire, orain gure, proiektua».

Haurren mundura sartzen

Haur Hezkuntza ikasi du Elizagoienek, goi-maila eta baita gradua ere. «Etapak bakoitzean haurrek eskaintzen dutena desberdina da, baina ederra da ematen duten bizi pozarekin lan egitea». Orain, haurrak entrenitzea du lan; «mundua ulertzeko daukaten era ederra da, eta akaso haien mundara hurbiltzen saiatzen naizelako moldatzen naiz horren ongi haiekin».

Ipuin kontalaritzari lotutako ikasgai bat izan zuen goi-maila egiten ari zela, eta irakasleak aipatu zion kontalari izateko ideia. «Maite Frankoren eskutik formakuntza lantegi bat egin nuen eta berak eman zidan mundu profesionalera salto egiteko bulkadaxoa». Argi zuen ez zela erraza izan, «baina ilusio eta desira handia nuen, eta ordutik lanean ibili naiz».

Ameliren jaiotza

Eskoriatzako bertso eskolan irakasle izan zen Elizagoien; «lehenengo egunean nire izena Amaia dela azaldu nien, baina lagunek Eli deitzen zidatela». Bertako batek, orduan, «berarentzat Ameli izan nintzela erran zidan. Barrenean zerbait piztu zitzaidan hori aditzean, naizena eta naizen horretara ailegatzeko jaso

dudana barnebiltzen du izenak; 'Ameli' imaginario kolektiboan dago, mundu fantastiko batera eramaten gaitu».

Bakarrik ekin zion Amelik kontalaritzari, eta «gozatu bezainbertze sufritzen nuen». Esperientzia izan du irakasle, «zer eta nola hobetu erakutsi zidan», eta Olaia Intziarte eta bere musika izan zituen lehenbiziko bidelagunak. «Bi hasiberri ginen, baina ilusioa genuen eta elkarlanean konplizitate handia». Intziarte batxilergoan zegoen orduan, «eta proiektuari denbora gehiago eskaintzen ahalko zion norbait topatzea onena izanen zela erabaki genuen».

Duela lau urte Irati Celestinorekin hasi zen lanean, eta hainbat plaza bete dituzte geroztik Amelik eta Xirrikituen Jostunek. «Ipuinen mundua ulertzeko filosofia antzekoa daukagu eta ederra da bera-rekin lan egitea».

Esperientzia kolektiboa

«Transmisioarekin segitzea» da haien helburua, «ahozkotasuna eta narrazioa gure herriaren ondarea dira, altxor bat». Argi dute «haurrak heztea ez dela gure ofizioa, baina ipuinek balio bat dute, esperientzian isla direlako, eta hori beti da aberasgarri bezain hezigarria».

Entzuleetara moldatzen ikasi du Elizagoienek, «esperientzia kolektiboa da kontaketa, eta hartu-eman hori ez da bat-batean gertatzen. Plazan ikasten da gehien, oraindik aunitz dugu ikasteko eta beharbada horrek ere egiten du ofizio hau hain ederra».

Haien lana baloratua izan dela azpimarratu nahi izan du,

«EUSKARARI ARNASGUNEAK ESKAINTZEA DUGU HELBURU»

«guk ipuinen eta publikoaren arteko zubi lana egiten dugu, gure proiektuan aunitz sinisten dugu eta hori publikoak ikusten du». Hizkuntzak ere garrantzia handia du kontaketeetan, «argi nuen euskaraz lan egin nahi nuela, euskaraz bizi baikara. Baina euskarak arras errealitate anitzak ditu, eta leku guzietan ez zaio merezi duen balioa ematen. Gure helburuetako bat euskarari arnasmuneak eskaintzea da».

Helduendako kontalaritzan ere aritu dira. «Txikiekin hizkuntza simple eta gardena erabili behar dugu; mitoak sortu. Adin batetik goiti, ipuin oro kontagarria da, zubia da egokitu behar dena, kontatzeko era. Zoritzarrez, heldu aunitzek hori ahaztu dute, eta ipuinak ttikien kontuak direla uste dute. Hori aldatzea da gure erronka».

Komunikazioaren garrantzia

Bertsolaritzan eta Xaloa telebistan ere ikusi izan dugu Amaia Elizagoien. «Gaur egun ez naiz bertsoetan plazaz plaza aritzen, baina nire kontaketeetan bertsoak kantatzen ditut, eta beti egonen dira modu batean edo bertzean nigandik hurbil». Xaloa, berriz, «opari bat» izan da berarentzat, «galdezko eta jakiteko beti eduki dudana desira asetzeko espazioa». Komunikazioa «ezinbertzekoa» dela uste du, «baina kontaktatzen baino, entzuten berrikasi behar dugu».

Etorkizunera begira, amets aunitz ditu; «gure aurrekoek lan handia egin zuten mitoak sortzen eta bertzeek sortutakoak jasotzen, eta transmisio lan horretan segitu nahiko nuke, kontaktatzen eta ikasten».

Haurrei eta batez ere helduei kontaketeetara etortzeko gonbidapena luzatu nahi die Elizagoienek, «kontalari bikainak daude Euskal Herrian eta entzuleak behar ditugu, beraz, eman diezaioگون aukera bat kontaketeari».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.



ELIZONDO. Etxea salgai, biltegia itsatsia (230 bat m²) eta gutienez hiru ibilgailurendako tokia duen etxabearekin. 2 logelako etxebizitza eroso, bista zoragarriak, herritik minutu batera, menditik minutu batera... Kokapen egokia. ☎680 91 19 12.

LESKA. Etxe tradizional batean 65 m²ko pisua eta 52 m²ko bajera salgai, 85.000 eurotan. ☎609 70 87 97.

BORTZIRIAK. Borda salgai. ☎647 58 81 63 (deitu gauze).

LEITZA. 110,85 m²ko pisua salgai. 3 logela, bi komun, sukalde-jangela eta bi terraza handi. ☎679 27 23 60.

LEITZA. 85 m²ko pisua salgai, igogailuarekin. Zaharberritzeko. ☎636 85 05 70.

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Pertsona batentzako logela errentan emateko. Urte osorako. Erretzailea ez dena eta animaliarik ez. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.

ERRENTAN HARTZEKO

IRUN. Lagun batek pisu bat aurkitu nahi du beste zonaldeko ikasle batekin konpartitzeko. Irailetik ekainera. ☎948 45 07 08.

LESKA. Errentan hartzeko pisu baten bila ari dira. Egoera onean dagoen pisu bat, 3 logela eta berogailuarekin eta luzerako kontratua nahi dute. ☎615 71 76 79.

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitza behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

KONPARTITUAK

DONOSTIA. Bortziritako gizonezko batek pisu konpartitu batean gela bat hartu nahi du. Lasai, txukuna eta erretzailea ez dena. ☎609 47 72 77.

ELIZONDO. Gela bat errentan hartzeko norbait behar dute. ☎622 40 21 95.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

ELIZONDO. Baztanberrin lur azpiko garaje batean garaje-marra errentan emateko. ☎649 44 67 32.

LESKA. Elitzetako plazan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎629 48 06 24.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BAZTAN-BORTZIRIAK. DBHko irakasle esperientziaduna Baztan eta

Bortzirak aldean etxeko klaseak emateko prest. DBH eta Batxilergoko ikasgaiak: Matematika, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia. Hizkuntzak: Euskara C1 maila arte; Ingelesa B2 maila arte. ☎688 87 61 12 (Joseba).

HEZITZAILE EMOZIONALAK

BERA. Hezitzaile emozionala, *coach*. Gatazken konponbidea, helburuak osatzea, helburu planak. Lehen kontsulta doan. krecoach@gmail.com. ☎625 03 40 26.

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,18
- 1.koa 4,06
- 2.koa 3,91

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,15
- 2.koa 4,01

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/9,50
- 8-10 kilokoak: 7,70/8,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 34 €

Zerri gizona 1,173 €

Zerramak 0,420€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 24tik urriaren 1era bitarteko prezioak)

LANA

ESKAITZAK

ETXALARKO bentan lanaldi osoan aritzeko zerbitzari bat eta asteburuetarako zerbitzariak behar dituzte, esperientziadunak baldin badira hobe. ☎948 63 50 00.

DANTXARINEA. La Jambonerie ostatuan frantsesa dakien emakume zerbitzaria behar dute egun osoko lanaldirako. ☎659 73 27 73. ibericosdevegaseca@hotmail.com.

DANTXARINEA. Mikelenborda jattetxean asteburuetarako langilea behar dute. ☎690 38 81 34.

ZUGARRAMURDI. Ansalas ostatuan zerbitzaria behar dute, euskara eta frantses pixka bat jakitea kontuan hartuko dute. ☎ 948 59 90 82 / 948 59 92 30.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean, egun osoz aritzeko biltegin/apal-bete-tzailea, janari-dendako saltzailea eta harakina behar dituzte. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean, asteburuetan egun erdiz aritzeko zerbitzaria behar dute. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com.

ANIMALIAK

SALGAI



Baserrian jaiotako oilandak eta oilaskoak salgai, kanpoan ibilitakoak. ☎671 75 90 52.

Bi urteko **ahari mutur gorria** salgai. ☎606 01 93 37.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK



BERA. Toki Ona institutuko aparkalekuan bario bat galdu dute. ☎679 29 57 29 / 608 73 73 46.

SALGAI

Jantokiko bi **mahai** salgai: bat (harritz egurra) sei **aulkirekin**, bi besaulki opari. 113 cm x 113 cm, eta

handitzeko taularekin (300 euro). Bertzea 140 cm x 78 cm, egongelako mahaiarekin (58 cm x 80 cm) bat datorrena (200 euro + 100 euro). ☎680 27 82 23.



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. ☎629 45 14 26.

90 cm-ko ohe artikulatua salgai, igo eta jaisteko karroa eta segurtasun barrekin. Egoera onean. 450 euro. ☎636 55 70 48.



Egur trinkoko **arasa eta mahaia** salgai, 6 pertsonentzat egokia eta 8 pertsonentzat luzatzeko aukerarekin. 6 aulki ere mahaiarekin bat datoz. ☎681 22 59 17 / 699 91 21 59.



Invacare Leo markako **moto elektrikoa** salgai, 800 eurotan. ☎652 72 30 84.



90 cmko **bi ohe artikulatu** salgai, bakoitza 400 eurotan. Biak elkarrekin edo banaka. ☎652 72 30 84.



Sofa, relax **besaulkia**, belarridun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi **mahai** (bat lakatu zuria eta bertzea

bernizatua) eta alfombra salgai. Dena egoera onean. ☎610 38 58 67.

Egongelako altzari klasikoa (240 x 210 x 41cm) 400 eurotan eta **pianoa** salgai. ☎948 63 05 67.



Sampi Aragón



FORD KUGA STLINE - 27.900€ finantzatu
KILOMETRO 0



FORD KUGA STLINE - 22.000€
34.000 KILOMETRO



FORD KUGA STLINE - 8.900€
113.000 KILOMETRO

DONEZTEBE | 948 450 354


BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENAREN HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, irailaren 14an emandako 269/2021 Ebazpenaren bitartez, 7. poligonoko 301. partzelaren -Itzea karrika, 4- Xehetasun Azterlana, onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanen da hogeitun laneguneko epean, iragarkia NAOan argitaratu ematen denetik. Dagokion iragarkia 2021eko irailaren 30eko 229. N.A.O.n argitaratu da

Bera, 2021-09-30
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

URTEBETETZEAK



Doneztebeko **Hegoi Arnedo Mitxelena**k urriaren 12an 5 urte bete ditu. Aunitz urtez! Ea zure esperimendu horietakoren bat probatzen dugun. Musu erraldoi bat!



Enea Mindegia Mortalenak urriaren 14an 2 urte bete ditu. Aunitz urtez etxeko guztien partetik! Egun polita pasatu! Muxu handi bat!



Beñat Portuk urtea beteko du urriaren 18an. Aunitz urtez Artazkozko familiaren eta Lesakako amabixeren partetik. Muxu pila bat!



Jare eta **Endara**k bi sorginek 10 eta 2 urte bete dituzte urriaren 5ean eta 6an. Zorionak!



Helene Alzuri Lujanbio! Kart horrekin hartu zuen belozidadean pasatu dira urteak! Eta urriaren 14an, zure hamabigarren urtebetetzea ospatuko dugu! Zorionak eta muxu handi-handi bat asko maite zaituen familia guztiaren partetik.



Aunitz urtez **Arantza!** Gure txantxikuak urriaren 18an urteak bete ditu eta ongi-ongi pasa eguna!



Aunitz urtez **Amaia!** Urriaren 24an urteak bete ditu ongi ospatu eguna! Segi makilak eskuan kilometroak eginez!



Ioritz Iguzkiagirrek 9 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak eta ongi ospatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoan partetik!!



Elgorriagako **Ander Bertiz Etxeberriak** urriaren 11n 4 urte bete ditu. Zorionak moñoño. Muxu bat familiaren eta bereziki Aimar, Aiala, atta eta amaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitatekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo laneguneko argitaratuko dugu webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Whatsapez 744 48 43 61 telefonora argazkia eta testua bidalita.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) ERRAN.EUSEN bitartez.

OROIGARRIA



**Jeronima
GUILZU GAMIO**

Zugarramurdin, urriaren 3an,
95 urte zituela.

Haize hegoak eraman zaitu zerura,
hala izar berri bat argitu da,
ez adiorik amatxi,
Zure indarra gure baitan gelditu da.

ZURE FAMILIA


URTEURRENA

Juan Mari ZALDAIN MAISTERRENA
Amaiurren hil zen, 2016ko urriaren 1ean
V. urteurrena



Bortz urte horren hurbil
Bortz urte horren urrun,
Gure egunerokoa
zure bizigogoa, indarra
eta maitasuna ditugu
leial bidelagun.
Maite zaitugu.

EMAZTEA ETA SEME-ALABA



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUÍ, A TU LADO

948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

**BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe**

OROIGARRIA



Leon ALMANDOZ

Umorez eta irriz
egoten ginen elkarrekin
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.

ARANBURU FAMILIA

HILBERRIAK

- **Leon Almandoz**, Sarakoa, irailaren 19an, 60 urte zituela.
- **Julio Retegi Petrikorena**, Eratsungoa, irailaren 23an, 85 urte zituela.
- **Miguel Mari Inbuluzketa Alkasena**, Elizondokoa, irailaren 26an, 68 urte zituela.
- **Mª Jesus Iribarren Iribarren**, Elizondokoa, irailaren 28an, 63 urte zituela.
- **Mª Esther Bereau Elizalde**, Etxalakoa, irailaren 29an, 88 urte zituela.
- **Jeronima Guilzu Gamio**, Zugarramurdikoa, urriaren 3an, 95 urte zituela.
- **Mª Jesus Zubiri Etxandi**, Elizondokoa, urriaren 4an, 87 urte zituela.
- **Miguel Mari Eraso Habans**, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 5ean, 85 urte zituela.



ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

- ▶ **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek % 10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokia
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es




Presta zaitez negurako ... Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden diru-laguntzak,
gestioekin lagunduko dizugu!

THERMOFIBRA
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m² K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak

deceuninck




PLAZAN BAZAN




DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.



HITZ GURUTZATUA

Idatzi irudi txikien izenak dagokien arkatzean. Ondotik, lauki nabarmenduetan egokitu diren hizkiak hartu eta ordenan jarri behean (goitik beherakoa errespetatuz). Ongi eginez gero, Zumeta margolariaren sorteria azalduko zaizu.





ITZALA

Zein da marrazkiaren itzal zuzena?
Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

~%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

791 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako aquariuma - Bi sarrera**
Maria Isabel Etxeberria Aleman | ELIZONDO
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Luis Jabier Telletxea Pellejero | LESAKA
- Salting Iruñea - Bi sarrera**
Begoña Lazkano Zabaleta | LEITZA
- Taberna edariak - Lote bat**
Pako Petrirena Arretxea | SUNBILLA
- Irrisarriland - Sarrera bat**
Edurne Huitzi Erasun | IGANTZI
- Galaxy Park - Bi sarrera**
M. Belen Martiarena Irastorza | IRUN
- Wow park - Bi sarrera bikoitz**
Saioa Diosdado Migeltorena | DONEZTEBE
- Arantxa Danboriena Ulazia | ETXALAR**
- Baga-Biga - Bi disko**
Juan Angel Ibarra Ibarra | ZIGA
- Baga-Biga - Bi disko**
Juan Jose Verde Etxeberria | NARBARTE

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Jertse bat

SALTING IRUÑEA

www.saltingcenters.com



Bi sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

ARKUPE

www.arkupegozotegia.com



Lote bat



WOW PARK

www.wowpark.fr

Wowpark
Votre Parc Aventure



Hiru sarrera bikoitz

**LI
BU
RU
AK**



- Bi liburu sorta

ibaizabal

www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



elkar

www.elkar.eus



**ZUGARRAMURDIKO
SORGINEN LEZEA**

www.turismozugarramurdi.com